

#1 / 2019KO URTEKARIA

# artelka

**12 HILABETE  
HISTORIAREN  
ATZERA-KONTUAN**

**GEDAR**

# artelka

haustura bat  
inertzian

**ALDIZKARIA  
HILERO JASO  
GEDAR.EUS WEB  
ORRIAN HARPIDETUZ**

**GEDAR  
LANGILE  
KAZETA**

**36 ERREPORTAJEA**  
**12 HILABETE HISTORIAREN**  
**ATZERA-KONTUAN**



**14 ELKARRIZKETA**  
Iruñerriko Langile Autodefentsa Sarea  
**AUTODEFENTSA PROLETARIORAKO**  
**BIDE-ORRIA MARRAZTEN**



**70 KOLABORAZIOA**  
Kolitza  
**EZKER ABERTZALEA BIDEGURUTZEAN:**  
**EGOERA POLITIKOAREN AZTERKETA**



**4 EDITORIALA**  
**HASIERA BESTERIK EZ**

**6 IKUSPUNTUA**  
Jon Agirre  
**HAUSTURAREN GARAIA**

**11 KOIUNTURA**  
Beñat Aldalur  
**KLASE IDENTITATEAK ETA**  
**PROZESU SOZIALISTA:**  
**GAUZA BERA OTE DIRA?**

**24 IKUSPUNTUA**  
Maddi Sarasua  
**ERAIKITZEN ARI**  
**GAREN KULTURA**

**28 KOIUNTURA**  
Manex Gurrutxaga  
**BIDELAGUN**  
**BERRIEN AROA**

**32 IKUSPUNTUA**  
Adam Radomski  
**BESTE LANGILE**  
**MUGIMENDUA**

**48 IKUSPUNTUA**  
Aitor Bizkarra  
**EDOZEIN KASUTAN,**  
**OLINPOTIK JAITS**  
**DAITEZELA POETAK**

**52 KOIUNTURA**  
Markel Samaniego  
**LUNPEN PROLETALGOA,**  
**ETIKA PROLETARIOA,**  
**MILITANTZIA KOMUNISTA**

**55 IKUSPUNTUA**  
Ametz Sarasua  
**PROSTITUZIOAZ**

**59 IKUSPUNTUA**  
Martin Goitiandia  
**KONTINUISMOA ETA**  
**JARRAIKORTASUNA**

**63 KOIUNTURA**  
Sabin Aranburu  
**BOTA DEZAGUN**  
**DEMOKRAZIA**  
**ZERRI ASKARA**

**66 IKUSPUNTUA**  
Paul Beitia  
**MEREZI DUGUN ARTEA**

**77 IKUSPUNTUA**  
Nahia Santander  
**EKLEKTIZISMO**  
**METODOLOGIKOA**  
**ETA FEMINISMO**  
**(SASI)MARXISTA:**  
**OBRRERISMOA ETA**  
**POLITIKA ERREFORMISTA**

**82 IKUSPUNTUA**  
Jon Kortazar  
**ORTODOXIA,**  
**KOHERENTZIA**  
**ETA DOGMAK**

# Hasiera besterik ez

EDITORIALA

**H**amar hilabete dira gure jarduna zuekin partekatzen hasi ginenetik. Urtebete proiektua gorpuzten hasi ginenetik, hasierarik zenbakitzerik badago. GEDAR LANGILE KAZETA ez da ezerezetik sortu, are gutxiago ezerezean garatu. Ez da bidezkoa lehen egun bat aipatzea, askoren eta orotariko lan nekaezinaren emaitza baita hau guztia. Aurretik egon izan dira bidea egin dutenak; gu geu ere bide horretan gabiltza. Euskal Herriko mugimendu sozialistak, gaztea izanagatik ere, sustrai sendoak errotu ditu proletalgoaren belaunaldi berriak; sakanak dira haren miseriak ere. Prozesu historiko baten emaitza, kasik porrotaren seme-alabak; halakorik gabe, saiakerarik, porrotik eta porrotari aurre egiteko determinaziorik gabe, ez litzateke aterik gaur pasabide zabala den honetan. Guk ere dena diogu anitzen lan horri zor.

Aurkezpenekin hasi ginen herri eta unibertsitate desberdinetan ezagutzera ematen. Jakin-mina handi eta ekarpen oparoa proiektua aurrera ateratzeko bono-laguntza kanpainan. Lehenengo albisteak behin-behineko blog batean argitaratu genituen, baita horren bidez Gazte Koordinadora Sozialistaren jaiotzaren berri eman ere.

Webgunea aurkeztu genuen ondoren, Gazte Sozialisten Topagunea ortzi-mugan genuelarik, baita azken hilabeteotan bi bertsiotan aurkeztu ere. Txiki hasi zen, eta egun hamarnaka lagun dira proiektua gogoz elikatzen dutenak, mugimendu sozialistaren garapen handiaren isla dena.

Lehenengo Editoriala, esanguratsua: jarraikortasunak eta hausturak. Horretan da mugimendu

sozialista, haustura politikoa, langile klasearen independentzia, askapen prozesuaren jarraikortasunaren ezinbesteko premisa dela frogatzen. Hamaika zenbatzen dira bide horren testigantzak diren Ikuspuntuak eta koiuntura politikoen analisiak, langile mugimenduko eta mugimendu sozialistako kide desberdinek partekatuak. Baina hamaika dira, zoritxarrez, bide horri egindako erasoen testigantzak ere. Hasieratik bertatik saiatu dira GEDAR eta mugimendu sozialistaren jarduna oztopatzen, eskura zituzten baliabideak erabilia: sare sozialetan nortasun faltsuak sortzen, mugimendu sozialistako gazteak infantilizatzen, ustezko umorearen bidez kultura antikomunista sortzen, GEDAREko kideei mezu pribatu anonimoak idazten... ez denean zuzenean biolentzia fisikoaren baliabidea erabili. Ertz asko ditu proletalgoaren independentzia politikoen aurka abian jarritako makinariak, gu ere jopuntuan jarri gaituen berdinak.

Hilabeteotan jardun komunikatiboa izan dugu erdigunean, baina ez nolana hiko. Errealitatea kontatzearekin batera, errealitatea bera eraikitzen aritu gara, informazioarekin batera errealitateari ekiten eta, garrantzitsuena dena, errealitatea egitera deituta dagoen subjektu sozialistaren eraikuntzaren lekuko izaten. Bera izan da GEDAREN bidez mintzo izan dena eta bera posizioa hartu duena, prozesu horretan bere burua eratu duena. Komunikazio politikoen bidez sozializatu da subjektu sozialista, eta hor langile kazeta horrek funtzio pribilegiatua betetzeko aukera izan du. Kontzeptu berriak jarri ditugu mahai gainean, gertakari bakoitza aztertze eta sailkatzeko bitartekoak; azken finean, gertakaria gertakari egin dugu, posizio politikoa hartuta

soilik izan daitekeen gertakaria. Langile klasearen ikuspegitik aritu gara inguratzen gaituen horri forma ematen, dena haren mesedera marrazten. Argi izan baitugu hasieratik bertatik informazioa ez dela jasotzen, eraiki baizik; eta nola idatzi, hala eraiki, eta alderantziz.

Ez gaitu harrotasunez betetzen ezta pozten langile klasearen porrotaren kontakizuna egin beharrak, kolpatzen gaituzten une horiek guztiak jasotzeak. Ez da porrotaren kronika egitea gure xedea, baizik eta inoiz porrotetik hasi ginela oroitzea. Langile klasearen kronika kontatzea dugu helburu, uneko menderotasunetik etorkizuneko askatasunera. Eta ahal den neurrian, ibilbide horretan gure alea jartzea.

Hilabete hauetan ikusi izan ditugu, baita kontatu ere, proletalgoaren independentzia prozesuaren adierazpen berriak, zaharretatik gabetuak. Biolentzia estrukturalaren kolpe baten testigantza zena, kolpeei aurre egiteko gaitasunen metaketan bilakatu da langile mugimenduarekin batera. Ikusi ditugu ezinak eta porrotak Autodefentsa Sareen gaitasunen bidez desagertzen, baita langile klasea borroka zehatzak irabazten ere. Eta pozgarria da, hasiera baino ez bada ere. Honek guztiak zentzua izango baidu proletalgoaren autoantolakuntzaz izango baitu, menderatzen duen bitartekaritzaren deuseztapenez.

Eta orain hemen gaude, orri ukigarri hauen bidez zuregana zuzentzen. Urtebete baino gutxiagoan, ezerezetik hasita, honaino heldu gara, ezerezik ez zela eta berriz egongo ez dela ziurtatzeko. Etorkizun oparoa aurreikusten dugu, oraina itxaropentsu bizi dugulako. Azken hilabeteetan GEDARen geroa

definitzen aritu gara. Lan horren lehenengo emaitza da azaroan aurkeztu genuen webgune berria, etorriko den jauzi handiago baten aurrekaria baino ez dena. Harpidetza jarri genuen martxan ondoren, eta horren bidez ARTEKAREN berri eman ere bai, mugimendu sozialistaren jarduna beste bide batzuetatik jasoko duen hilabetekaria. Harrera ezin hobea izan du, gure aurreikuspenak gaituz, erabat. Esker hitzak baino ez ditugu zuen onenarekin hau posible egin duzuen guztientzat. Esker hitzak eta gure jardunean gogo betez jarraitzeko eta GEDAR LANGILE KAZETA eskakizunen mailara egongo denaren promesa.

Ikusiko dugu elkar, bide horretan. /



**IKUSPUNTUA**

Jon Agirre

# Hausturaren garaia

**A**zken urteetan hartu ditudan hainbat erabakiren ondorioz, nire egunerokotasuna herriko zein Euskal Herriko hainbat gazterekin elkarbanatzea egokitu zait. Izan ere, gaztetxearekiko gertutasunak horretara eraman nau: urtez urte errealitate ezberdinak bizi izan ondoren, jendearen gorabehera konstanteak, batzuek lana, besteak Erasmus... Baina gaztetxeak hor jarraitu du. Esparru honetan, azken urteetan, belaunaldi aldaketa gordin bati loturik, militantzia eredu transformatzen eta finkatzen doala dirudi.

Denbora gutxi pasa dela iruditu arren, 80. hamarkadan jaiotzea tokatu zitzaigunon errealitate kulturala eta indartsu datorren subjektibitate berria, guztiz ezberdinak direla esatera ausartzen naiz. Milaka elementu mahaigaineratu ahalko banitu ere, gaurkoan, garrantzitsuenak direnen gaineko hausnarketa sorta bat burutzera mugatuko naiz.

Lehenik eta behin, ondoren emango dudan azalpen baten aurrerapen gisa, egungo gazteen formakuntza gradu eta era berean duten prekarietate maila aipatu nahiko nituzke. Egun, hainbat gradu eta master dituzten gazteak denbora laburreko lan prekarioak onartzera behartuta daude. Horrek, militantziari dagokionez, klase kontzientzia garatzeko baldintza materialekin aurkitzeko aukerak jartzearekin batera, jasotako jakintza eta esfortzurako gaitasunak militantziara bideratzeko denbora gehiago ematen die.

Kontrara, gure belaunaldia krisi arteko gorakadaren belaunaldia izan zen: milurteko berriaren hasieran erdi eta goi mailako ikasketak ziren nagusi eta, lehenago edo beranduago, nahi zuen gazteak lan “eroso” bat aurki zezakeen, soldatapeko lanaren dinamikak irenstearekin bat “akomodatuz”, kaleko jergan esan ohi dugun moduan. Gurea, jarraikortasunaren belaunaldia zela esango nuke zentzu guztietan: 80. hamarkadako punkiak, 80. hamarkadako barrikadak, istiluak, “intsumisoak” eta erresistentzia borrokak miresten genituen, askotan imitazio merkeetan eroriz... Oharkabean eta jada emanik zeuden eztabaida politikoen marko teoriko mugatuarekiko jarraikortasun itsuan, ongizate estatuak eskainitako pozoia irensten gindoazen tantaz tanta.

Gaur egun argi esan dezakegu gure zein gure aurreko belaunaldiak, 60. hamarkadan abiaturiko borroka ziklo indartsu haren porrota onartu behar izan duela. Milurteko berriaren sarreran, gure bizi baldintzen “gorakadak” zein uneko mundu mailako egoera politikoak, gure garaiko diskurtso antagonikoaren zi-

legitasuna zapuzten zuela zirudien. Bitartean, borroka utzitako egoera tamalgarria zen inguruan genuena, sekulako desgastea eta, izan ginen guztia izanda “ezer” lortu ez bazen, momentu haietako baldintzak gainditzeko ezintasuna onartzeak zekarren etsipen orokortua sentitzen hasi ginen pixkanaka.

Esan beharrik ez dago, errepresioaren gurpilak ezker abertzalearen espresio ezberdinak zapaldu zituela gehien. Borrokaren duintasun, elkartasun eta empatizazioak, familia politiko baten batasuna garatzea ekarri zuen hamarkadaz hamarkada. Familia politiko kolpatua bezain zaildua, indartsua eta duina. Ezin baita ukatu gure aurreko belaunaldiek (eta aurreko hamarkadan zein honetan gureak ere bai) bizi izandako errealitatearen gordintasuna. Sarekadak, torturak, ilegalizazioak, espetxe politika jasangai-

tza, erailketak, deklarazioak, makroprozesuak... *Acción-represión-acción* eskema zaharrek ez zuten ordea jada funtzionalitateak: Estatuaren inpunitate gradua intentsifikatzen zihuan kaleko borroken intentsitate galerarekin batera.

Horren aurrean, planteamendu politiko zaharrek bere muga jo zutenaren sentsazio orokortua zabaldu zen. “Garai berriak”, baina segi borrokan: “estrategia” aldaketa eta bide “demokratikoen” aldeko apustua, erreformismoaren errezeta zaharra medizina garaikidez mozorrotua. Garaian batzuek errefusatu baina beste batzuek ilusioz irentsitako errezeta. V. Asanbladan jada diagnostikatua zegoen “no obstante” famatuaren egikaritzea ate joka, historikoki ezker abertzalearen parte izan ziren frakzio erreformisten garaipena besterik ez zen “estrategia berria”, borrokan inork baino gehiago egin izanagatik irabazitako zilegitasuna zuten figura politikoen gidaritzapean orkestatutako mugimendua.

Aurrez azaldu dudanak hemen hartzen du zentzua: Euskal Herrian, milurteko berriarekin garatzen zihuan errealtate sozialari eta sortzen ari zen subjektibitate akomodatu eta despolitikoari ez zitzaion asko kostatu aldaketa hau asimilatzea. Izan ere, borrokaaren nekeari eta zigor sistematikoari gehitu behar zaio belaunaldi gazteena ere (historikoki sektorerik borrokalariena) kapitalaren gurpilean biraka genbiltzala: epe motzeko ongizatearen amarruan eroriak, Europa zein munduko indar “ezkertiarren” bilakaera posmodernizatzailearen diskurtsoa irentsiz, ikasteko edo “jarraitzeko” balio ziguna irentsiz erreferentziazko mugimendu iraultzailerik gabe...

Ez dago hau ukatuko duenik. Sinestezina da garai hartan nola izan zen posible tamainako bilakaera ideologikoa gure herrietan eta fenomeno horren dimentsio zein abiadura: borroka armatuaren eta ekintza zuzenaren ezinbestekotasunaren paradigmatik, konfrontaziorik gabe dena lortu ahal izango genuela asimilatzea pasa ginen urte gutxian. Gaur lasai esan dezakegu ideia berriak erabaki taktiko gisa saltzen ziren arren, estrategia berri bat marrazten zutela: errepresioak ekarritako min eta desgaste orokortuak errepikatu ezin zirenez, burgesiaren biolentzia estrukturala soilik onartzera eramaten gintuen bakearen inguruko diskurtsoak plazaratu ziren eta, Herri Mugimendua, lehen lerroko aktibo antagonista eta protagonista izatetik, estatu mailako alderdi erreformista baten gidaritzara eta burokrazia onartzera pasatu zen.

Ez nuke gaizki ulertua izaterik nahi: nire iritziz ere

ziklo politikoaren eta borroka moldeen agorpena nabaria zen eta sufrimendua jasanezina. Aldaketa beharrezkoa zen. Baina ondare politikoa biziberri-tzeko eta baldintza geopolitiko berrietara egokitzeko hauturik ez zen egin, sozialismoaren eraikuntza esperientzia historikoen indargune eta ahulezien ikerketa sistematikoarena, klase borrokaaren kontzeptualizazioarena... Finean, “borroka instituzionala, masa borroka eta borroka ideologikoa” osotasunean eta modu ordenatuan egikaritzeko baldintzak sortzearen aldeko apusturik ez zenez, ondorioak epe motzean ordaindu ziren.

Izan ere, denbora gutxian demokrazia burges baina aurrerakoi bat aldarrikatzera, estatu burges bat izateko lokatz instituzionalean murgiltzera, konfrontazio zuzenean amaitu ahal ziren mobilizazioetatik, kolore eta besarkaden dinamika baketsuak soilik onartzera, Amnistia aldarrikatuzetik, giza eskubideen defentsan sakontzera.... eta askoz gehiago onartzera pasatu ginen. Ilusioa sortu zen, baina ez zuen asko iraun.

Errealtatearen zaplastekoak gogorrak izaten dira horrelakoetan. Apustu horren mugak erakusten zizuten adibide ugari agertu ziren: Greziak irakatsi zigun estatu burges baten esku-hartze soilak ez duela traiziorako baino balio eta, Herrialde Katalanek, bide baketsu eta demokratikoen bitartez estatua bera lortzeko lehia burgesa ere ez dela onartua. Zer esanik ez azken astean ikusi duguna: batasun nazionala ezinezkoa da klase antagonismoa dagoen lekuan. Hori guztia, Europaren kapital akumulazio dinamika berrien ezintasunaren ondorioak pairatzen hasiagarenean, hau da, mundu mailako langile klasearen



proletarizazio orokortua bete betean bizi dugun garaiotan. Perspektiban jarrita, ireki ziren fronte guztiek amildegirako norabidea zutela esan dezakegu. Horren ondorioak azkarregi pairatzen hasiak gara. Baina dena ez dago galduta.

Testuinguru honetan sartu dute muturra gazte belaunaldiek. Kriariaren seme-alabek: proletarioen programa politikoaren defendatzaileek, analista, teoriko, kritiko eta, bereziki, politikoeak. Agerikoa da Europa mailako mobilizazio tinko ezberdin ia guztietan belaunaldi gazteenak direla lehen lerroa hartu dutenak. Gehienez, Katalunian kasu, helburu estrategikorik gabe, klase politiko agintariarekiko kontrakotasuna eta gorrotoa leherketa espontaneotan agerian utziz.

Euskal Herrian ordea, herri mugimenduak izan zezakeen potentzia desartikulatuta eta despolitizaturik edo antolakuntza eraginkorrerako tresnarik gabe agortuta, eztabaida estrategikoak sozializatzen eta errealitate berri bat gauzatzeko gaitasunak garatzen doazen gazte langileak dira lehen lerro hori hartu dutenak. Gazte antolatua, ez espontaneoak. Luzerako etorri dira. Herri honetako mugimendu iraultzailearen lekukoa hartuz, hartutako erabaki eta porroten inguruko ondorio finduak ateratzeko formakuntza etengabe dabilen gazteak. Leherertzeko arriskuan dagoen munduaren berregituraketa orokortuari erantzun ahal izateko lehen haziak landatu nahirik dabilenak. Langile klase formatua, askoren desitxuraketek haren gaitasun erreala ezkutatu nahi izan arren.

Adibidez, eta hein handi batean Ikasle Abertzaleak

(IA) eginiko lan etengabearen ondorioz, ikasketa altuak dituen langile ugari ditugu egungo militantzia sozialistaren adierazpenetan: erizainak, historialariak, filosofoak, medikuak, ingeniariak... Baina beste asko gara, testuinguruak piztutako interesagatik, unibertsitate bat IAk antolatutako herri eskoletan soilik zapaldu dugun militanteak. Hala, egun gazteek eskuragarri jarri dizkigute gure garaian pentsaezinak ziren eztabaidetarako elementuak eta langile mugimenduaren espresio ezberdinek hartutako erabakien inguruko irakurketak, mintegietan, hitzaldi ezberdinetan, formakuntza kanpainetan, euskarri honetan bertan.... Praktika iraultzaileak teoria iraultzaileak behar duela ikasi dugu. Baita hautu iraultzaileak dituen inplikazioak ere.

Izan ere, egungo mugimendu iraultzailea (ez erradikalitasun abstraktuaren defendatzaile gisa baizik eta gizarte ordena berri baten antolatzaile gisa ulertua) sektore guztietatik erasotua izaten ari da, mahai gainean jarri dituen elementuek dakartzaten inplikazioen ondorioz. Asimilaturiko kontzientzia burguesaren begietan behatza sartu izanak, aipatutako familia politikoko elementu erreazionarioenak paper oso larria jokatzera eramanez dituela esango nuke etenik gabeko eraso horien aurrean. Eztabaida politiko zintzoetatik urrun, infantilizazioa, mespretxua, desitxuraketa eta erridikulizazioa sistematikoa da Euskal Herriko txoko ezberdinetan. "Ezker" mugimenduaren tentakulu instituzional guztiak aktibatua izan dira lan hori burutzeko, gazte ameslarien desgastea eta porrota bilatuz: akusazio eta demonizazio pertsonaletatik hasi eta proiektu eta ekintza guztien boikot kanpainekin jarraituz, antolatze ezinbestekoak dituzten egoitzak lapurtzeraino.

Argi dago presio sozial ikaragarria jarri dela marxian mugimendu sozialistari babesa adieraztea zailtzeko. Zintzoak izan gaitetzen: oso jende gutxi da 90. hamarkada aurretik jaio eta publikoki pauso hori emateko gaitasuna azaldu duena. Belaunaldi akonplejatuak gara, dena eman dutenen hantsa lepatzean somatzen dugunak eta bustitzaiek arazoak soilik ekarriko dizkigula sinesten dugu (familian, herriko tabernan, kuadrillan...). Mehatxuaren biktima izan eta jarraikortasunaren argudioan erori ohi gara, erosotasun horretan ildo sozialistako espresio ezberdinen aurkako lana elikatu besterik egiten ez dugun bitartean. Blokeoa nabarmena da.

Argi utzi nahi dut, guk ezagutu dugula gure inguruko inplikazioa, eta egin den borroka guztia- ren jakitun garela. Memoriaren eramaileak gara: beti

**“Baina mundu berri baten ezinbestekotasunean eta aukeran sinesten jarraitzen dugunoi, orain besaulkitik hitz egiten diguten erreferentzia historiko horietatik eta euren jokamoldeetatik urruntzea dagokigu. Egun gazteen etengabeko lana babestea eta elikatzen laguntzea besterik ez daukagu. Kritika politikoa ongi etorria den espazioetan sakontzea. Egoismo eta harropuzkeriak baztertu eta jakintza eta ekintza kolektiboaren zuzentarauak barneratu eta garatzen laguntzea. Hori guztia etorkizunean borroka molde eraginkorrak garatu ahal izateko aurrebaldintza delako. Esna gaitezen lozorrotik.”**

egongo gara borrokalari izan diren militanteei eskertuak. Beti esango dut, guztiz ulergarria dela, urteetan dena eman izanagatik, jasan behar izandako sufrimendu guztiagatik, borroka maila pertsonalean albo batera utzi nahi izatea. Ohorerik handiena, beraz, mundua aldatzea posible zela sinetsita borrokatu duten horientzat.

Baina mundu berri baten ezinbestekotasunean eta aukeran sinesten jarraitzen dugunoi, orain besaulkitik hitz egiten diguten erreferentzia historiko horietatik eta euren jokamoldeetatik urruntzea dagokigu. Egun gazteen etengabeko lana babestea eta elikatzen laguntzea besterik ez daukagu. Kritika politikoa ongi etorria den espazioetan sakontzea. Egoismo eta harropuzkeriak baztertu eta jakintza eta ekintza kolektiboaren zuzentarauak barneratu eta garatzen laguntzea. Hori guztia etorkizunean borroka molde eraginkorrak garatu ahal izateko aurrebaldintza delako. Esna gaitezen lozorrotik.

Hau hasi besterik ez da egin. Belaunaldi berrietan subjektibitate berri bat garatu da jada: presio forma gogorrenei frente egiten ikasi dute gazte-gaztetatik eta gure belaunaldientzat erreferentzia ziren gertuko figura politikoek eta euren jarraitzaileek zilegitasun

guztia galdu dute azken urteetako gertaera ezberdinen ondorioz. Gazte horietako batek behin esan zidan moduan; “Estatuak jokaldi biribila egin zuen. Mugimendu iraultzaile bat demokratizatu eta sortu ahal ziren mugimendu iraultzaileak itzaltzeko agente bilakatu. Horrela ez dago Poliziaren beharrik.” Asko urrundu dira gazteak guretzat “eredugarriak” ziren horiengandik eta, pixkanaka, baita gu ere.

Hori guztia mahai gainean jarrita, gure eta aurreko belaunaldietan geratzen diren argi izpiak, nekatu baina ilusionatuak, jarraikortasunaren presioetatik askatzeko garaia iritsi dela aldarrikatu nahi dut. Ez dagokigu zain egotea. Hausturaren garaia iritsi da. Garai zailak dira, adorea behar da, baina Negu Gorriak ez gaitzala itxoiten harrapatu. Konpromiso militanteak eraikitzen duen subjektibitateaz eta horrek sortzen duen pertenezia sentimenduaren ordezkazintasunaz mintzo ziren gure garaiko hiru militante Gazte Sozialiston Topagunean. Berreraiki dezagun bada eta egin dezagun politika: antolatua gaitezen eta borroka dezagun. /

# Klase identitateak eta prozesu sozialista: gauza bera ote dira?

**TESTU LABUR HONETAN, GAUR EGUN MENDEBALDEKO POLITIKAGINTZAN KLASE SOZIALEN DISKURTSOA BERRESKURATU DUTEN HAINBAT EZKERREKO MUGIMENDU EZAUGARRITZEN SAIATUKO NAIZ. HORREKIN BATERA, 'KLASE' KONTZEPTUAREN ERABILERA IDENTITARISTA ETA PROLETARIOEN ANTOLAKUNTZA ESTRATEGIKOA ZEIN ELEMENTUK BEREIZTEN DUTEN AZALTZEN AHALEGINDUKO NAIZ. ARTIKULU HONETAN EZ DUT JORRATUKO BLOKE GEOPOLITIKOEN ETA HARREMAN INTERNAZIONALEN GAIA, MUGIMENDU HORIEK ULERTZEKO PUNTU GARRANTZITSUENA DEN ARREN. GAI HONEN INGURUAN HURRENGO IRUZKIN BATZUETAN ARITUKO NAIZ.**

**B**adirudi ezkerreko politikagintza internazionalaren parte adigarri batek klase sozialen interpelazio ideologikoa berpizteko apustua egin duela. Era berean, badirudi epe luze-ko atzeraldi ekonomiko batek eta klase ertainen zein estatu sozialaren deskonposizio progresibo batek berriro bizitza emango diola diskurtsoa atzemango duen subjektuari; Ameriketako Estatu Batuetan Bernie Sanders, Britainia Handian Jeremy Corbyn, Alemanian Die Linkeren gorakada edota espainiar estatuan Pablo Iglesias lirateke berpizkunde hau abiatu dutenen adibide batzuk. Euren arteko desberdintasunetan sartu gabe, ezaugarri hauek behintzat partekatzen dituzte: kanpaina politiko eta programak klase sozialen eraikuntza diskurtsiboaren bitartez osatzen ari dira, guztiak garrantzia hartu dute euren estatuetan, eta gobernuetan parte hartzeko borondatea erakutsi dute edo eskuinari alternatiba modura aurkezten dira.

Diskurtsoaren ezaugarriei dagokionez, klase ertainen eta gizarteko klase baxuenen arteko aliantzari zuzentzen dira etengabe, izen eta abizen horiekin. Horretarako, estatu aparatua oinarriko eraldaketarako erreminta gisa pribilegiatzen dute, eta mugimendu sozial berrien zein sindikatu tradizionalen soziologia darabilte palanka elektoral

modura. Finean, “obrerismo” tradizionala (oro har langile identitate fordista, kate-lan eta industria langileen lehenespena oinarri duena) mugimendu sozial “berrien” emergentziarekin konbinatzen dute. Beraz, esan genezake klase sozialen diskurtsoan gorpuztu nahi dituztela aldarri ezberdinak eta “obrerismoari” lehenetsuna aitortzen diotela, eta hala egungo beste zenbait esperientzia populistengandik bereizten dute beren burua.

Argi dago ezkerreko mugimendu horien sostengu elektoral nagusia klase ertainetan dagoela; iraganean gizarte zibilean parte hartze aktibo bat izan duten belaunaldiei zuzentzen zaizkie, krisialdi egoeraren ondorioz euren estatus soziala arriskuan aurkitzen dutenei. Horiekin batera, unibertsitateetan zein goi-mailako ikasketetan formatutako gazte belaunaldien zati handi bati ere bai. Nolakotasun zehatzak herrialdearen arabera dira: Corbyn tradizio luzea duen alderdi bateko kidea da, Erresuma Batuko sistema politikoan ongi errotuta dagoena, Harold J. Laskik estatu barneko estatu bezala ezaugarritzen zuen Alderdi Laboristakoa, hain zuzen. Beste zenbait mugimenduk, berriz, Eurokomunismoarekin antzekotasun nabarmenak dituzte, bostere politikoak eta trantsizio soziala irudikatzerako orduan. Ikuspuntu ho-

nen barnean, sozialismoa irudikatzekeo ideologia moralistak gailentzen dira, langile klase tradizionalaren iruditeria erromantiko batetik abiatu, eta euren burua ustelkeriaren aurkako zaindari aldarrikatzerara arte. Klase ertainaren apologiak, ordea, klase borroka proletarioaren eguneroko kontraesanak ezkutatzen ditu, eta klase identitate oso orokor eta zehaztu gabeak sortzen ditu: “For the many, not the few”, “Pueblo contra oligarquía”, “%1 vs %99” etab.

Programa ekonomikoari dagokionez, mugimendu horiek ekoizpenaren esparruan langileen parte hartze kuotak biderkatzea eta jabetzaren banaketa “sozial” bat dute helburu. Jabego txikiaren paradisu bat irudikatzen dute: kontrol politiko –estatala– eskuratu eta lege ziurtasunak dituen sistema publiko iraunkor bat bermatuta. Zentzu horretan, eredu “Nordikoa” hartzen da diskurtsoan txertatu beharreko eredu gisara: ezaugarri liberalak dituen sozialismoa, paktu sozialaren berregitea – New Deal– eta kontsentsu bidezko klase aliantza. Rosa Luxemburgek aspaldi zioen jabego txikiz osaturiko herrialde bat zela sozialismoak eduki zezakeen etsai zitalenetakoa, baina badirudi kasu gehiago egiten diotela Lord Keynesi ekonomialari poloniarrari baino. Etsai politikoari dagokionez, posizio geopolitikoaren arabera aldakortasun

**“Langile antolakuntzaren eta estatua-  
ren arteko harremanak dialektikoa eta  
eratzaillea izan behar du; eratzaillea, es-  
tatuaren eraldaketa gizarteko aldaketa  
prozesuen menpekoea baita; dialektikoa,  
antolakuntza proletarioak estatu burge-  
sa gainditzea baitu helburu eta instituzio  
berriak estatu forma zaharra ordezkatzu  
garatzen baitira.”**

nabarmenak dituzte ezkerreko mugimendu horiek, baina “aurkari” komun batzuk partekatzen dituzte: finantzak, bankuak, multinazionalak eta inbertsio enpresa handiak. Dirudienez, adostasun orokor bat existituko omen da gizartean eremu horiek “kontrolpean” edukiz gero, beste guztiok –%99– ez baitugu arazo politikorik gure artean. Honekin ez dut esan nahi aurrez aipatutako botere ekonomikoaren esparruak planifikatu eta politikoki erregulatu behar ez direnik, baina kapitalaren dinamikaren kontraesanak ez dira bertan agortzen. Gizarte guztia zeharkatzen dute.

Teoriari eta intelektualei dagokienez, oro har, kapitalismoaren gaineko azalpen eskematiko bat gailentzen da. Gorputz sozial burgesa zapalkuntza ezberdinen gaineko baturaren ikuspuntutik azaltzen da, eta bide ematen dio problematika sozial ezberdinen –hala nola, genero problematika, globalizazioa, ekologismoa, eta gazte problematika– azalpen metafisiko bati. Kapitalaren funtzionamendua gizarte osoa zeharkatzen duen harreman dialektiko eta abstrakzio erreal gisara ulertu beharrean, dinamika ezberdinen puzzlea osatzen da, herentzia estrukturalistari jarraituz. Korrante horretako pentsalariak sozialismoaren gailentasun ekonomiko, politiko eta soziala aldarrikatuz, lan oso in-

teresgarriak argitaratzen ari badira ere, orokorrean zailtasunak dituzte botere burgesaren teoria integratzaile eta osatu bat eskaintzerako orduan. Zentzu horretan, eta enegarrenez, marxismoaren erabilera ez proletario batez mintzatu gaitzke.

Mugimendu horren adierazpen kulturalak klase ertaineko soziologiara atxikitzen dira, izan telebistako “tertulia politikoetan” parte hartuz edota adierazpen literario zein musikaletan. Har ezazue Los Chikos del Maíz korrante honen estereotipo modura eta argitaratu berri duen *Anatomía de un asesinato* abestia adibide modura: proletarioen bizitza kulturaletatik urrun dauden kontsignak eta soilik gizarte politiko “ofizialean” integratuta daudenentzako hiztegia, kontakizunak eta protesta adierazpenak dira. Daniel Bernabé ere kazetaritza ondare horren eredu garbia da; bere ikerketek interes nabarmena izanagatik, nekez gainditu dezakete eskematismo “obrerista”.

Aurrez aipaturiko guztiarekin kontrastean, prozesu sozialistak helburu du gizartea bere osotasunean eraldatzeko estrategia bat praxi bilakatzea. Zentzu horretan, jendarte berri baten funtamentu lehena subjektu proletarioa aktibo militante bilakatzea da eta, horretarako, beharrezkoa da gizarte ka-

pitalistaren kontraesan oro teoriarik eta praktikan zeharkatzea. Guzti horretarako baldintza minimoa proletarioen independentzia politikoa da: interes zehatzen araberako programa politikoa gorpuztea. Eduki berriak forma zaharren deuseztapena eta berriaren konfigurazioa dakar. Horregatik doa proletarioen antolakuntza politikoa estatu aparatua burgesetik harago, klase sozial zapalduak goituzen soziologiko izateatik aktibo politiko izatera pasatzen direlako. GKSk berriki azaldu zuen modura, langile antolakuntza permanentea ageri zaigu oinarrizko askatasun politikoen berme bakar modura; historia garaikideak horrela frogatu du orain arte, politika liberalarekiko dependentzia ezak ezaugarritzen duen heinean.

Horrenbestez, langile antolakuntzaren eta estatua-  
ren arteko harremanak dialektikoa eta eratzaillea izan behar du; eratzaillea, estatuaren eraldaketa gizarteko aldaketa prozesuen menpekoea baita; dialektikoa, antolakuntza proletarioak estatu burgesa gainditzea baitu helburu eta instituzio berriak estatu forma zaharra ordezkatzu garatzen baitira. Beraz, politika “zaharrena” kategoriari berreskuratzea ezinbestekoa zaigu –alderdia eta estrategia, kasu– langile antolakuntza hauteskundeak eta bere estetika baino askoz ere gehiago delako. Horregatik, Prozesu Sozialistaren zeregina ez da langileria-emozioak hauteskundeetarako aktibatzea, bere bizitza soziala eraldatzeko erremintak eskaintzea baizik. /

ELKARRIZKETA

Iruñerriko Langile Autodefentsa Sarea

“Autodefentsa  
proletariorako  
bide-orria  
marrazten”



**2019ak Autodefentsa Sareen** ernaltze oparoa ekarri du. Ikastetxe askotan ikasle langileen aldarrikapenak borrokatzeko Ikasle Autodefentsa Sareak sortu dituzte. Hiri, herri eta eskualde desberdinetan, berriz, Langile Autodefentsa Sareen jaiotza bizi izan dugu. Azken horien artean ditugu Bergarako Lubaki Elkartasun Sarea, Bilboko Langile Autodefentsa Sarea, Durangaldeko Beharginon Autodefentsa Sarea eta Goierriko Bategin Autodefentsa Laboralerako Sarea, besteak beste. Izen desberdinak baina helburu berdina: proletalgoaren bizi baldintzen hobekuntza, proletalgoaren antolakuntza independentearen bitartez, haren gaineko kanpo bitartekaritza politikoaren eta erresistentzia borroken paradigmen agorpena bizi dugun garaiotan. Ekinbide horretan haiekin dira abian jarritako borroka zehatzak; denak proletalgoa garaipenetan hezteko beharrak ardaztuta. Helburu abstraktuetatik urrun, Autodefentsa Sareek borroka gradualak planteatu dituzte, emaitza positibo ugarirekin, proletalgoaren antolakuntza tresna eraginkorra dela erakutsiz.

Euskal Herrian Iruñerriko Langile Autodefentsa Sarea (RAL-LAS) proletalgoaren antolakuntza sindikal autonomoan aitzindaria dela esan dezakegu. Haiekin egon gara, orain arteko ibilbideaz eta Autodefentsa Sarearen kontzeptuaz hausnartzeko.



**Azken urtean autodefentsa sare izena hartu duten langileen antolakuntza formen sorrera bizi izan dugu. Euskal Herrian RAL-LAS sare horien artean aitzindaria dela esan dezakegu. Zeintzuk izan dira modu horretan antolatzaera eraman zaituzteten faktoreak? Ba al zenuten beste autodefentsa sare batzuen esperientziaren berri?**

Lan munduan bizi dugun egoera berregokitzen ari da egungo testuinguruan. Horren ondorioz, ezegonkortasuna eta behin-behinekotasuna hazi egin dira: egun batean enpresa jakin batean lan egiten dugu eta, hortik sei hilabetera, beste lan bat bilatzeko beharrean gaude edo lekualdatuak gara; gero eta zailtasun nabarmenagoak ditugu lan kontratu mugagabeak topatzeko eta aurkitzekotan ere, ez dago aurrera jarraitzeko berme nahikorik. Horren eraginez, zatiketa eta lehiakortasuna hazi egin dira. Horrelako egoera batean bereziki zaila suertatzen da modu eraginkorrean sindikatzea, horrek denbora jakin bat eta langilen kopuru handi bat exijitzen baititu.

Hori gutxi balitz, belaunaldi gazteen borrokarako tradizioa galduz doa, soldatapeko lanaren esparruari dago-kionean behintzat. Horregatik diogu gazteok lan indarraren debaluzioan funtzio garrantzitsua betetzen dugula, aldaketa horien aurrean gero eta erresistentzia gutxiagorekin erantzuten baitugu. Gazteez gain, industria sektoreko erreserbako armada aipatu beharko genuke, krisi garaietan biderkatzen denez, jada lanean daudenei presio gehigarria ezartzen diona (“beti egongo da zuk egin nahi ez duzun lan hori hartze-

ko prest dagoen beste norbait”). Horrek guztiak, langile klase guztiaren egoeraren endekapena eragiten du.

Jada adierazi bezala, gure ibilbidearekin hasi ginen garaietan, gazte mugimenduak ere (orokorrean beste hainbat mugimendu sozialek egin bezala) dinamika horiek erreproduzitzen zituen. Milaka borroka fronte irekitzen ziren baina horietako bat ere ez zegokion lan esparruari. Kasurik hoberenean, Maiatzaren Iaren inguruko kanpaina puntualak egiten ziren, sekula *agit-propa* gainditzen ez zutenak. Esan genezake, beraz, antikapitalismoa klase politika bezala baino, kontsigna bezala erabiltzen ze-

la; etsai sasi abstraktuak identifikatuz (multinazional handiak) eta subjektuari (etsai jakin horren aurkariari) garrantzi gutxi emanez. Horren ondorioz, egunerokotasuneko hainbat gatazka bazter-tuta geratzea ohikoa zen. Giro hartan, hasiera batean, gu geu ere hitzaldien eta kanpainen dinamika aktibistetan erori ginen. Baina laster ohartu ginen langile klasearen sektore kolpatueneren zerbitzura egon zitekeen tresna bat sortzearen beharraz. Izan ere, gutariko asko soldatapeko merkatuan ari ginen sartzen eta egiazko kezkek ginetuen.

Gurea ez da ez lehen Autodefentsa Sarea. Hasi ginenerako baziren Espainiako Estatuan beste hainbat sare; Gracia-ko Sindicat de Barri, Pobra Sec-ekoa (orain etxebizitzaren problematikan zentratzen dena), Carabanchel-eko ADELA, Hortalezako Sindicato de Barrio etab. Esperientzia horiek guztiak oso baliagarriak izan ziren gure sarearen forma erabakitzerako orduan. Sare horien gehiengoak etxebizitzaren problematikari





aurre egin nahi diotela egia izan arren, guk auzi soziolaboralean zentratzea erabaki genuen. Gauzak horrela, gure burua Iruñeko hainbat eragile sozialen aurrean aurkeztu eta 2016ko azaroan hasi genuen gure ibilbidea.

**Ikusi dugu azken hilabeteetan garaipen desberdinak jakinarazi dituzuela. Zein da horietatik aterra duzuen irakaspena? Zein borroka motaz arduratzen da LAS?**

Gure jardunean, gatazka batetik bestera errepikatzen ziren zenbait gai behatu ahal izan ditugu, baina baita guztiz gai berriak ere. Orokorrean, atomiza-

zio egoera baten aurrean aurkitzen ginen eta langileak modu indibidualean (euren artean antolatu gabe) etorri ohi ziren sarera. Salbuespenak ere badira, noski: gatazka batzuk hasieratik izan dira kolektiboak.

Normalean, jasotzen ditugun kasuak lan egiteko oso zailak diren enpresetan ematen dira. Hala ere, guk beti azpimarratu dugu borroka bat aurrera eramateko lankideen arteko babesa behar-beharrezkoa dela. Erantzunak kolektiboak izan behar du, baita horretarako lantegitik kanpoko babesa antolatu behar bada ere. Baina luzera begira ez dago lasterbiderik; gure bizi baldintzak ba-

besteko antolakuntza forma garatzea ez da prozesu gozagarria eta ezingo da bide errazetik konpondu. Ezin dugu lan-tokian antolatzeaz ahaztu.

Horren harira, Baztan eta Sotiko Aitona tabernen gatazkak izan dira langile antolatu gehien batu dituztenak. Gainera, euren artean antolatu ostean jo zuten sarera; bere gaitasunak langile auto-antolatuen zerbitzura jartzen dituen agertoki mota hau da sarearentzat ideala dena. Hala, etorkizunera begira, mota horretako auto-antolakuntza saiakerak bultzatzen jarraitu behar dugu deritzogu.

Gatazkak izan ditugun enpresa gehienak tamaina txikikoak izanik, nagusiak, bertan lanean jarraitzen zuten langileekiko etsaitasun-giro bat sorraziz erantzun izan dute (Koi Sushiren gatazkaren kasuan bezala). Presio hori jasatea oso zaila da, langileak errudun sentiarazten edota xantaia emozionala erabiltzen ahalegintzen baitira nagusiak; kasu batzuetan, gatazka bati konponbidea emateko erabili dituzten metodoak ezegokiak direla ere leporatzen diete langileei. Horrek, finean, zera esan nahi du: aldarrikapenak posizio ahul batetik ez ezik, modu antolatuan egin dituztela. Horregatik, gure ustez, babesa prozesuaren parte oso garrantzitsua da. Langileen aurkako salaketarik egonez gero, aldarrikapenak salaketa horiek kentzera ere bideratzen dira.

Gainera, gu antolatzen bagara, nagusiak ere antolatu egiten dira. Horiek ere, kontra-presioa egiteko erabili dezaketen oinarri sozial minimo bat dute (bezeroen parte bat, lagunak etab.), kasuan kasu ezberdin joka dezakeena: mehatxuak eginez, difamatuz zein bestelako mekanismoak erabiliz edo enpresaburuaren bertsioari pisua emanez eta gatazkaren eskaerei zilegitasuna kenduz, langileen egoera emozionala kolokan jarriz... Jarrera horiek guztiak, enpresaburuak gurekin edozer egin dezakeen ustearen edo inpunitate sentsazioaren ondorio dira. Gure presioa areagotzeare-



kin batera, sentsazio hori ere higitzen joan ohi da.

Honek irakatsi digu enpresari txiki ona eta enpresari handi txarra aurkaritzan jartzen dituen mitoari maskara kendu behar zaiola, are gehiago “auzo” etiketaren atzean ezkutatzaren denean... Langileon perspektibatik, enpresaburuek beti defendatuko dituzte beren interesak. Enpresaburu txikiari dagokionean, lehiakortasunak ito egiten du eta bere posizioa mantendu ahal izateko neurriak langileen lepotik hartu behar ditu: diru gutxiagoren truke lan gehiago egitea neurri ohikoena bada ere, erabiltzen diren praktiken abanikoa oso zabal da. Horregatik, maila kulturalen behintzat, kontraesan horiek mahaigaineratzen laguntzen dugula esan dezakegu eta garaipen txikiak lortzetik bada ere, gure arazoei aurre egiteko kolektiboan antolatzea eraginkorra dela erakutsi dugu. Hala, zenbaitetan nagusiek aldarrikapenak onartu izan dituzte gatazka ireki batera heldu aurretik, Ronqueo tabernaren kasuan gertatu bezala.

Legalitateari dagokionean, inongo bermerik ez digula ematen ikasi dugu: gainean ez bagaude, ez da betetzen. Lan hitzarmenak, adibidez, ezerezean gelditu ohi dira. Horregatik, langile klasearen indar antolatuarekin defendatu behar ditugu gure interesak, autodefentsa kolektiboa, elkar babesa eta klase elkartasuna oinarri dituzten praktiken bitartez.

Modu berean, aholkularitza zerbitzuak lege-hauste horien konplize zuzenak dira eta egoera konkretuen arduradun nagusi bilakatzen dira, enpresaburuek euren gain uzten baitituzte “paper konutuak”. Gatazka aurrera doan neurrian, arreta desbideratzen ahalegintzen dira, sarearen eta langile antolatuen arteko lotura hausten saiatuz. Motzean esanda, ez gaituzte bitartekari gisa aitortzen. Hala ere, presioaren bitartez, egoeraren kontrola hartzeko eta negoziaketetan indar posizio batetik parte hartzeko gai izan gara, beti ere, aldarrikapenak osotasunean bete daitezzen bermatzea

lortu dugularik (orain arte modu eraginkorrean). Agerikoa denez, ez dugu ezer langileen bizkarrera negoziatzen. Erabakiak euren esku daude.

### **Zein da zuen ustez garaipen horien gakoa? Nola antolatzen zarete eraginkorrek izateko?**

Gatazka horiei aurre egiteko gakoa tentsio gorakorreko estrategia da. Horrek ahalegin jakin bat exijitzen du: gatazka bat abiatu aurretik jokoan sar daitezkeen faktoreak irakurtzen jakitea ezinbestekoa da (hots, gatazkaren irabazgarritasuna neurtzea). Esate baterako: zenbat iraun dezakeen, zein gaitasun dugun iraupen horretan presioa egiteko, gatazka denboran iraunarazi dezakegun, zein erresistentzia jartzen duten nagusiek edota denboran zehar presioaren intentsitatea igo dezakegun. Puntu horien arteko oreka gakoa da abiapuntu bat finkatzeko eta gatazka nahi dugun tokira bideratzeko: nagusiek eskaerak onartzea euren praktikekin jarraitzea baino mesedegarriagoa zaielako.

Horrekin jarraituz, ezuste faktorea ere garrantzitsua da; enpresaburuek ondoren etor daitekeena ezin aurreikusitakoa. Horretarako sormena erabili behar dugu eta protesta forma ohikoetatik aldentu ere bai. Izan ere, langileen parte hartzea berebizikoa da prozesu honetan, eurek gudu-zelaia inork baino hobeto ezagutzen baitute: nagusien puntu ahulak, enpresaren funtzionamendua, bezeroak etab. Gure helburua ez da langileak ordezkatzea, beraiek dira prozesu guztian zehar modu aktiboan parte hartu eta guztiz inplikatzaren direnak.

Langileekin dugun harremanari dagokionean, konfiantza espazioak eratzearen beharraz ohartu gara, dena ez baita pikete, kartel eta datozen urratsen plangintzetara mugatzen. Langileak ahultasun posizio batean aurkitu ohi dira, izan arlo psikologikoan (adibidez, nagusien presioa dela eta) edota euren baldintza materialek sortutako ezinegona-

gatik (ordaindu beharreko alokairuak, zaindu beharreko umeak, edota aurrera jarraitzeko beharrezkoa zaien diru iturriaren gabeziak). Bide horretan, oso garrantzitsua bilakatzen da gatazkak iraun bitartean babesa eskaintzea, konfrontazioak zalantzak eta ziurgabetasunak sorrarazten baititu. Berriz diogu gatazkei modu kolektiboan aurre egin behar zaiela eta, noizean behin, atsedean hartzeko edo gure galga partekatzeko beharra dugun pertsonak garelako ulertu behar dugula. Azken finean, oso itxaropentsua da lehendik ezagutzen ez zenituen pertsonak zu babesteko inplikaturik daudela eta prozesuan zehar aldatzen doazela ikustea.

Azkenik, presioa eragiterako orduan lagungarria da espazio geografiko jakin bat (hau da, auzoa) erreferentzia gisa hartzea. Modu horretan, beste pertsonen, auzokideen, lagunen zein kolektiboen inplikazioa lortzen dugu. Enpresaburuen aurka ekiteko euskarri ezinbestekoak dira.

### **Aipatutakoaren bidetik, antolakuntza forma desberdinek aldarrikatu ohi dute haien funtzio sindikala. Alde batetik sindikatu tradizionalak daude, baina baita protestarako antolatzen diren eragile sindikalak ere, sindikatu tradizionalak aldarrikatzen**







**duen sindikalismo “sozialaren” adierazpen izan daitezkeenak. Zein da LASen eta horien guztien arteko desberdintasuna? Sindikalismo “sozial” hori benetan berria da? Sindikalismo gisa ezaugarritu daiteke?**

Langileen Autodefentsarako Sareak, egiaz, ez dira formula berriak; langile autodefentsaren oinarrizko molde historikoen bertsio berrituak baino ez dira. Langile klasea eta bere borroka moldeak berregituratzen ari diren garaiotan azaleratu dira eta elkar laguntza eta klase elkartasuna berreskuratzen dituzte, gure baldintza materialak defendatzeko tresna modura. Sektorializaziotik ihes egin asmoz, klase batasuna oinarri duten erreminta integralak eraikitzeko dagoen borondatea ere ez da berria. Izan ere, estatuak lan indarraren erreprodukzio funtzioetako batzuk bere gain hartu aurretik, langile mugimenduak mota guztietako jarduerak gauzaten zituen sindikatu barnetik, lan arlotik

harago (eskolak, ateneoak, gaixotasun aseguruak, kontsumo kooperatibak, erresistentzia kutzak, etxebizitzaren baitako borroka etab.) zihoazena; horiek ere gure aurrekariak dira.

Esan genezake, hasi ginenean, sektore desberdin batengana zuzentzen gine-la, sarea jaio zenean behintzat. Oro har, Sarera datozen lagunek lan baldintza oso prekarioak dituzte (nahiz eta adin, genero eta jatorri guztietakoak diren) eta, era berean, ez dute beren egoerari erantzuteko tresnarik eskura. Sindikatuen jardunbide tradizionala ez da sektore horietara iristen, edo ez dute ordezkartzarik sektore horietan. Beraz, beste bide batzuetara jotzen dute. Aldi berean, bizi duten egoerak zaildu egiten die bidea, ezintasun handiagoak dituztelako antolatzen hasteko, aurretik esandako arrazoi guztiengatik. Horrexegatik saiatu behar dugu atomizazioa eta zatiketa indargabetzen.

Esan dugun moduan, sarearengana

jotzen duen langileria sektore heterogeneoz osatuta dago, denoi burura datorrigun gazte prekarioaren profil tipikoaz harago. Horren erakusgarri da guk erantzundako kasuek askotariko protagonistak izan dituztela: migratzaileak, legearekin zailtasunak dituztenak edo legeak zuzenean baztertuak, beren lan egoeren normalizazio kulturari desafio egiten dioten gazteak edota asanbladetara seme-alabekin etorri diren emakumeak, lan karga handiagoa dutenak lanaren banaketa sexuala medio, eta ondorioz beren gain betebeharrerproduktibo gehiago dituztenak. Jarraian genezake profil desberdinei buruz hizketan, baina helarazi nahi duguna da desberdintasun eta zatiketa horien guztien aurrean (adibidez langile finkoen eta aldi baterakoaren arteko zatiketa), elkarrekin antolatzen jarraitu behar dugula interes komunak defendatzeko.

Hasiera batean eta modu intuitiboan sindikatu tradizionaletatik ezberdintzen gintuena, beraiek iristen ez ziren



lekuetan zegoen hutsunea betetzea zela esaten bagenuen ere, hori gainditutzat eman dezakegu jada. Sindikatu handiek, CGT frantziarrak kasu, federazio sektorialekin paraleloan euren lurralde egiturak antolatu dituzte dagoeneko, mugikortasun handiena eta lurraldearekin lotura gutxien duten langile prekarioak

barne-biltzeko. Gertuagoko adibidea da esaterako LABena, Iruñerriko Piztu Alarmaren sorrerarekin, edo berriki Nafarroako CCOOren gazte sekzioak kaleko ekintza soziala berriro abiatu izana.

Hori dela medio, ezberdintasunak ezin ditugu lan esparruan aurkitu, ezpada

motibazio politikoetan eta planteamenduetan beraietan, bai formari zein edukari dagokienean. Azken batean, sindikalismo tradizionala ere ohartzen da zenbait eremutan duen eragin galeraz. Horretarako, kasuan kasu erreminta berriak sortzen ditu profil horien beharrei erantzunez bere estrategiara bil daitezten, hau da, Kapitalaren eta Lanaren arteko bitartekari gisa bere burua indartu asmoz. Hori guztiz logikoa da bere partetik. Profesionalizaziorako, legalismorako zein delegatzerako joera, langileak ordezkatzeko joerarekin batera, aurreko eredu sindikaletik bertatik deduzitu daiteke. Laburbilduz, iniziativa horiek ordezkartitza eta kapital politikoa lortzeko helburua dutela ulertzen dugu, proletalgo berri horren instrumentalizazioa baliatuz; prezeski, antolakuntza eta politika terminoetan bere autonomia eta protagonismoa ukatuz. Nolabait esatearren, sindikatu tradizionalak eta guk antzerako eremuetan dihardugu; baina itxura batean berdinak diruditen arren, benetan antzik ez duten metodoekin egiten dugu borroka eta kontrakotasunean aurkitzen diren helburuek gidatuta.

Horren aurrean, gu sektore proletarizatu horien autoantolakuntzarako erreminta baliagarria izaten saiatzen gara, borrokan bertan sortzen diren erlazioak lehenetsiz eta, modu horretan, oso garrantzitsuak diren aldarri zehatzetatik harago joanez. Horregatik, alde batetik kaltetuen protagonismoan eta gatazkak lantokiaren eremu itxitik harago sozializatzean tematzen gara, sarearen indarra modu progresiboan hedatuz.

Funtzionamenduaren arlora itzuliz: ez dugu afiliazio bidezko egitura izan nahi. Ez dugu dena eginda ematen dutenak eta norberaren arazoak konpontzeko ordezkapenez baliatzen direnak izan nahi. Hain zuzen, ez dugu borrokaren abiada baretu nahi eta horretarako tresnak eskaintzen dizkiogu langile klaseari, bere interesak zuzenean berak defendatu. Legalismoan ere ez dugu erori nahi, gure bizi baldintzetarako ge-

***“Horrenbestez, bagenuen intuizio bat gogoan: momenturen batean balizko mugimendu iraultzaile bati buruz hitz egitekotan, aldez aurretik nolabaiteko oinarri batek egon beharko lukeela, gutxienez era independentean antolatutako langile mugimendu bat, hainbat arlotan defentsaren aldeko berehalako borrokekin lotua, eta proletalgoaren eguneroko bizitzan sustraitua.”***

ro eta mugatuagoa den bermea baita; izan ere, indarra desjabetzen digu eta epe ertainera babesgabe uzten gaitu.

Sektore horientzat beren lantokian antolatzeko dituzten zailtasunak ahultasun bat dira. Ikusten dugunez, lantokietan antolatzea da gakoa. Baina zailtasun horiek, era berean, beste modu batzuetan antolatzera behartu gaituzte: gure kasuan, auzoa antolakuntza-eremu bihurtzera. Auzoa sozializazio-esparru naturala da gure testuinguruan eta gainera lan kontuez aparteko beste gai batzuk artikulatzea ahalbidetzen digu: gatazkak sozializatzean, gatazken inguruko ikuspegi estruktural bat erakusteko balio du.

Horrek, halaber, lagundu egiten digu hain hedatuta dagoen klasearen ikuspegi murriztailea baztertzen: soldatapeko langileak biltzen dituen subjektua gara eta lan esparruan dauden baldintza materialak defendatzea dagokigu, ados. Baina ez ditugu horiek bakarrik biltzen, gure bizitzako beste esfera askotako beharrek ere batzen gaituztelako. Esaterako, soldata igoera bat baliogabea da alokairua igotzen badigute. Edo dirua kobratzeari uzten badiogu, arazoak izango ditugu alokairua, janaria, ura edo elektrizitatea ordaintzeko. Are gehiago, paperik ez badugu, arazoak izango ditugu lan egiteko edo patronalaren

jazarpena salatzen. Beste adibide bat ematearren, senar kontrolatzaile bat izateak nekez uzten du gainerako arazoei erantzuteko antolatzen, edo berdin seme-alabak ardurapean izateak.

Ikuspegi horiek guztiek erakusten digute langile klasearen baldintza materialak kontuan hartu beharreko aldagai ugariaren mende daudela. Norabide horretan ari gara arraunean, elkartasun harremanak eta elkar laguntza sustatuz hainbat alorretan. Aukera hau aprobetxatu nahi dugu Gasteizen jai berri den Etxebizitza Sindikatua agurtzeko, gure tankerako filosofia baitute.

**Sarri entzun izan dugu sindikalismoak “fordismo” gisa izendatu den kapitalismoaren fase historikoarekin batera agortu zuela bere funtzio historikoa langile klasearen garapenean. Baita, horren ondorio gisa, proletalgoaren borroka sindikala antolatzea ez dela komunisten zeregina ere, antolakunde politiko iraultzailea sortzea baizik. Horrela dela us-te duzue? Hau da, proletalgoaren antolakunde sindikala eta alderdi politikoaren garapenaren artean inongo erlaziorik ez dagoela us-te duzue? Zein funtzio betetzen du LASek proletalgoaren antolakuntza politikoaren garapenean?**



Hasteko, LAS moduan ez dugu gaitasunik auzi horri sakon erantzuteko. Hain justu, oso erreminta zabala gara, nagusiki jardun praktikoa duena eta auzi horretarako behar den homogeneousasunik zein garapen ideologiko nahikorik ez duena.

LAS sortzera eraman gintuzten intuizio politikoez hitz egin dezakegu ordea. Batetik, ikusi genuen sindikatuek ospea galdu bazuten, ez zela kontu kulturalengatik bakarrik gertatu, errealitate batengatik baizik: kontua da, sektore proletarizatu askori arrotza zitzaiela sindikalismoa, ez zutelako lehen eskuetik ezagutu beren lantokietan eta sek-

tore jakinetara mugatzen zelako, normalean proletalgoaren gain hain zuzen. Arteka hori are agerikoagoa zen belau-naldien artean. Horren aurrean, ulertu genuen politikoki aukera ireki baten aurrean geundela sektore proletario umezurtz horiek antolakuntza mailan protagonismoa lor genezan eta geure errealitateetara egokitutako borroka formak abiaraz genitzan, betiere borrokaren beraren bitartez sortzen diren harremanei arreta jarrita.

Horrenbestez, bagenuen intuizio bat gogoan: momenturen batean balizko mugimendu iraultzaile bati buruz hitz egitekotan, alde aurretik nolabaiteko

oinarri batek egon beharko lukeela, guxtienez era independentean antolatutako langile mugimendu bat, hainbat arlotan defentsaren aldeko berehalako borrokekin lotua, eta proletalgoaren eguneroko bizitzan sustraitua. LASEk bigarren kontu horri era apalean erantzuten dio, bere gaitasunen gainetik dauden funtzioak bere gain hartzen ahalegindu gabe. Baina uste dugu premisa horiek dagoeneko identifikatuta sentitzen ez garen sindikalismo korporatibo despolitizatu batetik haragoko lan oinarri batzuk ezartzen dituztela, eta LAS ez dago burbuila batean, inguratzeko gaituen testuinguru politikoan baizik.

Hori guztia esanda, interesez jarraitzen ditugu egun gai horren inguruan izaten ari diren eztabaidak; uste dugu langile mugimendu berri baten loraldiaren eta langile mugimendu klasikoaren krisiaren ondorio direla, baita sistema kapitalistari errotik eraso egingo dion klase politika iraultzailearen premiazko behararen ondorio ere. Bigarren kontu horren aurrean, lehen esan dugun bezala, ez gara gu erantzuna eman dezake-tenak, baina guretzat, izaera iraultzailea duen hipotesi estrategiko bat gorpuzten saiatu daitezkeen artean, nolabaiteko funtzio bat izan behar dute defentsa borrokek. Erantzun beharreko galdera, beraz, funtzio horren nolakotasunaren ingurukoa izango litzateke /





**IKUSPUNTUA**

Maddi Sarasua

# Eraikitzen ari garen kultura



**Hau ez da inondik inora gure buruari loreak botatzeko artikulu bat. Bizi dudana kontzientziara ekartze saiakera bat baizik. Inguratzen gaituen kultura kapitalistaren aurrean, zernolako kultura eraikitzen ari garen konturatzeko ariketa da.**

**U**ste dut gure kulturaren oinarrian dagoena etika dela. Mundu hobe bat nahi dugu, mundu hau etikoki injustua iruditzen zaigulako, munduaren gehiengoa gutxiengoak esplotatuta eta zapalduerik bizitzeak sumintzen gaituelako, munduan minutuero hainbeste pertsona gosez eta gerrian hiltzeak asaldatzen gaituelako, eraso matxista bakoitzak gure onetik ateratzen gaituelako... Etikak eta enpatiak jartzen gaitu munduaren alde honetan, zapalduen larruan, borrokalarien aldean, mundua aldatzen biziko direnekin orpoz orpo. Gizarte hobe batean sinesten dugu, eta hori eraikitza goaz. Benetan inporta zaigu hurkoaren zoriona, hurkoaren mina, hurkoaren bizitza. Kapitalismo honek indiferentziara bultzatu nahi gaitu, bakoitza bere bizitzaz arduratza... Baina pertsona enpatikoak gara gu, eta besteen mina gure min bihurtzen da, besteen ongizatearen ardura sentitzen dugu.

Mundu honen arduradun sentitzen gara, biktima baino gehiago. Eta denontzat hobe izanen den mundu bat eraikitzeo ardura hartu nahi dugu. Ardura itzela da hori. Kultura kapitalistak bultzatzen duen indibidualismo eta erosotasunaren aurka doana. Askoz erosoagoa zatekeen gure guraso eta ingurune naturalari segika militatzea. Oso gogorra izan da, baina sistema kapitalista iraultzeko ardurak eskatzen duen lan zorrotz eta konpromiso sendoak ezker abertzale ofizialarekin hautsi behar izatera eraman gaitu. Esfortua eta konpromisoa jarriko nituzke eraikitzen ari garen kulturaren oinarrien artean. Baina baita zorrotasuna ere. Analisi zorrotzak egitea eskatzen diogu geure buruari. Ahal bezain zehatz eta zintzo hitz egitearen hautua egin dugu. Ez goaz jendea erakartzeko hitz eta ekintzen

bila, pixkana ulertuko direlako ustea eta luzerako bisioa dauzkagu oinarri. Uste dugu zintzo eta zehatz hitz egiteak baino ezin duela ekarri ikaspenetan eta kritiketan urrunago kolektiboki joateko aukera.

Arrazoa daukazula uste duzunean zaila da umila izatea, baina horixe egiten ikastea dagokigu. Ari gatzazkio gure buruari kritikak egiten, egin akatsetatik ikasten. Kritikoa eta autokritikoa izatea da mugimendu batek bereziki barnera begira erakutsi behar duen gaitasuna. Mugimendu hau etengabeko aldakuntza eta egokitzapenean egotea da, ene us-tez, gaitasun horren lekuko. Hasieratik hona, egiteko moduak bezala, tesiak ere zalantzan jarri eta aldatzen doaz. Ez dugu egia absoluturik, amaitutako teoriarik. Argi dugu teoria praktikaren bidean joaten dela garatzen, eta praktikak eramanen gaituela gauza berriak pentsatzera: "Oinak dauzkagun lekuan pentsatzen dugu". Pentsamendua kolektibizatu eta kolektiboki pentsatzeko espazioak sortzen ikusten ditut, etengabe. Konpromisoa hartzeko prest dagoen orori irekitzen zaizkio militantzia-espazioak, eta bertan dauka nahi duenak kolektiboki pentsatzen ari garenean parte hartzeko parada. Bertan dagokigu militante bakoitzari, diziplinaz, dauzkagun kritikak egitea eta dagokien lekura helduko diren ardurak hartzea.

Diziplina barneratu dut nik zuekin batera militatuz. Berandu iristea, ez azaltzea, ardurak ez betetzea... ohikoak ziren ene aurreko militantzia espazioetan, neronen baitan ere bai. Baina ikusi ditut ingurukoak seriotasun erabatekoz jokatzeko, euren buruei diziplina maila izugarria eskatzen. Ikusi dut nola diziplina ez den militantzia esparru formaletara soilik

mugatzen: militantea bere bizitzako alor guztietan dela militante. Harreman guztiak, egiten dugun eta ez dugun guztia, etika eta konpromiso militantez bizitzen hasi gara, eraiki nahi dugunaren uneoroko kontzientziaz zipriztintzen.

Gure bizitzako alor orok izan behar luke gure militante kideentzat kritikagai. Ene inguruan entzun ditut, espazio informal batean izandako jarrera txarra edota bikotekide ohiarekiko zaintza falta dela eta, kideari oso modu eraikitzailean egindako kritikak. Horren garrantziaren kontzientzia hartzearekin batera miretsi dut hori egiteak eskatzen duen adorea. Nik ere harreman ez-sano edo jarrera desegoki bat edukiko banu, kritika diezadatela nahiko nuke orain. Elkar hobetzen laguntzea da hori, pertsona eta harreman hobeak eraikitzen ari garen bitartean.

Elkarri ematearen kultura eraikitzen ari gara, interes indibidualistetan oinarritutako elkar trukearen kulturarekiko talkan. Diruarekiko beste harreman bat bizi izan dut gure militantzia espazioetan. Proiektu kolektiboetan hainbeste diru jartzen ikusi dut jendea, edota kideei dirua ematen. Jada gure bizitzek beste helburu dute; eskuratzen dugun diruak ere bai.

Zaintza dugu oinarri. Konturatu naiz elkar zaintza ez dela bestearen sentimenduak entzutea bakarrik, gure momentuko plazer edo erosotasun indibidualistak utzi eta bestearekiko ardura hartzea baizik. Argi daukat, beharko dudanean, beti egonen dela kideren bat ni laguntzeko, ene ardurak hartzeko, bizkarrean kolpetxoak eman baino, eskutik heldu eta aurrera tirako nauena. Ezin dugu jada arazo pertsonal sentimentalekin depresio putzura erori, zentzu

eta indar bizia hartu baitute gure bizitzek.

Zaintza eta elkartasunaren kultura eraikitzen ari gara. Elkartasuna ez da txikitatik elkarretaratzeetako pankartetan irakurtzen dudana hitz soila, benetan dastatu ditugu, borrokak indartu edota pertsonak babesteko, indar denak elkartzeak dakartzen fruituak. Gure antolakuntzaren kulturaren baitan doa elkartasuna. Eta ari gara gero eta leku eta esparru gehiagotan antolatzen. Lan banaketa eraginkorra beharrezko zaigu. Ego eta inbidiarik gabe bizitzen ikasten gabilta, diskrezioz eta umiltasunez. Denen onerako, bakoitzak ekarpen gehien egiten dugun lekua hautatu beharra sentitu dugu. Anitzetan ez da maitteena edo errazena izanen, baina ingurukoak hautu zail eta sakrifizio pertsonalak egiten ikusten dituzunean, nola ez duzu bada, zuk ere hautu hori eginen?

Konfiantza iraultzailea sendi dugu. Bide luzea da honako hau, esperimintatu beharrean gaude eta akatsak egin, birpentsatu eta egokitu. Iraultza prozesua luzea izanen da, gure belaunaldiak ez du ziurrenik komunismo amaiturik biziko, baina borroka eta kultura komunistaren haziak ereiteko aroa egokitu zaigu. Eta pazientziaz, pazientzia iraultzailez.

Gutasun bat eraikitzen ari gara, bestelako komunitate bat. Hasi berriak gara oraindik, baina uste dut bagoazela kultura kapitalistagandik ezberdina den kultura baten oinarriak jartzen, eta joanen garela oinarriak ugaltzen, zabaltzen eta sakontzen.

Kultura batek bultzatzen zaitu hain errazak ez diren gauzak egitera. Gure amonarengan pentsatzen dut, eta ez da batere bizi erraza aukeratu duena.

**“Eraikitzen ari garena benetan kultura izendatu ahal izanen dugu, era naturalean transmititu eta bizi ohitura bihurtzen den bizi forma eta bizi ikuskerara bihurtzen denean. Gizatalde baten zentzu komunara bihurtuko denean.”**

Etengabe ari da familia guztia etxera gonbidatzen, gutako bakoitza uneoro zaintzen, otorduak pres-tatzen, denentzako tuperrak betetzen, umeak bere gain hartzen, garbiketaz arduratzen, denen arropak josten... etengabeko lan nekaezina. Zergatik eta nola-tan egiten du hori? Kulturalki transmititu zaiolako, eta horretara ohitu delako. Hain errazak ez diren hautuak egitera bultzatzen gaitu kulturak, eta hain justu horixe behar dugu guk, hain errazak ez diren hautuak egitera bultzatzen gaituen kultura. Egotik, alferkeriatik eta indibidualismotik atera eta kolekti-boaren zaintzara bideraturiko kultura behar dugu, gure baitako alde txarrak landu eta onak elikatuko dizkigun kultura.

*Jabetzaren ulerkera ezberdin bat* artikuluan deskri-batzen nuen garai bateko gizarte ereduan transmi-sioa ez zen arrazionalki argudiatuz egiten: “Gure komunitatearen izaera horrelakoa da, konpromisoa behar dugu, lana kolektiboa izan behar da, hurrengo belaunaldientzako sostengarria delako funtzio-natzen dugu horrela...”. Oinarri kultural horiek ez zituzten erreproduzitzen kontzienteki zuzenenak zirelako, amonak erranen lukeen gisan: “horrela zen eta puntu”. Gizarte eredu hartan, lanaren eta ardura-ren kultura berez transmitituak zitzaizkien. Horre-la bizi izan zuten, eta horrela transmititua, horrela berrelikatzen zuten haiek ere.

Kulturaz jardun dut artikuluan honetan, baina eraiki-tzen ari garena benetan kultura izendatu ahal izanen dugu, era naturalean transmititu eta bizi ohitura bi-hurtzen den bizi forma eta bizi ikuskera bihurtzen denean. Gizatalde baten zentzu komuna bihurtuko denean, komunitate batek inkontzienteki errepro-

duzituko duenean. Bitartean kontzientziatz, esfor-tzuaz, konpromiso sendoz eta diziplina zorrotzez praktikara eramane ditugun elementu kulturalak izanen dira.

Bagabiltza, eta ederra da hau bizitzea. Egunez egun, pixkana-pixkana, geure burua eta ingurukoak alda-tzen ari garela sentitzea. Bagabiltza. Errainupean ereiten. /

**KOIUNTURA**

Manex Gurrutxaga

# Bidelagun berrien aroa

**URTEAK EMAN DUENA IDATZI BATEAN LABURBILTZEA ETA EKARPENA EGINGO DUTEN IRAKASPENAK AZPIMARRATZEA EZ DA ARIKETA ERRAZA; ARE GUTXIAGO 2019KO URTEAK EMAN DITUEN ELEMENTU POLITIKO INTERESGARRI GUZTIETAN PENTSATZEN JARTZEN BAGARA. IZAN ERE, MUGIMENDU SOZIALISTARENTZAT, AMAITZEAR DAGOEN URTEA OPAROA IZAN DELA ESAN DEZAKEGU, HARROPUZKERIAN ARITZEKO BELDURRIK GABE, GAINERA. ETA HORRELA IZAN DA IKASLE LANGILEEN INTERESEN DEFENTSAN DIHARDUGUNONTZAT ERE. URTEAK EMANDAKO GUZTIA SINTETIZATZEN ASMATZEAK DAKARTZAN ZAILTASUNEI, GEDAR LANGILE KAZETAREN LEHENENGO URTEKARIAN ARGITARATZEKO IDAZTEAK SORTZEN DUEN ERANTZUKIZUN SENTIMENDUA GEHITU BEHAR ZAIO. KAZETA HONEK URTEBETEAN IZAN DUEN BILAKAERA ETA HEDAPENA EZAGUTUTA, OSO LITEKEENA DELAKO, URTEETAN IRAUNGO DUEN ETA GARRANTZIA POLITIKO HANDIA IZAN DEZAKEEN PROIEKTU BATEN AURREAN EGOTEA. ZAILTASUN ETA AURREIKUSPEN HORIEKIN HASI NAIZ IDAZTEN, 2019. URTEAK HEZKUNTZA ESPARRUAN EMAN DIGUNARI, IKUSPUNTU SOZIALISTATIK GAINBEGIRADA BAT EMATEKO ETA ETORKIZUNERAKO ZENBAIT ERRONKA IDENTIFIKATZEKO HELBURUAREKIN.**

**P**asa den ikasturtearen memoria ariketa azkar bat eginda, ezer baino lehen, ekimen nazionalak datoz nire burura: Tolosako eta Eunateko borroka eta manifestazioak, Herri Unibertsitatea, Unibertsitateko Indar Batasunaren (UIB) sorrera, Ikasle Abertzalearen VII. Kongresu ekitaldia, Gazte Sozialiston Topagunea eta Eskola Ibiltaria, hain zuzen ere. Eta nola ez, Ikasle Abertzaleontzat hezkuntza esparrutik harago ezinbesteko bidelagun bihurtu diren erakunde sozialisten sorrera: ITAIA Emakume Sozialisten Sarea, GEDAR Langile Kazeta eta Gazte Koordinadora Sozialista (GKS). Ez dut sorrera eta antolakunde horien inguruan jardungo, ordea, seguru nago urtekari honetan beste hainbat kolaboratzailek zeresan handia dutela horren inguruan.

Urtea hasi bezain pronto, Tolosako Orixe ikastetxeko ikasleek ebaluazio irizpideen hobekuntzen aldeko borrokaldia iragarri zuten. Seguruenik, momentu horretan, ez zuten borrokaldi

horiek ekarriko zizkien ondorio pertsonal eta kolektiboen inguruko susmorik. Dozenatik gora ikasle hiru egunetarako kanporatzea izan zen zuzendaritzaren eta zenbait irakasleren lehen jarrera. Hori ordea, lehen pausoa baino ez zen izan, borrokaldiak dimentsio handiko jazarpen forma hartu baitzuen. Tolosaldeko Autodefentsa Sarean (TAS) antolatutako ikasleek, ordea, iniziatiba, ausardia eta ikasle langileon interesak defendatzeko borondatea soberan dutela frogatu zuten. Horri esker, eskuartean zuten hipotesi politikoaren zuzentasuna nabarmendu zen. Hala ere, zenbait ikasle ebaluazio irizpideak aldatzeko abiarazitako dinamikak, Orixe institutuaren izena zikintzen zuela iruditu zitzaion eta, aitzakia horrekin, gerora urte guztian errepikatuz joan den autoritarismoa nagusitu zen irakasle, zuzendari eta guraso askoren artean. Jarrera horren ideia bat egin dezazuen: irakasle batek, borrokaren hasiera iragartzen zuten prentsaurrekoa Auzitegi Nazionalean terrorismoari gorazarre

egiteagatik epaitua izateko modukoa zela esan zuten.

Orixen, borrokari esker, ikasleek zuzendaritzarekin eta Hezkuntza Sailarekin elkarrizketarako bidea irekitzea lortu zuten. Jarraian, ildo oso antzekotik garatu zuten Txantrea auzo iruindarreko Eunate institutuko zuzendaritzak bere jarrera, ikasleentzako antolakuntzarako hautuari erantzuteko orduan. Eunateko ikasleek Nafarroako Gobernuak institutuan jarri berri zituen bideo-bigilantzia kamerak kentzeko helburuarekin, Iruñerria mailako dinamika bat jarri zuten martxan Iruñerriko Autodefentsa Sarearen bitartez. Hilabete gutxira, ikasleentzako antolakuntza eta borrokaren ondorioz eta hezkuntza sailarekin hainbat elkarrizketa izan ondoren, Eunateko institutuko kamerak kendu zituen Nafarroako Gobernuak eta Eunateko zuzendariak dimisioa aurkeztu zuten.

Borroka esperientzia horietatik bi irakaspen orokor azpimarratu nahi

**“Ikasleriaren antolakuntza eta borroka prozesuak baldintzen hobekuntzarako indar bezala egituratu dira, eta aldiz irakasle eta zuzendaritzek indar erreakzionario gisara jardun dute: jarrera kontserbadorarekin, egungo ordenaren babesle funtzio sutsua bete dute.”**

nituzke. Alde batetik, ikasle langileen antolakuntza independenteak erakutsi duen baliagarritasuna gure interesak defendatu eta horien errespetagarritasuna lortzerako orduan. Eta batez ere, ikas baldintzak errealki hobetzeko garaian. Irakaspen hau bereziki garrantzitsua da ikasleontzat, batik bat,

Bigarren Hezkuntzak ikasleen infantilizazioa elikatzen eta erreproduzitzen duen bitartean, Autodefentsa Sareetan antolatutako ikasleek euren interesak identifikatzeko eta defendatzeko gaitasuna erakutsi dutelako. Esan nahi dudana da, hezkuntza sistema kapitalistak eta bere sostengu bihurtzen den irakasleria autoritarioak, bigarren mailako hezkuntzako ikasleen infantilizazioa sustatzen dutela, ikasleak euren interesak ezagutzen ez dituzten umeak bezala ezaugarrituz. Irakasle horien ustez, ikasleek ezin dute beraien kabuz antolatu eta baldintzak hobetzeko borrokarik abiatu, komeni zaienaren inguruko kontzientziarik ez duten umeak baitira.

Ideologia burgesaren beste adierazpen bat da hau: zehazki, langileriak bere antolakuntza politikorako daukan gaitasuna ezeztatzen saiatzeko beste forma bat. Horren aurrean, Ikasleen Autodefentsa Sareen dinamikek, beren esparruan ikuspuntu klasista hori azalertzeko gaitasuna erakutsi dute irakasleria subjektu eraldatzaile bezala egituratzea ahalbidetzearekin. Hau da, modu kolektiboan irakasleria bere interesen defentsan antolatuz eta ikas baldintzetan hobekuntzak lortuz.

Harrigarria badirudi ere, egoera horietan klase borrokkak irakasle zein zuzendaritzaren eta ikasleen arteko gatazkararen forma hartu du sarri, Orixen eta Eunaten kasu. Izan ere, ikasleriaren antolakuntza eta borroka prozesuak baldintzen hobekuntzarako indar bezala egituratu dira (langileen interesen aldeko aldaketa gisara, alegia) eta aldiz, irakasle eta zuzendaritzak indar erreakzionario gisara jardun dute: muturreko autoritarismoarekin (borroka-

tzen duena zigortuz, kaleratuz...) eta jarrera kontserbadorearekin. Finean, egungo ordenaren babesle funtzio sutua bete dutela agerian gelditu da.

Beste alde batetik, eta ideia horrekin jarraituz, aipatu nahi dudana bigarren irakaspena irakasle, guraso zein zuzendaritzako hainbat sektorek erakutsi duten izaera klasista eta autoritarioari lotutakoa da. Aipatu dudana modura, figura horiek indar erreakzionario gisa osatu dira ikastetxeetan, modu koordinatu eta bateratuan jardun dute ikasleen aldarrikapenei aurre egiteko eta horien aldeko hautua egin zezakeen oro eskarmentatzeko helburuarekin. Autoritate figuraren neurrigabeko erabilera egin dute beren ongizate pertsonala babesteko helburuarekin. Horrek, irakasle askoren irudi ezkertiar eta progresista itxura hutsa dela nabarmen geratzea ekarri du eta erdi mailako klaseak latentzian duen izaera autoritarioa eta klasista azaleratu da. Bloke politiko horretako sekzio "progresistak", proletargoaren lepotik eraikitako bere ongizate eta estatus soziala babesteko muturreko jarrerak onartzeko prest dagoela erakutsi digu beste behin. Edo behintzat, norabide horretan pentsatzeko arrazoiak eskaini dizkigu: batez ere, langileriaren antolakuntza independente orok eragiten dion izua saihesteko berau zapaltzeko daukan borondatea frogatu du. Baita horrek euskal burgesiaren ordezkarria

den EAJrekin aliantzetan aritzea badakar ere.

Hezkuntza ertainetik unibertsitateera jauzi eginez, Eunateko borroka gori-gorian zegoen bitartean, unibertsitateko ikasle mugimenduko hainbat pertsonak UIB aurkeztu genuela ezin aipatu gabe utzi, 12.2 artikulua aldatzeko aldarrikapenarekin. Gertakari apal bezain garrantzitsu horrek, aurrerapauso handia ekarri du ikasle mugimenduaren bilakaeran eta historian, batez ere, hiru aspektutan:

1) Asanblada, eragile eta norbanako ezberdinen esperientzietatik sortutako egoeraren analisiaren arabera, eragileen gaitasun politiko eta sozialek mugak aurkitu zituzten, hazten eta eragina zabaltzen jarraitzeko ezintasuna, alegia. Muga horien ondorioz, blokeo egoera batean aurkitu zen hainbat eta hainbat eragileren jarduna. Blokeo edo inpotentzia egoera hori gainditzeko premiatik abiatuta, eragile ezberdinen jardunak bateratzeko eta nazional mailan antolatzeko hautua egin genuen.

2) Eskala nazionalean koordinatuzetik harago doan proiektua da UIB. Jardun bateratua proiektatzen duen eta ekin-tza batasunerako oinarria den programa politikoa aurkeztu baitu Unibertsitateko Indar Batasunak duela aste gutxi. Hau da, eragile ezberdinen saretzeak izaera eta epe luzerako helburu propioak adostu ditu.

3) Azkenik, ez baina garrantzia kentzeagatik, programa politiko bateratu baten baitako saretze nazionalak, unibertsitateko langile sektore ezberdinak antolatzeko borondatea erakutsi du. Klase batasunari ekarpena egin nahi diogu,

unibertsitateko sektore proletarizatuenak, maila nazionalean eta klase interes unibertsalen defentsan artikulatuz.

Horrekin guztiarekin eta tartean Herri Unibertsitateak burututa, apirilera iritsi ginen. Izan ere, apirilean publiko egin genuen irailetik Ikasle Abertzaleak antolakundearen VII. Kongresuan murgilduta egon ginela. Barne prozesua ahalik eta ondoen garatzeko hartutako esfortzuengatik eta emandako emaitzengatik, kongresuak merezi zuen mailan amaitu behar zuela erabaki genuen: memorian gordetzeko ekitaldi sentikor bezain indartsu batekin eta burkideen babesean. Ondorengo hilabeteetakoak izan dira GKSrekin antolatutako lehenengo Gazte Sozialiston Topagunea Azpeitian, eta Eskola Ibiltaria.

Gazitik ere izan du urteak ordea, eta horren adibide argiena Sortu alderdiak Bilboko egoitza lapurtzearen ondorioz eratu duen egoera nahasia izan da. Hala ere, IAK aipamena merezi duen jarraera egoki eta heldua erakutsi duelakoan nago, bakoitzari dagokionaren defentsa duina eta zilegia egikaritzuz, alde batetik, eta gatazkari aterabideak proposatuz, bestetik. Gainera, gatazka arlo politikoan kokatzen jakin dugula esango nuke.

Horiek eta beste hainbat elementu aipatu ditzakegu 2019. urtea berrikus-terakoan. Hala ere, argi dago pasa den urtea aurrerapausuetarako eta heldutasuna irabazteko urtea izan dela mugimendu sozialistarentzat. Langileen babes eta defentsa artikulatzen gabiltzanok pozik egoteko nahikoa arrazoi baditugula uste dut eta azken lerroak horretan dihardutenen lana goraiatzeko erabili nahi ditut. Ez dago dudarik garai zailak direla sozialistontzat. Baina egia da ez dela garai errazik egongo aterabide bakarra proletargoaren antolakuntza politikoa internazionalaren bidez klase gizartearen abolizioa dela sinisten dugunontzat. Ohorea, horren alde borrokan eta antolakuntzan dabilen burkideari. /



**IKUSPUNTUA**

Adam Radomski

# Beste langile mugimendua



**Bigarren Mundu Gerraren osteko itun sozialari zegokion egonkortasuna (kapitalismoaren urte zoragarriak, 50. eta 60. hamarkadak) erabat zapuztu zen krisialdi ziklo berri baten ondorioz: 60. hamarkadaren bigarren erdian eta bereziki 1973an izandako beste krisialdi sakonarengatik eta horiekin batera greben eta lan gatazken gorakadarengatik. Gertakari horien babesean jaio zen “beste langile mugimendua” izenez ezagutzen duguna, Estatuan integratutako sindikatuen hausturari eta hainbat langile autonomia esperientziei erreferentzia egiten diena. Adibidez, Italiakoei, Alemaniakoei, Frantziakoei eta Espainiako Estatukoei.**

#### EZAUGARRI OROKORRAK

**O**ro har, esan daiteke nazioartean borroka horiek batzen zituzten ezaugarriak honako hauek direla: borroken erradikaltasuna (borroka armatuak batzuetan sortu ohi ziren paraleloki eta besteetan borroken baitatik sortzen ziren), hedapena eta estatu-aparatuaren parte bilakatutako sindikatuak hartutako deriba auzitan jartzea. Galdera jada ez zen ea sindikatuak iraultzarako baliagarriak ziren ala ez, galga ez ote ziren baizik.

Garaiotan migrazio mugimendu garrantzitsuak egon ziren: nazioartean (adibidez, Alemanian), eskala nazionalan (Italian hegoaldeko iparralderakoak), baita landa eremutik hirira ere (Espainiako Estatuan industriagune handietara emaniko migrazioa). Hiriko proletarioen konposizio berri horrek, nolabait esatearren, bultzada berri bat eman zien borrokei: Coloniako Ford-en greba basatia (1973), Fiat Mirafiori-ko 1969ko greba erraldoia Italian, edota urte horretatik aurrera Espainiako Estatuan erregistratutako grebak hirukoiztu izana dira horren adibide. Frantzian, 68ko maiatzaren testuinguruan, 10 milioi langile greban egotera iritsi ziren.

Kontsejismoaren eragina begien bistakoa zen, bai sindikatuen formak ukatzean, bai sortzen ziren proposamenetan. Orokorrean, joera langileen asanbladak osatzea zen. Horietan ordezkariak *ad hoc* hautatzen ziren, eta zerbait negoziatu behar bazen, betiere, ordezkari horien aldagarritasuna bermatzen zen. Sindikatu eta patronalarentzat hori desafio bat zen, ez baitzituzten ordezkari horiek onartzen (azken finean, haien filtrok paseak ez zirelako).

Hori zela eta, borroka ordezkari “ilegal” horiek onartzera bideratzen ziren, sindikatuen ordezkariak saihestu asmoz. Zentzu horretan, negoziazioak are estuagoak ziren, langileen bandoa gogorragoa baitzen eta hazita baitzegoen. Langileek, patronalak egindako eskakizunei entzungor egiten zieten eta negoziazioak askoz errazago hausten zituzten. Adibide modura 1977an Gipuzkoako metalaren hitzarmena aipa daiteke, sindikaturik gabe lortu zena. Oro har, askotariko fabriketako komite, asanblada, erresistentzia kutxa eta bestelako proletarioen instituzioak joan ziren sortzen.

Lan arloan, oso ohikoak ziren eskakizun bateratuak: esaterako, soldaten parekatzea berdina izan zedila denentzat eta ehunekoen bidezkoa beharrean, lan-orduak murriztu zitezela eta tratua bera izan zezatela langile finkoek eta aldizkakoek. Horrez gain, proletarioen bizi baldintzen borroka hainbat kostu murriztera ere bideratu zen, hala nola, garraioa, jatekoa, argindarra edo alokairua (okupazioak biderkatzen ari ziren bitartean). Horren adibide ziren Italiako auzoetako *autoriduzioniak*, besteak beste, gauzengatik inflazioaren aurreko prezioa ordaintzen zutenak, bat-batean ordaintzeari uztera iristeraino.

Alderdi psikologikoa ere interesgarria da, izan ere, benetan dena irabaztera zihoazen ustea zuten; baidakortasun handia zegoen. Argigarria delakoan, ikus mendeko lehenengo hamarkada amaierako iraultzen zikloari (Alemania, Hungaria, Errusia...) erreferentzia egiten dion garaiko kontzeptu oso epiko hau: “proletarioen bigarren oldarraldia”.

## EZBERDINTASUNAK

Esperientzia horiek guztiak ezin ditugu modu homogeneoan tratatu. Hala, Italian autonomiaren mugimenduak aberastasun eta sakontasun handia zuen teorizazioetan; antolaketakarako saiakera eta estrategia propioak ezartzeari zegokionean, beste inongo herrialdetan ikusi ez zena. Ikus dezagun zer zioten Pirelli fabrikako Oinarriko Batzorde Unitarioek (Comitati Unitari di Base, Italiako mugimendu autonomoaren aurrekari izan zirenak):

Edozein eskakizun bere egin dezake kapitalak. Hain zuzen ere, borroka ekonomikoaren eta politikoaren batasuna da sistema kapitalista kolokan jar dezakeena. (...) Izan ere, borroka ekonomikoa emankorra izateko borroka politikotik eratorri behar da. Aldi berean, borroka politikoa ezin da bereiztu, desegin gabe, borroka ekonomikoetatik.

Sindikalismoaren auziari egiten zaion ekarpena benetan argigarria da. Izan ere, autonomiaren kausetako bat ekonomizismoaren irteerarik gabeko kobazuloan zegoen sindikalismoaren geldialdi egoera gainditzeko beharra izan zen. Italian berriro ere mahai gainean jarri zen borroka ekonomikoaren eta politikoaren arteko banaketa gainditzea, lehenago Marxek proposatu zuen modura.

Horrez gain, Espainiako Estatuan, baldintza materialek erraiaetatik aterarazi zuten esperientzia bat izan zen, hausnarketatik baino. Hori dela eta, Italian kapitala-lana harremana eta soldatapeko lana bera auzitan jartzen ziren bitartean, Espainiako Estatuan, istilu gogor eta hedapen handikoak bizi izan

ziren eta asanblada ugari sortu ziren arren, gehienetan lan arloko aldarrietara mugatu ziren. Ez zen estrategia bat proposatzeko gai zen korrante autonomo bereizturik mamitu. Gainera, asanblada autonomoek, uneoro beren buruak CCOO eta PCEn esku-hartzeetatik defendatu behar izaten zituzten trantsizioaren (edo beste batzuek zioten bezala, transakzioaren) testuinguruan, beste zenbait talde politikoren esku-hartzeetatik bezalatsu. Talde politiko eta sindikatu horiek autonomiaren adierazpena demokrazia burgesaren aldarrietara bideratzen saiatu ohi ziren, zuzenean bere aurka jotzen edo baztertzen saiatzen ez ziren kasuetan.

## ONDORIOAK

Mugimendu autonomoarekiko gertutasuna edo sinpatia sentitzeagatik ezin ditugu bere porrota eragin zuten hainbat kontu aztertu gabe utzi. Lehenik eta behin, bai borrokek eta bai langile batzordeek hartu zituzten formak goranzko borroka testuinguruan izan ziren posible eta eraginkorrak. Ondorioz, garaiak izan ostean asko kostatu zitzairen burua altxatzea. Izan ere, bake sozialaren garaietan, gizartean orokortutako mugimendu bat ez izateak zaildu egiten du borroka molde horiek gauzatzea. Gainera, borrokek desbideratzen saiatzeagatik alderdi politikoei egiten zieten gaitzespenak, zentzuzkoa izan arren, orokorrean politikarekiko gaitzespena izan zuen ondorioztat. Hori zela eta, borroka horiek norabidea markatuko zuen perspektiba orokor eta bateratu bat zailtzen zuten inertzietan erori ziren. Azkenerako, ukapen hori ahultzen zihoan neurrian, sindikatuak indartuta atera ziren, eta lortutako garaipen edo arrerapausoak aurreko egoerara itzuli ziren. Labur-

**“Autonomiaren porrota oso gogorra izanagatik, etorkizuneko erronkei eusteko hainbat gako uzten dizkigu: bai proletarioen baldintza materialen defentsarako borroketarako, bai eta borroka ekonomikoaren eta politikoaren arteko harremanerako ere.”**

bilduz, oso erakargarriak eta epikoak iruditu arren, ezin ditugu iraganeko esperientziak zuzenean kopiatu. Gainera, borroka ekonomikoa bere kabuz agortzen da, iraultzaren perspektiba orokorra integratua ez badago, Pirelliko Oinarriko Batzordeek aurreikusi zuten modura.

Azkeneko, antolaketa moduen izaera iragankorrek mugimendua (edo mugimenduaren azken hondarrak) atzera egitera eta Oinarriko Batzordeetara itzultzea derrigortu zuen, Italian kasu, non patronalarentzat bitartekari baliagarri izaten amaituko baitzuten. Beste kasu askotan, kapitalismoan integratuta amaitu zuten. Hots, mugimendu horien izaera horizontala ez zen inondik inora gainbeheraren aurkako bermea izan.

Izandako borroka uholdeen porrotarekin, ekoizpen sarean —eta ondorioz klase osaketan ere—berregituraketak egon ziren, industria periferia kapitalistan birkokatzea esaterako. Fenomeno horretan oinarritu zen proletarioen subjektu iraultzailearen aurkako tesia. Mundu mailan industriak hazten jarraitu duen arren, orain Mendebaldetik lekualdatuta dagoelako. Baikortasunaren ondorengo ajea oso sakona izan zen eta oraindik ere hala jarraitzen dugu: ez da iraultzaren inguruko kontakizunik entzun nahi eta proletarioari subjektu iraultzaile izaera ukatzen zaio subjektu anitzeko taldeen mesedetan, zuzenean subjektu kolektiboa errefusatzeko ez denetan.

Kontuak kontu eta garapen handirik ez izan arren, aipatutako *autoriduzionien* kasuak sakontasun handiagoz aztertu behar dugun bide bat markatzen digu. Zentzu horretan, egia da garaipen bidez eskuratu-

tako baldintza materialen hobekuntzak iragankorrek izaten direla eta kapitalari leku batetik irabazten zaion hori kapitalak berak beste modu batera berreskuratzen duela (esaterako, alokairua igotzea soldataren igoerarekin batera), baina horien defentsa lan arlotik harago bizitzako arlo gehiagotan —alokairua, argindarra, ura, jatekoa, garraioa, etab.—artikulatzeak, gure eraginkortasuna handitzen du, ekonomizismoa gainditzeko urrats bat delarik. Horrez gain, aipatzekoa da mugimendu autonomoak, kapitalismoaren kontroletik kanpo zeuden proletarioen instituzio independenteak sortzen asmatu zuela. Mugimendu horiek, aldi berean, perspektiba integrala izan behar dute, beren buruarekiko zentzuaz haratago doan zentzua emango dien prisma integrala, alegia.

Azken ondorio modura, autonomiaren porrota oso gogorra izanagatik, etorkizuneko erronkei eusteko hainbat gako uzten dizkigu: bai proletarioen baldintza materialen defentsarako borroketarako, bai eta borroka ekonomikoaren eta politikoaren arteko harremanerako ere. Ezin gara beraz igarotako esperientzien ezkortasunean jausi, ezta esperientzia horiek zein epikoak izan ziren goratzean ere. Horiek ere kontraesan bezala egon baitziren. /

ERREPORTAJEA

# 12 hilabete historiaren atzera-kontuan

Astuna da memoriaren pisua; kolpeena, ostikadena, porrotena, lepora lotutako sokena. Pisutsua da historiaren zama, bizkar gainean nekez daramaguna. Historiaren motorra klase arteko guda dela zioen norbaitek, urrunean. Mendez mende mundura ernaldu garen desjabetuok, haragiz eta gogoz egin gaitu gerra horrek. Bortxaz ubeldu digu azala. Denborak higatu ez duen borroka da klaseen artekoa; munduaren erraietan bizirik iraun eta hura gorpuztu duena, sugeen modura, azala aldatzen asmatu duen arren. Talkaz talka, historiaren soina zizelkatzeko egarriz eta beharrez, etengabea izan da langile klasearen altxamendua. Duintasunez betetako izpiak, guda ilunenean. Eta gu ere, guduzelai horren erdian jaio ginen; jaio gintuzten.

**“O**raindik, harro paseatzen da zuzengabekeria gure kaleetatik”. Krisi kapitalista bete-betean; atzera bueltarik ez duen proletarizazio prozesuaren erdian. Etorkizun beltzaren bihotzean. Jokaleku horretan aurkitu gara; hil ala biziko jokoan. Eguneroko araua da basakeria; heriotza, indarkeria, miseria, beldurra. Baina aurreko belaunaldietako desjabetuek harrotasunez egin bezala, mundu zaharraren txoko honetan ere, etengabeak dira betikotutako zapalkuntzen aurrean irmoki altxatu direnen oihuak. Baita, ardura historikoa euren gain hartuta, borrokan irakaspen historikoak eurenak eginda, prozesu sozialista martxan jartzeko hautua egin dutenen oihuak ere. Oihuak, eta determinazioz emandako pauso sendoak.

Amaitzear da 2019. urtea, eta gorriz markatutako egunak izan dira aurten Euskal Herriko egutegian. Ez hutsetik, baina. Lan militanteak jarri ditu lurra eta ongarrria; politizazioa loratzeko, antolakuntza forma berriak pentsatzeko. Bide berriak urratzen hasteko, ildo sozialistari bide egiteko. Tokian toki lehenengo, hamaika lubaki, gotorleku eta elkargunetan; orduan eta eskala handiagoan gero, kimuz kimu, defendatzeko eta eraso egiteko prest. Saretez sarete, indartzez indartze, loturaz lotura.

Urtebeteko epea denboran motza izanagatik, historia izkiriartzen ari da pixkanaka, pultsu urduri baina irmoz. Eta papereko orbainak bizi-bizi daude. 2020. urtearen atarian, merezi du atzera begiratu eta ereindako haziak gogora ekartzeko. Aurrera egiteko gosez.

#### **EMAKUME LANGILEAK, ITZALETIK ARGIRA**

Itaia izan zen, aurreko hamabihilekoan, Euskal Herri mailako adierazpen sozialistetan aurrenetakoa. 2018ko urrian aurkeztu zuten Emakume Sozialisten Sarea, “emakume langileok askapen prozesu eraginkorra martxan jartzeko kontuan eduki beharreko auzien in-

### **“Gorriz markatutako egunak izan dira aurten Euskal Herriko egutegian. Ez hutsetik, baina.”**

guru eztabaida sortzea” helburu zuen. Itaia.eus bloga bilakatu zen euren aurreneko plaza, eta ulerkera zein hausnarketen erakusleho.

Euskal Herriko agertoki politikoan “mugak topatzen” zituztelako jarri zuen martxan proiektua Itaia. “Eta ez pentsa muga horiek eztabaida abstraktuetan edo inolako oinarririk ez duten saiakera eroetan topatu ditugunik; zailtasun horiek, geure eguneroko beharrei erantzuterako orduan aurkitu ditugu”, azaldu zuten.

“Militanteongan hausnarketa sortzea” eta piztea izan da Itaiaren asmoa; galderak, zalantzak, kezak zeharkatuz; hala nola, “subjektu politikoaren inguruan”, edota “eratu beharreko aliantzen inguruan”. “Langile klaseko emakumeok bizi dugun esplotazio forma zehatza identifikatu, ezagutu, eta berau gainditzeko ahalbidetuko digun jarduna sustatzea” izan dute ardatz, beraz. Mahaira aterate dute “orain arteko esperientzia historikotik ikasitako guztia”; hain zuzen: “emakume langileok zein burgesek forma ezberdinetan jasotzen dugula genero zapalkuntza, are gehiago, interes kontrajarriak dauzkagula berau gainditzeko; norbanakoaren askatasuna soilik era kolektibo batean gauzatu ahal izango dugula; emakume langileok gure klase sozialeko gainontzeko kidee-

**“Mahaira aterate dute orain arteko esperientzia historikotik ikasitako guztia.”**





kin harreman eredu parekideak eratu behar ditugula; emakume langileok bizi dugun zapalkuntza egoera gaitzetzeko gizarte antolakuntza sozialista eraiki behar dugula”.

2019. urteko azaroan, urtebeteko ibilbidea bizkar gainean, Durangoko (Bizkaia) Salda badago jardunaldietan zedarritu zituzten hamaika hausnarketa Itaiako kideek, ehunka emakumekin partekatutako elkargune eta eztabaidan. Lan banaketa, erreproduktzioa, osotasuna, harremanak, hipersexualizazioa, eta gogoeta egiteko beste hamaika auzi mahai gainean.



Azaroak 30  
18:30-etan

Manifestazioa  
Bihotz Sakratutik  
(Bilbo)







## “Gazteria langileak botere burgesarentzat betetzen dituen funtzioak seinalatzeari egin zion bide, horiek borrokatzeko.”

Hausnarketa etengabetik, ikaspenetara. Helmuga zaharrenetatik, bide berrietara. Genero problematika lantzean “abiapuntutzat langile izaera eta perspektibatzat ikuskera integrala” hartuta, gain hartzen digun errealtate gordinaren arrakalak atzemateko lan nekaezinean murgildu da Itaia. Azterketa zorrotza; emakume langileak itzaletik argira atera, eta lehen lerroan kokatu daitezten. Pausoz pauso.

### HAUTU BAT MISERIAREN ERDIAN

Gazte Koordinadora Sozialistak ere langile izaera eta ulerkera integrala izan ditu zimendu eta jaiotzarako kausa; klase batasuna eta independentzia politikoa oinarri, gazte problematika ebazteko. Miseria garaitan, borroka ehuntzea beste aukerarik ez baita bistaratzen. Lelo horri heldu zion GKSk aurkezpen ekitaldian, 2019ko otsailean. Besoz beso eraikitakoa, besoz beso aurkeztu zuten jendaurrean ehunka gaztek, Gasteizko (Araba) Auzolana pilotalekuan.

**“Ezinbestekotzat jo dute ezinbestean etorriko den kapitalaren erreakziotik babesteko mekanismo eraginkorrak martxan jartzea.”**

Hala, miserian, sozialismoaren defentsa izan zuten arma, eta hautu. Miserian, eskerrak badauden korronteen kontra...

Eguneroko basakeria kapitalistaren aurrean altxatu ziren aurrez adierazpen sozialista ugaritan hazi eta hezitako ehunka militante; ausardiaz eta determinazioz, eta bihotzak puztuta. Euskal Herriko hamaika txokotan adierazpen sozialista modura ereindako hazien emaitza izan zen GKS, baita maila lokaleko gaitasun horiek indartzeko mugarri ere. “Zaila baita indarrak biderkatzea, batasunik gabe”. Indar bateratu horrek ponpatu ditu ehunka gazteen bihotzak, eta gazte koordinadora izaki, gazte problematikari klase perspektibatik heltzea izan dute ipar ordutik, sozialismoa elikatzea ortzemugan. “Gazte problematika ezin baita ebatzi klase problematika ebatzi gabe”.

Gazte langileek jasaten duten zapalkuntza gizartearen funtzionamendu orokorraren eskutik datorrela zehaztu zuen GKS, eta gazteria langileak botere burgesarentzat betetzen dituen funtzioak seinalatzeari egin zion bide, horiek borrokatu ahal izateko. Frontez fronte, zirrikituz zirrikitu, eta Euskal Estatu Sozialistaren eraikuntza ipar.

Hamaika izan dira bide horretan jarritako aurreneko adreiluak; formakuntza saioak edota muga lokalak gainditu dituzten auzolanak kasu. Lehen adreiluak, izaera kritikoa eta sakontasuna lantzeko; borroka komunitatea indartzeko; harreman eredu komunistak garatzeko; kultura sozialista berpizteko; langile instituzioak sortzeko. Funtsean, miseria kapitalistaren aurka, botere sozialista eratzeko behar eta betebeharrak

historikoari erantzuteko.

### BIZKARREZURRA SENDOTZEN

Loratze unean dauden langile kontrolpeko espazioetan ere mamitzen da behar hori; eta kapitalaren ofentsiben aurrean defendatzeko zein modu isolatuan etengabe agertzen diren mugak gainditzeko behararen forma ere hartzen du. Eta ispilua alde batek beharra islatzen duenean, erantzuna islatzen du ispilua beste aldeak, parez pare. Erantzuna, antolakuntza. 2019ko martxoan jaio zen Erraki Gune Auto-gestionatuen Babes Sarea, hain zuzen, espazio horiek “krisialdi kapitalistatik,



## “Garaipena, airean amesten den zera urrun hori baino, erantzun kolektiboz langileriaren premiak hemen eta orain eskuratzea dela.”

legedi burgesaren funtzioetatik, edota etsaiaren oldarraldietatik babesteko premiari erantzuteko”. Zehazki, horretarako “gaitasunak eta baliabideak” eskaintzea izan du jomuga.

Jabetzaren auzia, eta gure kasuan, “jabetza ezarena”, etengabe erreproduzitzen den problematika baita egunerokoan. Hala, “burgesiak botere inplizituz kontrolatzen dituen espazioak berreskuratzea hartu du helburutzat Errakik; “abstraktuki onartzen zaiguna, erreal bihurtzea”. “Jabetza berreskuratzea”. Birjabetze prozesua egikaritzeko, baina, ezinbestekotzat jo dute ezinbestean etorriko den Kapitalaren erreakzioetik babesteko mekanismo eraginkorrak martxan jartzea. Aurten, Erresistentzia Kutxa Nazionala izan da horretarako heldulekuetako bat.

Isun zein bestelako kolpe ekonomiko izan nahi gaituzten honetan, “jardun politikoa aurrera eraman ahal izateko hauspoa” da Erresistentzia Kutxa. “Inpo-

tentziaren aurrean, potentzia”. Ezinaren aurrean, gaitasuna. Boletoz boleto, jaialdiz jaialdi eta saretzez saretze, etengabeko erasopean dauden gune horien erresistentziarako gaitasuna indartzen eta gorpuzten ari da Erraki. Klase elkartasuna ardatz, gero eta amaraun sendoagoa osatzeko lan etengabea. Lana eginaz goaz aurrera, kate horretan denok batera, gogorki loturik gaude. Bizkarrezurra, sendo.

### LANGILE AUTODEFENTSAN, GUZTIAK BAT

Eta makinaria kapitalistak egunez egun hedatzen duen oldarraldiak hamaika forma hartzen ditu, langile kontrolpeko espazioetan, zein burgesiaren kontrolpekoetan. Erasoen modura, baina, beste hamaika aurpegi hartzen ditu langile autodefentsak ere. Unibertsitateak zein bestelako lantokiak gudu zelai dira. Erraki bezala, 2019ko martxoan sortu zen Unibertsitateko Indar Bata-suna, UIB; indarrak batuz, gaitasunak







biderkatzeko. Unibertsitateetako langile sektore desberdinen borrokei heltea eta autodefentsa antolatzea izan du helburu, elkartasuna oinarri. Ikasleen, irakasleen, ikerlarien edota garbitzaileen aterki eta arma bilakatu nahi du UIBk; orotariko zapalkuntzak barnebiltzen dituen unibertsitatean, modu bateratuan eta eraginkorrean jarduteko. Horren isla da ikasturte hasieran aurkeztutako programa politikoa. Aurreneko garaipena ere badu esku artean jada; EHUk, ikasleen ebaluazio irizpideen barruan, 12.2 artikulua aurkako borroka abiatu eta irabazi zuen. Elkartasuna eta autodefentsa antolatuz, saria.

Ez da bide beretik iritsitako garaipen bakarra izan. Kamerak Eunaten, ebaluazio irizpideak Arrasaten, ostalariei ordaindu beharreko soldatak Iruñerrian... Garaipena, airean amesten den zera urrun hori baino, erantzun kolektiboz langileria premiak hemen eta orain eskuratzea dela erakutsi dute Langile Autodefentsa Sareek. “Isolamenduak

langileak ahultzen ditu, eta nagusien zatitze saiakerei era kolektiboan erantzun behar diegu”, zioten, irakaspen gisa, Iruñerriko LASeko kideek. Baztan eta Sotiko tabernetako nagusien mehatxuen aurrean, mobilizazioa eta salaketa publikoa. 300 lagun ostatu baten aurrean, langileei zor zaiena ordaintzeko. Beldurra bandoz aldatuta, azkenean.

#### **ERRAINU SOZIALISTA, IRAULTZAREN SUGARRA**

Forma ugari har ditzake, gu azpiratu asmoz, etengabe oinkatzen gaituen makina konplexuak, baina baita haren aurkako erresistentziak ere: kutxa ekonomikoak, saretzeak, mobilizazioak... Funtsean, antolakuntza. Guztietan, baina, ezinbestekoa militanteen eguneroko lana da. Txinaurria lotzen da egunetik lanari, eta lan filosofia sozialista horren erakusgarri izan zen Euskal Herriko Gazte Sozialisten Topagunea. 2019ko ekainean, Gazte Koordinadora Sozialistak eta Ikasle Abertzaleak deituta,

**“Erdigunean: langile kultura gorpuztea. Lan egunak, formakuntza, borroka komunitatearen sendotzea. Ez gehiago; baina ezta gutxiago ere.”**

ehunka gazte elkartu ziren Azpeitian (Gipuzkoa), iraultzaren sugarra hauspotzeko, eta aurtengo joan-etorrietan barrena indartu den prozesu sozialistari bultzada emateko. Erdigunean: langile kultura gorpuztea. Lan egunak, formakuntza, borroka komunitatearen sendotzea. Ez gehiago; baina ezta gutxiago ere. Topagune kontzeptu berri bat, Kriariaren Seme-Alabak Sare Sozialistak birjabetutako Esklabak eraikinak leku eman ziona, estreinakoz.

Hala, lau egunetan zehar, lan egunek izan zuten zentralitatea; militanteen lan etengabe eta diziplinatuak. “Indar desberdinak antolatuz, gure jardunaren potentzia biderkatzea” bilatu zuten, beste behin. Hala, Azpeitiko hamaika proiektu indartu zituzten guztien artean, tokian tokiko mugak gaindituz, eta urte osoan pixkanaka ernaldutako lan filosofiar jarraiki. Lehenago ere auzolan egunak eginak baitzituzten hamaika txokotan, eta horri esker, Topagunean ikusi ahal izan zen ibilbideak “eskala handiagoan lana egin ahal izateko eta antolatzeko gaitasuna” eman diela gazteei. Indarrak biderkatzeko ahalmena eta grina, norantza guztietan. Jauzi kualetatibo bat, jakintza kolektiboan. Eginez ezagutzea, eta ezagutuz aldatzea. Eta indarrak ongi errotuz, gure sustriak lurrari lotuz, bertatikan irautea.

Bazuten zer ospatua ehunka militanteek: lau egunetan Azpeitian egindako lana; urte osoko lana, urte osoan ereindako fruituak; jasotakoak. Baita ospatu ere. Topaguneko azken gauean, nekez eta ilusioz gainezka zeuden gazteek bat egin zuten berriz; borrokak batu dituen militanteek, elkar harturik ospatu zuten egunegun, hilabetez hilabete, erraie-tatik biziarazi duten sugarra. Borroka-eren sugarra. Itzaliko ez dena.

Bestalde, formakuntzan sakontzeko; ulkerak partekatzeko; erronkak elkarrekin behatzeko aukera ere izan zen. Aretoa goraino bete zen Topaguneko hitzaldietan: gaztez, begi-belarri

ernez, galderaz, erantzunez, jakinminez, irmotasunez. Gordinkeriaz; gordina baita parez pare dugun errealtatea. Baina hari adarretatik heltzeko determinazioz, Euskal Herriko ziklo politiko berriaz jardun zuten gazteek; jarraikotasunez, hausturez. Ausardiaz. Ardura historikoaz.

Agortzetik urrun, ziklo politiko berri batean murgildu garelako ebatzi zuten Ikasle Abertzaleak ere, aurtengandako kongresuan; VII. Kongresuan. 2018ko irailean jarri zuten martxan hausnarketa ikasle antolakundeko ehunka militanteek, eta 2019ko apirilean plazaratu zituzten ondorioak.

## “Euskal Eskola Nazionala argiztatze-ko bide bat, Errainu sozialistaren babesean.”



Errainu ponentzia izan zen emaitza, “itxaropenaren argi errainu bat” langile belaunaldi berrientzat burgesiak presaturiko “etorkizun beltz eta ilunean”. Euskal Eskola Nazionala argiztatzeko bide bat, Errainu sozialistaren babesean. Bide bat, liluraren kontra: “Euskal langileriaren mesedera antolatutako hezkuntza sistema, soilik euskal langileriaren mesedera egituratutako gizartean izango da posible”.

Ziklo politiko berri bat, aurreko oldaraldi eta borrokaldietatik eratorria eta sortua. “Proletalgoak bere kateak hausteko” historikoki egindako borroka bakoitzaren oinordekotzan berretsi zi-

ren Ikasle Abertzaleakeko kideak; esperientzia historiko bakoitzetik irakaspenak zedarrizteko konpromisoa ardatz. Badugu zer ikasi, badugu zer marraztu, badugu zer sortu. Badugu zer irauli.

### ZUK HORTIK TIRA, NIK HEMENDIK...

Oinatz horiek lurlean margotzea, ordea, ez da inoiz zeregin samurra izango. Askotariko hegiak ditu prozesu sozialistak; haren aurkako ekinak bezainbeste. 2019. urtean ere orotariko formak hartu ditu mugimendu sozialistaren aurkako eginbide bizi-biziak; tapitua izan da sarrri, gardena beste askotan.

Gardena bezain iluna izan da, azken hilabeteetan ere, zenbaezinak diren militanteek jasan behar izan duten jazarpen polizial itogarria; bulego ezkutuetan ebatzia eta agindua. Jarraipenak, mehatxuak, izua hedatzeko hautua. Lan militantea geldiarazteko beharra, baina ez kide bakoitzarena soilik; baita horrek guztiak tokian toki erdietsi dezakeen adierazpen oro balaztatzeko premia ere. Horren isla, langile kontrolpeko espazioek bizi duten arrisku eta ofentsiba etengabea; auzibide judizial forman, desalojo forman, orotariko atzapardun eraso forman.

Mugimendu sozialistaren aurkako ofentsiba, bestalde, gero eta ikusgarriago diren maskaren atzean ikusi dugu 2019an ere. Umore “kaltegabez” mozorrotuta agertu zaigu batzuetan, sistematikoki, gorrotoz erazi eta zokoratutako kartel eta aldarri modura bestetan, edota ke eta sugar artean lurrundutako pankarta modura, noiz edo noiz. Baita, behinola imajinaezinak ziren zentzu, aliantza eta trikimailuetara joz egindako eraso eta lapurreta modura ere. Azpiegitura lapurretak; autodefentsaren zilegitasunaren lapurreta saiakerak; egunez egun lanean jarraitzeko gaitasuna eta gogoia lapurtzeko saiakerak. Kolpeak izanagatik ere, prozesu sozialista geldiarazi ezingo dutenak. Atzera bueltarik ez da.

### DATORRENAREN ATARIAN

Atzera bueltarik ez da historiaren atzera-kontuan. Atzerapausorik ez bide-orri sozialistan. Eta atzera diote iluntasuna apurtzen duten gedarrek, bat eta bakarra dela hautua eta muga. Aurreko hamabihilekoan, lan militantez, borroka ehundu dute zenbaezinak diren esku, garun, bihotz eta haginek; erlojuaren aurka, maitasunez eta herratik. Ikustear dago zer ekarriko duen 2020. urteak. /





**IKUSPUNTUA**

Aitor Bizkarra

# Edozein kasutan, olinpotik jaitz daitezela poetak



*“Señoras y señores  
Ésta es nuestra última  
palabra. --Nuestra  
primera y última  
palabra-- Los poetas  
bajaron del Olimpo.”*

**NICANOR PARRA**  
MANIFIESTO

**K**ultur mundutik nator. “Kultura” esaten dioten toki apartatu eta olinpiko horretatik, alegia. Bai, Nicanor, gogo sutsuz entseatu zinen poetak olinpotik jaits zitezen, zu, izan denik poeta prosaikoena. Nolabait ere, kultur mundu, kultur esparru, kultur arlo... esateak denok konpartitzen ez dugun toki bati buruz mintzo garela adierazten baitu: toki bat da eta batzuk badaude eta beste batzuk ez daude edo onartzen dira batzuk eta bestetzuk kanporatzen. Honela, gizartearen topografia irudikatu baten bitartez gure tokia zein den hautematen dugu, edo ematen diogu behintzat tankera moduko bat. Nire tokia kultura da, zurea politika, ekonomia urliarena eta berendiarena besterik gabe kale gorria. Gisa honetako lekutasunak egozten dizkiegu, oharkabea, zehazki zer diren ondo ez dakigun balizko esparru haueri. Ez hainbeste, uste dudanez,

toki fisiko bat direla pentsatzen dugulako (adibidez politika toki bat dela altuan esan ezazu eta ohar-tuko zara disparte bat dela entzuten ari zarena), elkarrengandik bereizita pentsatzen ditugulako edo pentsatu eragiten dizkigutelako baino. “Ni kulturatik nator” esaten dudanean, zelan edo halan, “ni ez nator ekonomiatik” edo “ni ez nator politikatik” esaten ariko banintz bezala da, baiesten ariko banintz bezala: “ekonomia ez dago kulturean”, “politika ez dago ekonomian”, “kultura ez dago kale gorrian”...

Beraz, kultura zer den oraindik esan ez dugun honetan, jakin badakigu, nolabait, era autonomoan pentsatzen dugula, edo independenteki, behintzat. Independentzia kontzeptu negatiboa da, zerbait zer ez den adierazten duena, kasu honetan dependientea. Autonomia, berriz, kontzeptu positiboa da, zerbait efektiboki zer den dioena, bere buruaren lege dena, bere buruaren kausa, bere autoerreprodukzioaren printzipioa bere kautan daramana, kasu. Era deskriptiboan erabiltzen dugu “kultura”, modu hertsian ulertuta ekoizpen artistikoaren eta bizitza intelektualaren eta akaso espiritualaren berri ematerakoan, hain eduki eskuragarri eta positiboa duela iruditzen zaigu, kulturak, ezen ez baitugu pentsatu ere egiten kontzeptua bera problematikoa izan litekeenik. Baina, bere adieren historiari gainbegira jartzea besterik ez da behar izaten kontraesankorrek diren mezuen edukiontzi izan dela eta badela egun ere oharrezko, kultura. Kontzeptu bat ez baita ezer bere historia eta bere gaurkotasuna baino. Kontzeptu baten historia ez delako ezer ezpada beharrezko egiten duten arazoan edo auzi problematikoen historia, non, historia horren azken puntu aktuala bere gaurkotasuna den, eta ondorioz, auzi problematikoa aktuala.

Arteak bere burua autonomoki erreproduzitzen eta berritzen duen ideia aski ohikoa izaten da, ekoizpen mota berezi hau harreman sozialetatik erauzia dagoelako ustea. Hala ere, garai historiko bakoitzak muga eta presio jakin batzuk ezartzen dizkio ekoizpen artistikoari, ekoizpen sozialaren antolaketak historiari egiten dion bergauza. Arte ekoizpenerako bitartekoen garapen teknikoaren maila, adibidez, muga bat izan liteke. Esate baterako, zinematografoaren agerpena baino lehen pentsaezina zen masek, potentzialki behintzat, aldi berean eta toki guztietan kontsumi zezaketen artefaktu kulturalik bazitekeenik; fotografiak, halaber, gizartea modaren erritmora barrutik eraldatzea ahalbidetu zuen, besteak beste, Benjaminek ohartarazi gintuen bezalaxe. Produkzio artistikoa beti ematen da testuinguru sozial bizi batean, beraz. Irudi batekin azaltzea zilegi izan bekit:

**“Ni kulturatik nator” esaten dudanean, zelan edo halan, “ni ez nator ekonomiatik” edo “ni ez nator politikatik” esaten ariko banintz bezala da, baiesten ariko banintz bezala: “ekonomia ez dago kulturatan”, “politika ez dago ekonomian”, “kultura ez dago kale gorrian.””**

arteak ez du bere buruaren ugalketa asexuatua egiten partenogenesi bidez, eta egingo balu, ez liraterke arte espresio berriak sortuko, epigonoak baino.

Kulturaz hitzegitera nator. Arestian esan bezala, kultura zer ote den, adiera eta erabilera aski ezberdinak aurki litezke. Esaterako, kultura artea dela dioen iritzi hedatuari, gainera artea bere testuinguru sozialek erazutita bezala aurkezten duen iritzi hedatuari, “positibismo kulturala” esan dakiok. Ikuspegi honetatik, arte ekoizpenaren aukeraketa entziklopediko-antologiko bat litzateke kultura, elkarren artean eta errealtate sozialarekin inongo loturarik ez luketen jazoeren bilduma apainduria handidun bat. Baina, badirudi kultur aldizkari eta abarretan (ikus, “Alaia”, gipuzkoan murgiltzeko kultur aldizkaria, kar, kar.) interes handirik pizten ez duena kultura bizia dela, bizion kultura, bizi garen era bera dena, emanak zaizkigun baldintza materialeri ematen diegun forma espresiboa, harremantzeko daukagun era, gure arteko nexu sozialaren nolakotasuna, pentsatzeko eta ekiteko, kontzienteki ala ez, erabiltzen ditugun jarraibide eta erregelak, ohiturak, folkorea zentzu zabalean... Kulturaren adiera praktikiko-sozial hau da nik erabiliko dudana, erabilgarriena zaidana. Zentzu honetan, kasik gehiago interesatzen zait artearen harreraren edo errezeptzioaren gaia bere barne-analisia baino. Ez dakit masentzat ekoizten den entretenimenduak, literatura komertzialak eta abarrek zenbaterainoko balio artistikoa izango duten, baina kulturaren historiaren ikuspegitik, (Gramsci-k, kartzelako koadernoetan, “zer da interesantea artean?” galderari erantzun nahi izan zionean azpimarratu zuen moduan), berebiziko garrantzia dute, lehen mailakoa, sasoiari sasoi jendetza

isilarengan nagusitzen diren sentimendu eta munduaren kontzeptzioak aztertzearen ikuspegitik.

Baina, beno, hastapenetik has gaituzen atzera. Kulturaz hitzegitera baldin banator eta testu hau kulturaz hitzegitera natorrela dioen aurkezpenera baldin bada, kulturaz hitzegitea zeri esaten diodan aurkeztu beharko dut, eta kito. Orokorrean aipatuta, lau izango dira landuko ditudan gaiak, zentralak iruditzen zaizkidan lau arazotan ardatzuta. Lehendabizikoa, eta testu honetan gainera aipatu bezala, kontzeptuaren beraren historia edo garraiatzen dituen eta garraiatu izan dituen auzi problematikoen historia lantzea dagokidala esango nuke, kontzeptuaren balioiztasunaren jatorria; ahalaren neurria, bestela ezin denez. Bigarrenik, menderakuntza kulturalaz, edo, nahi bada, menderakuntzaren aspektu kulturalaz eta proletargoaren bat-bateko kulturaz, edo, berriz diot nahi bada, bere kultura espontaneoaz nahiko nuke jardun. Esan nahi baita: hegemoniaz eta kontzientzia forma burgesez, eta horiek proletargoarengan tentsio eta erresistentzia gutxi-gehiegorekin gorpuzten diren eraz. Hirugarrenik, eta bereziki, antolatzearen kulturaz, antolatzearen auziak duen garrantzia kultural zentralaz arituko naiz, eta hau, erreakzio bide legez, bitarteko edo tresna legez, printzipio modura ala balio kultural bezala ulertu eta praktikatzearen ezberdintasun eta inplikazioez. Azkenik, heldu nahiko nioke kulturaren antolakuntzari edo kultura berri bat antolatzearen auziari, bai bizi-formen zentzuan eta baita produkzio artistikoarenean ere. Badakit, anbizio handiko edo asko nahiko proposamena dirudiela ikuspuntu atal baterako, baina, lanerako hipotesiak besterik ez dira, kolektiboki egokitu eta garatu beharrekoak, kolekti-

boki eta batez ere eguneroko praktika politikoarekin harreman hertsian.

Kultura egitera gatoz. Ez dut ukatuko langile kazeta honetan ikuspuntua idaztea proposatu zidatenean sentitu nuen pozaren tamainaren handia. Pentsatu nuen langile izaera daukan kazeta batean soilik idatz nezakeela kulturaz lasai eta gustora, iruditzen baitzait bizi dugun munduaren dekadentzia kulturala (nahiz eta kultura dominantearen hegemonia zalantzazkoa izatetik urruti dagoela pentsatzen dudan) desafiatuko duten indarrak langile klasearen antolaketa politiko independentea dutela jatorri. Izan behar dutela halabeharrez. Hau argudiatzera nator. Eta, edozein kasutan, jaits daitezela Olinpo menditik poetak. /

*“El pequeño burgués no reacciona. Sino cuando se trata del estómago. ¡Qué lo van a asustar con poesías!”*

**NICANOR PARRA**  
MANIFIESTO

KOIUNTURA

Markel Samaniego

# Lunpen proletalgoa, etika proletarioa, militantzia komunista

**GURE ARDURAPEAN  
JAUSTEN DA  
EGUNEROKOAN  
ERAIKI NAHI DITUGUN  
HARREMAN SOZIAL  
BERRIEN BITARTEKARITZA  
GARATUKO DUEN  
ETIKA PROLETARIOA  
EZAUGARRITZEN  
HASTEAN, LAGUNAREN  
ETA ETSAIAREN ARTEKO  
EZBERDINTASUNEAN  
GEURE BURUA HEZIZ**

*“Egiazko zientzia, hortaz, ez da ekonomia politikoa. Egiazko zientzia iraultza da.”*

**LUCIO COLLETTI**

**E**ginbehar historikoak berak eskainiriko baldintzen aukeretan jardutea inplikatzan du, baina eraginkortasunez. Krisi orokortuaren testuinguruan, sistema kapitalistaren krisia aztertzeko eginbeharra aurkezten zaigu, emana zaigun testuinguruaren ebaluazioa garatuz, kapitalaren barrunbeetan kristala bagina bezala barneratzeko, pixkanaka ezaugarritzen ari garen politika proletarioaren bitartez.

Aricó-k ongi ohartarazten gaitu “praktika politikoak errealitateak galdegiten duenetik abiatuko den marko teoriko marxistaren berreraikuntzak behar du izan”. Eta errealitateak erantzuna exijitzen du, berehalakotasuna inplikatzan, analisi metodo egokia eta gauzatu nahi dugun gizartearen araberako ikuspuntua. Begirada proletarioa, alegia.

Hala ere, potentzian gu geu parte garen subjektuak, forma zein fronte ezberdinetan adierazten denak, gure egunerokoan eragiten duten eta beraz zuzenean hautematen ditugun gainazaleko arazoaren itxura hartu arren eta, beraz, gure egunerokoaren parte izanik ere identifikatzeko zailak suertatzen zaizkigun determinazioak barnebiltzen ditu. Egoera honetan, abstrakzio zientifikorako ditugun zailtasunek zein atzerapen teorikoez, joko zelai politikoan ezgaitasunak eragiten dizkigute, mota ezberdinetako desbideraketetan erortzen garelarik.

Antzeko zerbait gertatzen da zehazki luppen proletalgoarekin. Marx eta Engelsek 1847-48an adierazten duten bezala, luppen proletalga: “(...) gizarte zaharraren kapa baxuenen usteltzearen produktu pasiboa (da), iraultza proletario batek mugimendura erakarri ahal duen estratua, baina, hala ere, bere bizi baldintzak direla medio eta bere manobren zerbitzuetara, erreakziora saltzeko prest dagoena”.

Ezin baitaiteke uka harridura eragiten duela klase estratu honek esperientzia ezberdinetan etenik gabe gauza-

tu dituen proletalga komunistarekiko traizioak.

Dela gutxi gizartearen lunpenizazioaz hitz egiten zuen kide batek, segmentu sozial honen oinarriko ezaugarriari erreparatuz: izapide etikoen gabezia. Eta arrazoirik ez zitzaion falta.

Izan ere, kapital aldagarri moduan, proletarioen bizitza dinamika gidatzen zuten kode etiko guztiak (errentaren kolektibizazioa familia proletarioetan, mesedeak eta errekaduak, elkar laguntza, laguntasuna orokorrean...) desaktibatua izaten ari diren honetan, luppen proletalga ez du inondik ere kode komunitarioei buruz ulertzen.

Hau honela gertatzen da ekoizpen eredu kapitalistari berezkoa zaion lan postuen suntsiketa gradualak, narkotrafikoa bezalako merkatu isilak ahalbidetzen dituelako. Are gehiago: drogen trafikoa, emakume eta umeen salerosketa, prostituzioa, “karterismoa”, iruzur antolatua, krimen antolatua edota makina jokoa, askoren artean, bilakatu ohi dira sektore proletarioek zein proletarizazio prozesu progresiboan dauden sektoreek hautatzen dituzten bizi-iturriak.

Lan indarraren salerosketaz haratago, lagunen zein ahaideen salmentaraino iristen diren subjektibitateak orokortzen dira langile geruza honetan. Muturreko egoera miserable hau, bada, prozesu metaboliko sozialetik ematen den langile masen kanporaketa graduala medio ematen da, drogazaletasunak zein akumulazio izpirituak barreiatuak.

Honek, noski, ikaragarriko dimentsioak hartzen ditu termino politikoetara itzultzen badugu. Izan ere, azken ziklo politikotik arrastaka daramatzagun inertzia burges txikiak, bakuninismoa bezalako korrante politikoez, humanismo ezberdinek, etab. sektore proletarioak eta luppenproletarioak nahastera (biak ezberdintzen dituen hari fina antzematea zaila baita), berauek potentzialki iraultzaileenak bezala ulertzera,

**“Drogen trafikoa, emakume eta umeen salerosketa, prostituzioa, karterismoa, iruzur antolatua, krimen antolatua edota makina jokoa, askoren artean, bilakatu ohi dira sektore proletarioek zein proletarizazio prozesuan daudenek hautatzen dituzten bizi-iturri eta bizi-ohiturak. ”**

zein haiekin lana egiten saiatzera (auzi moralengatik, penagatik...) eramaten gaituzte, lunpenproletarioek klase lanabesak direnak haien interesak asetzeko baliatzen dituzten bitartean, poliziari kolaborazio bidez saltzen gaituztelarik edota kasurik okerreanean txibateoz.

Eta hau guztia ekoizpen eredu sozial kapitalistaren tendentzia historikoen proletalgoaren miseriaren larriagotzearen joera eta lunpenizazioa epe motz,ertain eta luzean gertakari aurreikusgarri moduan erakusten dituzten testu guru batean.

Honek guztiak gure proiektu politikoarentzat inplikatzeko dituen arriskuak kalkulatzeko zailak dira. Langile klasearen baitan indar handiz ereiten ari den profil subjektibo hau baita, hain zuzen ere, hortzak gogor estuturik borrokatu behar duguna; beraz baita gutxienez Luis Bonaparteren kontrairaultza garaitik, langile aristokraziarekin batera potentzialki faxismoaren oinarri sozial pisutsuena eratu duena.

Lunpen proletalgoa gaur-gaurkoz (historikoki izan den moduan), potentzian, bloke burgesaren parte da, bere forma erreazionario zehatzetan. Proletariook, beraz, ezin diogu utzi miseriaren fetitxismoari gure kontzientziak limurtzen. Milioika familia proletario

dira, miseria material eta espiritualeko baldintzek egunerokoan zigortuak (gradu ezberdinetan izanagatik) eta ez da existitzen, inondik ere, komunismoaren proiektuarekiko traizioa justifikatzen duen inongo motatako argudiorik.

Proletargoaren oinarritzko atazen funtsezko zati da beraz, praktikaren bidez, ongia egitearen eta gaizki egitearen arteko bereizketaren esanahia eraikitzea, beharrezkoa eta egokia denaren edota ezinbestekoaren eta hautsezina denaren artean ezberdintzen jakitea, ariketa hau gogorra bezain ikaragarria izanagatik. Gure ardurapean jausten da egunerokoan eraiki nahi ditugun harreman sozial berrien bitartekaritza garatuko duen etika proletarioa ezaugarritzen hastea, lagunaren eta etsaiaren arteko ezberdintasunean geure burua heziz.

Euskal iraultza sozialistaren alde lerratu garenon gain dagoen ardura dugu hau, politika proletarioa ezaugarritzearen eginkizuna berebizikoa baitugu, datozen urteetan zehar ematen ditugun pausoen arabera izango baita emandako pauso hauek, biharkoan gure aurka ez itzultzea, etika burgesaren aitzindaritzan erori izanaren erruz. /



**IKUSPUNTUA**

Amets Sarasua

# Prostituzioaz

**Prostituzioaz ariko naiz, urte honetako mugimendu feministako gertakari bat azpimarratu behar banu, prostituzioaren eztabaidak izandako hedapena hautatuko nukeelako. Aldez aurretik abisatzen dizut, gaiaren inguruko irakurketa osatu baten bila bazabiltza, ez zara toki aproposera iritsi, hobe duzu sareko beste txoko batzuetan arakatu. Ikuspuntu honetan, handik eta hemendik elikatutako hausnarketatxo bat besterik ez duzu topatuko: eztabaidaren zabalpenaren zergatiei zein ohiko galdera pare bati heltzeko asmoa duten ohar batzuk.**

**B**at-batean hartu ditu plazak eztabaida honek. Ez da ezerezetik jaio, noski, jada ezarria zegoen eztabaida honen zimendua. “Zaharrak berri” esaten da geure herrian, eta prostituzioaren eztabaidan ere, betiko aldarrien defentsa eraberritua besterik ez dugu entzun orain arte. Feministek eztabaida honen beharra sumatzen dute, motibazioa gailentzen da hausnarketa irekitzen den bakoitzean. Baina, zergatik? Segidan aipatuko ditugun hiru puntuak, kapital metaketaren birfundazio garai honetan prostituzioak bizi duen onespeneraren arrazoiak azaltzeko nahikoa ez badira ere, Euskal Herriko Mugimendu Feministan behar horren gauzapena nola ageri zaigun ulertzeko baliaigarriak izango zaizkigu.

Jeloskortasuna: prostituzioaren aurkako argudioek agente batzuegan eraturako beldurra. Bistan da sortutako zalapartak asko duela jarrera horren indartzearen erreakziotik, Mugimendu Feministaren kontrola galdu nahi ez izatetik, lidergoa arriskuan ikusteak sortzen duen urduritasunetik; quién manda aquítik.

Morboa: prostituzioak transen zein emakumeon sexualitatea askatzeko balio duen fantasiak sortzen duen erakarpina. Militantzia esparru batzuen erdigunean sexua jartzearekin nahikoa ez eta, orain, militantzia bera sexualizatu da. Militatzen da transgresore izateko, ausardiak eskaintzen duen erotismoa bilatzeko. Gezurra dirudien arren, elementu hori garrantzitsua da prostituzioaren eztabaidak izandako hedapena ulertzeko: kitzikatu egiten baikaitu prostituzioaren bidez geure sexualitatearen kontrola eskuratzearrekin fantaseatzeak. Baina, ez ditzagun geure buruak engainatu; izan gaitezen zintzoak. Zerk ki-

tzikatzen gaitu, geure burua prostituitzeko aukerak ala soilik hurkoa prostituitzearen ideiak?

Premia: prostituzioaren menpe dagoen gehiengo zabal horrek bere pertsonaren gainean duen agintea eskuratzek daukan urgentzia. Gatibutza hori forma ezberdinetan ematen bada ere, guztiek dituzte elementu komun batzuk: izan trata bidezkoan, etsipen ekonomikoagatik egiten denean edo “borondatezko” prostituzioan, denetan jartzen baita geure sexualitatea arrotza zaigun interes baten menpe. Are gehiago, nagusi den prostituzioaren forman, premia larria daukagu emakume horiek duten zaurgarritasun guzti horrekin bukatzeko. Ez dezagun ahaztu, emakumeek beren sexualitatea trukatu baino, emakumeon subordinazio sexuala trukatzeko duten gure etxe azpietako prostituzio-etxeetan orgasmoa zerk sortzen duen.

Dagoeneko asmatuko zenuen aipaturako zergatien artean zein babesten saiatuko naizen. Hemen pare bat argudio:

Askok galdetzen digute: “lan-indarraren salmentarekin osoki bukatu nahi baduzue, zergatik daukazu presa hori prostituzioarekin bukatzeko eta ez gainerako lanpostuekin?”. Inoiz halakorik entzun baduzu, dagoeneko konturatuko zinen galdera hori egin ohi dutenek ez dutela zergatia ezagutzeko inolako jakin-minik izaten. Itaun horren helburu bakarra, prostituzioarekiko itsukeria kontserbado-rea daukagula leporatzea izaten bada ere, “galdera” hori izurritea balitz bezala barreiatzen ari denez, erantzun bat emateko beharrean gaude.



**“Are gehiago, nagusi den prostituzioaren forman, premia larria daukagu emakume horiek duten zaurgarritasun guzti horrekin bukatzeko. Ez dezagun ahaztu, emakumeek haien sexualitatea trukatu baino, emakumeon subordinazio sexuala trukutzen duten gure etxe azpitako prostituzio-etxeetan orgasmoa zerk sortzen duen.”**

Prostituzioarekin bukatzeko daukagun premia ulertereko, argi izan behar dugu, auzia ez dela lanbide hau beste batzuk baino presa handiagoz askatu nahi dugula merkatutik, prostituzioa berarekin bukatu nahi dugula baizik. Zenbaitetan, jardutera bultzatzen gaituena esparru horietako gaitasunak logika kapitalistatik azkartasunez ateratzeak duen zentzu estrategikoa bada ere (adibidez, elikadura gaitasuna eskuratzeak sozialismoaren eraikuntzari eskaintzen dion aukera), kasu honetan, ekitera bultzatzen gaituena prostituzioak logika proletarioaren baitan duen zentzugabetasuna da. Edo, lanaren antolaketan sozialista batean, arrotzak zaizkigun desio sexualak asetzea izango al da banatuko dugun zeregin bat?

Honako galdera hau ere ohikoa izaten da: “langile borrokaren alde bazaudete, zergatik egiten duzue prostituten sindikatuaren aurka?”. Prostituzioa deuseztatzeko jarrera irmoa izateak baina, ezin gaitu postura idealista batera bultzatu, onartzea garra-tza den arren, adierazpen horrekin ez baitugu egun batetik bestera bukatzea lortuko. Argi dago sozialismoaren eraikuntzaren koordinadetan kokatzen den prostituzioaren aurkako jarrera batek ezingo duela agenda berbera eduki Euskal Herrian edo Ukrainian. Hala ere, tokian toki zehaztutako bideorri oro prostitutek haien lan prozesuaren gainean duten kontrola handitzetik pasatu beharko da. Horrenbestean, prostitutak sindikatzea ezinbesteko bitartekoa izango da. Edonon egin beharko den bezala, berandu baino lehen, Ildo Sozialistatik ere zeregin horri ekin beharko diogu.

Arazoa sortzen da prostituten sindikatuaren aukera Otrasek hasi eta bukatzea ontzat ematen denean. Eztabaida, beraz, ez da sindikatua bai ala ez, ezpada, sindikatua prostituzioa betikotzeko edo berau deuseztatzeko eratu behar dugun. Otrasek argi du: prostituten egoera normalizatzeko eta horien bizi-baldintzak beste ogibide batzuetako emakume proletarioekin parekatzeko sortzen du sindikatua. Ildo Sozialistatik, ordea, gizarte antolamendu honetan, prostitutek betetzen duten zeregina sozializatzeko zein beren bizitzaren agintea eskuratzeko norabidean sustatu behar dugu prostituten antolakuntza.

Inork ez zien jaramonik egiten, eta urte bakar batean, itzalpetik fokura pasa dira prostitutak. Asaldura ez da nahikoa izan, orain ere inor gutxik baitu haien bizitzaren berri: zerk edo nork eraman dituen ogibide horretara, noiz hasi ziren, nondik datozen, non eta nola gauzatzen duten. Ez da iturri ofizialik

existitzen, ez dago erregistro formalik, eta egiten diren ikerketa gehienek ez dute fidagarritasun handirik ere izaten. Dakigun bakarra, prostituzioaren datuen inguruan dagoen nahastea da, paradoxikoki, burgesiaren zein feministen aldetik propio sustatua izan dena.

Segur aski, ez gara sekula prostituzioa noiz eta nola sortu zen ezagutzera iritsiko, eta emakumeak objektu sexual noiz bilakatu ginen jakiteak ihes egiten jarraituko digu. Ez dugu ikerketa antzuekin itsutu behar, baina emakumeon sexualitateak gaur egun betetzen duen funtzio sozialaren inguruko datuak behar ditugu: prostitutak nor diren, zer eta zergatik egiten duten ulertzeko, kasu. Mundu mailan antolatutako sare honetan, geure auzoetako prostituzio-etxeak zein funtzio betetzen duten konprenitzeko, eta batez ere, emakume horiek bizi duten egoeraren gaindipena ahalbidetuko digun agenda proletarioa egikaritzeko; proxeneten eskuetan preso dauden emakumeak askatzeko; beste behin, emakume bakar batek daukan karga erreproduktiboari aurre egiten eta bere burua prostituitzeko beharrik ez izateko; prostitutek dauzkaten lan-baldintza dohakabeei aurre egiteko; prostituta izateak dakarren estigma sozialarekin bukatzeko; haien ogibidean jasadako tratu-txar guztiek prostitutengan utzitako eraginak tratatzeko; emakumeoi geure burua sexualizatzea arrotza egiteko; gizon langileei putazale izatea eragozteko...

Kontuz ibili beharko gara, beraz, burgesiak diru asko eta langileok bizi gehiegi baititugu jokoan. /

A black and white portrait of a man with a beard and mustache, wearing a grey sweater. He is looking slightly to the right of the camera with a neutral expression. The background is a wall covered with various posters and notices. One prominent poster reads "ENDE x GELANDE! 14.-16.8.2015" and another below it says "KILLAGER STOPPEN! KLIMA SCHÜTZEN!".

**IKUSPUNTUA**

Martin Goitiandia

# Kontinuiismoa eta jarraikortasuna

**E**uskal Herriko Unibertsitateko errektorea den Nekane Balluerkak honakoa zioen 2016an bere hautagaitza aurkezteko egindako elkarrizketa batean: “Kontinuismoak ondo edo gaizki egin dena zalantzan jarri gabe, gauza bera egiten jarraitzeari egiten dio erreferentzia. Jarraikortasunak, aldiz, proiektu orokor baten baitan ondo egin dena, ondo egiten jarraituko dela adierazten du”.

2018-2021-eko EHUren plan estrategikoan euskal gizartearen zerbitzura egotearen betebeharra eta hainbat balore etiko aipatzen dira: euskara, berdintasuna, kritikotasuna, gizarte erantzukizuna... Baina, nahikoa da azken hilabeteetako jarduna aztertzearekin lehentasuna zein helburuk duten nabaritzeko: ikerketek eta nazioartekotzeak. Alde bateatik, uztailean Balluerkak berak aurkeztu zuen Bilbon “Euskal Unibertsitatearen nazioartekotzeko plana” eta bestetik, apirilean egindako elkarrizketa batean honakoa esan zuen errektoreak: “Unibertsitatea jakintza sortzen duena, ikertzen duena da, hori baino ez. Baliteke diskurtso erradikal samarra iruditzea, baina beti defendatu izan dut ikerkuntzak unibertsitate bateko gainontzeko helburuak hobetu eta ikusgarriago egiten duela berau, lokalki nahiz nazioartean”. Gainerako helburuak, berriz, itxurakeriarako proiektu hutsaletan geratzen dira; edukirik gabeko promesak, betetzen ez diren euskara planak, protokolo antzuak... Interesgarria da beraz, gure errektoreak “kontinuismo” delakoaren kritika zorrotza egitea. Izan ere, aurreko errektore zen Iñaki Goirizelaiak, postua utzi baino lehen, honela laburtu zituen bere zortzi urteak karguan: “Unibertsitate hau unibertsitate ikertzailea den ideia gizarteaz zabaltea lortu zuen errektore bezala gogora nazaten nahiko nuke (...), bere nazioartekotzean lagundu zuen errektore gisa”.

Adostasun berdina dute bi hauek beste hainbat gaietan: Finantzaioan – Goirizelaiarekin hasi zen Eusko Jaurilaritza “endowment” bezalakoek hitz egiten. Sei urte beranduago Nekane zera adierazi zuen: “EHUk aldaketa sozial eta ekonomikoetara egokitu beharra eta sektore pribatutik baliabide gehiago eskuratu beharra dauka, baldin eta aurrera egiten jarraitu nahi badu” –, unibertsitatearen ebaluazioan – Goirizelaiak 2016an: “Shangaiko rankingean eta Nazioarteko Bikaintasunaren Kanpusean sartzea, azken bi legegintzaldietako aitortza izatetik harago, aurretik egindako lan guztiaren aitortza izan da” zioen. Nekane, berriz, 2019an: “Shangaiko rankinga oso garrantzitsua da. Guk munduko 100 unibertsitate onenetatik 17rekin akordioak dauzkagu eta

hori mundu mailako unibertsitateen artean 300. eta 400. postuen artean gaudelako da posible, 20.000 unibertsitateen artean”-. Europar Goi Hezkuntza Esparrutik (EGHE) markatutako irizpideak betetzeko beharrean, tasen igoeran – aldaketarik gabeko epe baten ostean, aurreko berriz igotzen hasi baitira, 2010-2014 tartean Goirizelaiak egin bezala –, IRI1-en ezegonkortasunean – 800 irakasle elkartu baino gehiago – AZP2-en desoreketan – Goirizelaiak zioen “politika pertsonal egokia” ezin egin izanaz damutzen zela, “ (...) aurrez administrazio eta zerbitzuetako pertsonalarekin hitzartutako konpromisoekin erdizka gelditu gara”, gaur egun, 39.000 eurorainoko aldea dago soldatetan –, garbitzaileen baldintzetan – 2011tik soldatak izoztuak daude eta 2014tik hitzarmena negoziatzen dihardute – eta orain, aipatu ezin ditugun beste hainbat gaietan ere.

Nola da posible, azken hamarkadan, EHU-n aurrera eramandako politikak horren konstanteak izatea? Bada, azaldu ditudan ildo horiek, Europako beste edozein unibertsitateko azken hamar urtetako politikak deskribatzeko balio dutelako. Izan ere, Europa zein nazioarteko mailan politika jakin batzuk aplikatzeko adostasuna dago unibertsitatearen gaineko kontrola dutenen artean. Europako kasuan 1999ko

**“Unibertsitateko teknokrata guztientzat publikazioek nazioarteko ikusgarritasuna lortzea, rankingetan gora egitea eta Europako irizpideak betetzea helburu one-nak dira. Sistema honekin unibertsitateak burgesiak egotzitako funtzioak betetzen dituela bermatzen da.”**

Bolognako adierazpena da adostasun hau ordezkatzen duen dokumentu nagusienetako bat, egun 47 estatuk sinatua. Honek ezarri zuen, denok dakigun bezala, azken hamarkadako lege askoren oinarria; EU 2015/2020 edo 3+2 famatuak, adibidez. Bolognatik hona bizi dugun prozesuan bultzatutako neurriak aztertuz, erraz uler genezake noren interesetara zuzendua dagoen unibertsitatea eta ondorioz, nork duen unibertsitatearen gaineko kontrola.

Bolognako adierazpenean ezarritako lehen bi helburu nagusiak ECTS (Europar Kreditu Transferentzia Sistema) eta gradu sistema martxan jartzea izan ziren. Horiekin Europako lan indarra den merkantzia moldatu dute: mugikortasuna orokortu dute – kanpoan ikasi, ikertu eta lan egin –, espezializazioa bultzatu – graduondokoa enpresek behar duten arlo jakin bat lehenetsiz –, titulazio sistema homologagarria ezartzea lortu dute – langileen kualifikazio maila alderagarria izanik, hauek gehiago espezializatu eta edonon kontratatzeko aukera sortuz – edota lan diziplina txertatzea lortu dute – ordu gehiago eskaini berdina ikasteko, formakuntza duala, praktikak orokortu etab. –.

Bologna prozesuan zehar, IRI eta AZPen kontra-

tazioa malgutzen joan da, beste sektoreetako lan indarraren baldintzetara gerturatzeko: erretiroak azkartzea – 4.400 langileko plantillan 100 jubilazio urtean – erretiratutako langileen ordezkapena baldintza ezberdinetan ematea – kontratu laburragoak, lanaldi partzialak, oposizio bidezko kontratazioaren ordez, beste formula malguagoak erabiltzea etab. –, ikerketaren meritu aitortza igo eta irakaskuntzarena jaistea, departamentu zein administrazioak batzea, ikerlari berriak epe laburrerako kontratatzea, doktoretza zein post-doktoretza prozesuan daudenak munduko zoko ezberdinetara bidaltzea kurrikuluma apaintzera edota publikatutako artikuluen araberako finantzazioa indartzea dira prozesu horren adibide garbiak.

Azkenik, unibertsitatearen kontrolari dagokionean, unibertsitatearen funtzioa kapitalaren errentagarritasuna hauspotzea izango dela bermatzen duten neurriak aipatu genitzake: kanpo rankingen arabera ebaluatu – aipatutako ARWU edo Shangaiko rankinga –, kanpo-finantzazioari pisua eman, unibertsitatearen gobernu organotan kanpo eragileak sartu – EHU-ren kasuan Gizarte Kontseiluan Euskal Enpresaburuen Konfederazioko ordezkariek – edo funtzio hori bermatzen duten planak diseinatu –

Euskampus nazioarteko bikaintasun kanpua, In-nobasque, RIS3 Euskadi estrategia, ZTBP-Euskadi 2020, 2015-2018 unibertsitate plana, 2014-2020 Akitania-Euskadi euro-eskualdearen plan estrategikoa, Espainiako unibertsitateak nazioartekotzeko 2015-2020 estrategia, Goi Mailako Hezkuntza Nazioartekotzeko Europar Batasuneko Estrategia, Horizonte 2020 programa etab. –. Aipatu gabe geratzen dira, hala ere, gure unibertsitateetan aplikatzen ari diren beste mila aldaketa.

“Iraultza pedagogiko” gisa izendatu zuten Bolognako prozesu hau beraz, lan indarra eta indar produktiboaren hazkundera – ikerketa, grosso modo – burgesiaren interesetara subordinatzeko baino ez da izan. Izan ere, horiek dira lan indarra erosi eta ekoizpena euren esku daukatenak. Gure errektorea(k) beraz ez da(dira) bere horretan ulertu behar; EHU-ko erabakien atzetik Jaurlaritzaren unibertsitate planak daude (2019-2022), horien atzetik Espainiako legeak, horien atzetik EU 2020 bezalakoak, horien atzetik EGHE edo Bologna eta horien atzetik ZSAO3 edo MME4 bezalakoak. Hala ere, egitura bertikal konplexu honek ez du esan nahi “goitik” datozen agindu soilak direnik unibertsitatean pairatzen ditugun neurriak. Nazioarteko burgesiak eta burgesia lokalak azken finean, interes berberak dituzte eta horregatik jarduten dute aipatu ditugun neurri guztien bidez, unibertsitateari eurak nahi dituzten funtzioak egotziz. Aipatu dugun guztia, goitik datozen erreforma simple batzuen ulerkerara murrizten duenak ez du arazoaren funtsa antzeman. Gure errektoreak benetan sinesten du aurretik aipatu dudana guztia – eta gehiago – dela “proiektu orokor baten baitan ondo egin dena”. Berarentzat eta unibertsitateko gainerako teknokrata guztientzat publikazioek nazioarteko ikusgarritasuna lortzea, rankingetan gora egitea eta Europako irizpideak betetzea helburu onenak dira. Sistema honekin unibertsitateek burgesiak egotzitako funtzioak betetzen dituela bermatzen da.

Unibertsitatea burgesiaren interesetara egotetik, gure interesetara egotera igarotzea maila guztietan eman beharreko borroka bat da, burgesia osoaren interesa baita dagoen bezala mantentzea. Prozesu guzti hau gelditzeko, guk geuk, langile klaseko ikasle, IRI, AZP, garbitzaile edo dena delakoak antolatuz, unibertsitatearen kontrola irabazten joan behar dugu, Unibertsitateko Indar Batasuna (UIB) eta bere programa bezalako tresnen bitartez. Ikasketa prozesuaren kostua, ikerketaren norabidea, lan-baldintzen kontrola, unibertsitateko gobernantza, lan-

tzen diren edukiak, ematen diren erasoak... xehetasun txikienean ere hil ala biziko borrokan gaude burgesiarekin. Maila lokal zein globaleko burgesiak unibertsitatearen norabidearen inguruko adostasuna izateak, berau kapitalaren balioa handitzeko ezinbesteko tresna dela esan nahi du, burgesiaren biziraupenerako. Burgesiari beharrezkoa zaion harribitxi hau kendu behar diogu, beraz. Nik txikitatik barneratu dut etxean unibertsitatean jakintza sortu eta irakasten dutenekiko mirespena; jakintza eskuratzea existitu daitekeen ariketa aberasgarriena bat dela esan didate betidanik. Horregatik, ariketa hori ezin dugu kapitalaren atzaparretan utzi, langile klasearen behar intelektual zein materialak asetzera bideratu baizik. /

KOIUNTURA

Sabin Aranburu

# Bota dezagun demokrazia zerri askara

**ESTATU ESPAINOLEAN ETA EUSKAL HERRIAN BIZI DUGUN KOIUNTURAK GIZARTE BURGESAREN ZUTABEA DEN KONTZEPTU POLITIKO BATEN GORESPENA BERRAGERRARAZI ETA JOKO POLITIKOAREN MAHAI GAINEAN JARTZEA EKARRI DU. KONTZEPTU POLITIKO HAU DEMOKRAZIA DA. BLOKE POLITIKO-IDEOLOGIKO GUZTIETAN DA PROTAGONISTA DEMOKRAZIA, BAKOITZAK BERE ERARA AZALDU ARREN. ARGI DAGO PROZESU HAU EZ DELA EZEREZETIK SORTU: KRISI KAPITALISTATIK ERATORRITAKO TESTUINGURUAK SORTU DITU BALDINTZA MATERIAL OBJEKTIBO HAUEK.**

**K**risi hau munduko herrialde guztietan ematen ari den deskonfigurazio sozial bezala definitu genezake. Hau da, aurreko hamarkadetan langileria eta burgesiaren arteko klase borroka ekidin edo leuntzeko sorturik zegoen sintesia (Ongizate estatu gisa ezagutu duguna) apurtzen duen prozesu bezala. Sintesi apurketak eta klase borrokaren sakontze honek politika burgesari (Realpolitik-ean adierazten dena) dagokion egoera berri bat jarri du parez-pare: Krisiaren gestioaren garaia egokitu zaio burgesia eta bere ordezkari politikoei, honek dakartzan ziklo eze-gonkorrekin. Egoera honetan gobernagarritasun burgesaren krisia heldu dela esan dezakegu.

Gure herrialdean zentratutik, ezker abertzale ofizialaren partetik erreforma sozialaren aldeko hautua gauzatu duela. Independentzia sozialistatik urrun, demokrazia, bakea eta giza eskubideen aldarrikapen abstraktuak dira bide-orri berria. Honela, kapitalak inposaturiko status quoa bere horretan mantentzen duten proposamen orokorrak plazaratzen dira aldarrikapen horiekin, nahiz eta zenbaitetan itxura erradikala hartu. Ezin dugu baieztatu, hala ere, aurreko hamarkadetan ezker abertzaleak auzi demokratikoaren inguruan hitz egin ez duenik, baina egungo koiunturan eman zaio entzun handiena, bere estrategiaren

ren auzi garrantzitsuen delako erakutsiz. Badirudi, batzuen ustetan, Euskal Herriaren Independentzia eta Sozialismorako demokrazia dela bide bakarra.

Horiek horrela, demokrazia kontzeptuaren berrikuspina eta kritika egitea oinarritzkoa zaio dominazio kapitalista gainditu nahi duen espazio politiko orori, bai etsaiaren dominazio formak seinatzeko baita bloke politiko-ideologiko sozialdemokrataren izaera erreformista nabarmentzeko ere.

Demokraziaren kontzeptu modernoak burgesiaren gailentze politiko garaietatik aurrera hedatu zen, “modernizazio” prozesua bizi izan zuten herrialde guztietan. Burgesiaren botere ekonomikoarekin kontsonantzian garatu zen forma politikoa izan zen demokrazia parlamentarioa. Beti agertu izan da burgesiaren intelektual akademikoen ahotan forma politiko perfektu eta askatzaileena bezala. Baina forma politiko hau ezarri bezain pronto eta masa proletarioen hedatze prozesu azkarraren bitartez, klase borrokaren konfigurazio berriarekin talkan sartu zen, ez baitzuen ez perfekzio ez eta askatasun itxurarik gizarteko subjektu berriarentzako. Are gehiago, Marx eta Engelsen analisietan azkar formulatu zen talka hau, gobernu modernoak “klase burgesaren arazo orokorren administrazio-batzor-

de” gisa aurkeztuz (Manifestu Komunista, 1848). Mugimendu sozialistaren beste figura garrantzitsuek ere ez zuten kritika hau alde batera utzi eta Leninek demokrazia eta parlamentarismo burgesa, “burgesiaren zerbitzura dagoen langile klasearen zapalkuntzarako makina” gisa definitu zuen (Demokrazia burgesaren eta proletarioaren diktadurari buruzko tesi eta informea, 1919).

Burgesiaren beharrezko asetzeko (alegia, kapital metaketa gero eta eskala hedatuagoan erreproduzitzeko) bitartekoa den demokrazia forma politikoak, beraz, sistemaren oinarrian dagoen klase harremana barne-biltzen, ezkututzen eta betikotzen du: langileria-ekonomikoko esplotazioa. Horrela, tesi orokor baten baitan barneratzen du gizarte osoak berdintasunaren pentsamenduen inposizioa: Estatu kapitalista (eta demokrazia) indarrean dauden harreman ekonomikoetatik aparte dagoen entitate gisa ageri da. Are gehiago, harreman ekonomikoetan esku hartzeko eta beren bitartekaritzarako summa potestas duen entitate posible bakar gisa ageri da.

Hemendik abiatuta erreproduzitzen da “hiritar” figura desklasatua, hiritar guztiok demokraziaren bitartez berdintasun egoera juridiko eta politikoan gaudela adieraziz, denoi “berezkoak”



zaizkigun eskubideak defendatu behar direlarik. Tesi honen oinarritzko elementua jabetza pribatua da; jabetza forma honek gizabanako guztion interesen defentsa barne-bilduko balu bezala. Bermea berriz, Estatu. Baina forma honen bitartez, jabetza honetatik desjabetua dagoen klasea bere lan indarra merkatuan saltzera derrigortua agertzen da: hautu posible bakarra dauka, ekoizpen kapitalistaren engranaje gisa integratzea. Kontziente izan behar dugu, beraz, demokraziaren forma politikoak prozesu guzti hau egituratzen eta betikitzen laguntzen duela.

Tesi orokor honetatik, hainbat ondorio atera daitezke: Estatu espazio autonomo edo independente gisa agertzen da, kapital metaketa prozesuarekin duen lotura estua bananduz eta gizartearen dauden interes anitzen bitartekaria baitlitzan. Pentsamendu honek Estatuaren neutraltasunaren idejara bideratzen du gizartea, koiuntura bakoitzean alde batera edo bestera mugitu daitekeela sinestaraziz. Eta ideia hau indartzeko hauteskunde parte-hartzaile eta askeen prozedura aurkezten da bitartekaritza “garbia” izan dadin.

Esperientzia sozialistatik ekoiztutako “demokrazia” kontzeptuaren kritika ez da egungo sozialdemokraziaren pentsamolde eta praktiketan agertzen. Hiritarraren (edo herritarraren, finean berdina baita) figura da honen proposamen politikoak aurkezteko diskurtsoaren zentroa. Bere aldetik, langile klase kontzeptua egoera koiuntural batzuetan (maiatzaren 1ean adibidez) azaltzen da soilik, oportunismoa agerian utziz. Honekin, “aurrerakoak” diren politikak “atzerakoak” direnekin kontrajartzeko eskema aplikatzen dute, klase borroka aktualaren ezaugarriak kontuan izan gabe, Estatu kapitalista noizbait barrutik eraldatuko dutelakoan. Klase harremana betiketoez gain, demokrazia parlamentarioa egoera eraldatzeko forma efektibo bakar gisa azaltzen da, beste borroka espazio batzuei laguntzaile funtzioak emateraino iritsiz. Argigarria

da, kasu honetan, “kalea” deritzon espazio politiko instituzio demokraten subordinaziorako tresna izatea.

Hauteskunde auziari dagokionez, demokrazia burgesaren formari politiko-ki eta publikoki maskara kendu ezean, egituratuta dagoen boterearen aniztasun irudia legitimatzen da eta kulturalki honen praktika indartzen da. Gaineratzeko, aniztasun politikoaren aukera kapitalarentzat onargarriak diren aukera ideologikoetara mugatzen da, onargarriak ez direnak jarraipen sozial, politiko eta kulturalera kondanatuz. Ezin esan demokrazia burgesia eta bere ordezkariarentzat ondo egituratua ez dagoenik.

Ezker abertzale ofizialean demokraziaren auzia helburu estrategikoen artean kokatua dagoen arren, badaude auzi taktiko gisa aurkezten duten batzuk ere, bloke honetatik urrundu diren sektore iraultzaileenak konbentzitu nahian edo. Hauen iritziz, bide demokratikoak taktikaren bide-orrian kokatu behar dira, bestelako helburu estrategiko batzuetara iristeko (sozialismoa, agian). Baina jada, badakigu taktikaren garapena helburu estrategikoeekin kontraesanean sartzen denean zer gertatzen den: instituzio burgesen bitartez, gaurdanik, “hobekuntza” batzuk planteatzean, derri gor instituzio horien klase dominazio izaera ezkatutzea badakar (“orain ez da horretarako momentua, auzi taktiko bat da” esaldiaren bitartez), gaurdanik erai-ki behar diren etorkizuneko helburuak (burgesiaren dominazioaren abolizioa) ukaturik agertzen dira.

Guzti honekin, bere burua sozialistatzat daukaten sozialdemokrata euskaldunek, bere garaian Kautsky eta bere lagunak egin bezala, burgesiaren eta bere defentsa blokearen amua irentsi dute. Dominazio kapitalistaren zuta-beetako bat den demokrazia kontzeptua asimilatzen dute, Estatu Espainolari krisia gestionatzeko eta estabilizazio politiko eta ekonomikorako laguntza eskainiz. Burgesiaren eta erdi mailako

klasearen (burgesia txikiak eta langile aristokraziak osatutako bloke politikoaren) arteko paktu sozial berriaren parte izaten ari dira, krisi testuinguruak dakarren hausturarako aukera guztiei bizkarra emanez. Demokraziaren kontzeptu orokorra, hau da, demokraziaren kontzeptu burgesa, paktu sozial horren aldeko apustua egiten dutenen arma nagusia da. /

**“Burgesiaren eta erdi mailako klasearen arteko paktu sozial berriaren parte izaten ari dira, krisi testuinguruak dakarren hausturarako aukera guztiei bizkarra emanez. Demokraziaren kontzeptu orokorra, hau da, demokraziaren kontzeptu burgesa, paktu sozial horren aldeko apustua egiten dutenen arma nagusia da.”**



**IKUSPUNTUA**

**Paul Beitia**

# Merezi dugun arteak

**A**urreko ikuspuntuan, atal honetarako neure asmoak aurkezteaz aparte, saiatu nintzen ohar moduko batzuk ematen azken urteetako panorama politikoak utzi duen basamortu kulturalari buruz: komunitate politikoaren artikulazioan etenak, identifikazio politikorako oztopoak, epe luzeko proiektu iraultzaile bat irudikatzen gaitasun-falta eta beste aipatu nituen. Intuizioari jarraik egindako ohar desordenatu batzuk baino ez ziren, baina nago aztergai interesgarriak izan daitezkeela joko-zelaitzat suertatu zaigun egoera kulturalaz jabetzeko eta hartan eraginkorki esku hartzeko.

Zorrotz aztertzen zuen egoera hori kazeta honetako bertako aurreko editorialak, “Jarraitutasunak eta hausturak” izeneko hark. Gertatu den –gertatzen ari den– eta entzungor egin ezin dakiokkeen haustura politikoa, zioen artikulua, bere baldintza historiko objektiboekin erlazioan baino ezin dugu ulertu: gure kasuan, ezinezko suertatu den politika batekin, estrategia interklasistaren agorpenarekin erlazioan. Ildo horretatik, “jada ezinezkoa da klasearteko estrategiaren baitako batasunaren egikaritzea, lotura historiko baten desagitea gauzatzera iristeraino”. Nekez esan daiteke hobeto, nire ustez: “Ez dira izan belaunaldi berriak iraganarekin hautsi dutenak. Iraganak berak hautsi du orainarekin”. Eta jarraitzen du: “Estrategia, komunitate eta kultura politiko baten erreproduktzio ezintasunak, haren oinordekotzaren berme ezak, betetzen zuen funtzio historikoaren agorpena iragatzen du. Paradigma berrien premia irekitzen da”.

Haustura gertatu da eta klase-independentzia oinarri duten paradigma berriak sortzen eta beren beharrezkotasuna berresten ari dira, baina zaharra hiltzen ari denean eta berria oraindik apurka jaiotzen, tarteko argi-itzaletan polarizazio horretatik kanpo kokatzen den zati handi bat geratzen da. Aipatutako erreproduktzio ezintasunak ez baititu soilik haustura eta paradigma berriak sortzen, lehenago esan dugun bezala noraeza ere sortzen du, pesimismoa, inpotentzia. Egoera horrek ondorio kulturalak ditu eta ondorio artistikoak ere bai: euskal le-

tren, musikaren eta abarren artean aspalditxotik igar daiteke halako iluntasun bat, ezkortasun bat, iraganerako joera bat, nire ustez aipatutako hausturarekin zuzenean lotu beharko litzatekeena. Ez hori bakarrik, haustura horren nolakotasunaren berri ere eman diezagukete arte-espresioetako joerek, eta, beraz, haren azterketan sakontzen lagundu. Artikulu honek zenbait lan esanguratsuren azterketa azkar bat egin nahi luke.

Azterketa artistikorako gure oinarria determinazioaren ideiak behar du izan. Kontzeptu konplexua da oso ulertzeko eta azaltzeko, eta are konplexuagoa hemen dagokidan tarte murrizt honetan. Oraingoz, nahikoa da azaltzea artearen determinazioa ez dagokiola, sarri pentsatu izan den bezala, produktzio-modu bati edo besteari soilik, ezpada une historiko bakoitzeko prozesu sozial totalari. Artelanak –pintura bat, kanta arrakastatsu bat edo bat-bateko bertso bat, kasu– prozesu sozial materialaren baitako praktika erreala eta konkretu gisa ulertu eta aztertu behar ditugu. Era berean, sortzaileak eurak ere testuinguru sozial horren baitan baino ezin ditugu ulertu eta, ondorioz, jakin behar dugu baldintza material objektibo horien arabera sortzen dutela. Horrek ez du esan nahi artistek bizi duten garaia bere horretan nahitaez islatuko dutenik edo haren deskribapen xehea egingo dutenik; hartatik urruntzen ere saiatuko dira sarritan, baina ezingo dute inoiz hari bizkar emanda sortu. Prozesu sozial totalak mugak eta presioak ezartzen dizkio artisten sorkuntzari: ezinbestean suertatu zaizkien baldintza historiko objektiboen arabera sortu beharko dute beti. Alde horretatik, gizarte orok luke, Adolfo Sánchez-Vázquez hitzetan esateko, merezi duen artea. Eta berdina gertatzen da euskarazkoarekin ere.

Hasieratik aipatu ditugun agorpen eta haustura politikoen forma asko eta askotarikoak hartu dituzte euskarazko arte-espresioetan. Kasu paradigmatisenak bat Sarrionandiaren Lagun izoztua nobela izan daiteke, zabal irakurria izan dena baina kritikak eta akademiak aspalditxoan jaramon handirik egin ez diotena, bide batez esanda. Aitzindaria

ere bada nolabait nobela, militante eta erbesteratu gisako bere biografia dela-eta estrategia politikoaren nolakotasunari buruzko kontzientzia eta konpromiso argiagoa duelako, segur asko, idazleak berak. Hego Amerikan erbesteratutako militante politikoaren komunitate bat du abiapuntu nobelak. Goio, iheslari horietako bat, “izoztu” egiten da: memoria eta hitz egiteko gaitasuna galtzen ditu eta ezin du geldi-geldi egon beste ezer egin. Hortik abiatuta, hiru ildo narratibo irekitzen ditu nobelak: Goioen haurtzarokoak kontatzen dira iraganean, haren eta beste iheslarien egunerokotasun geldoa orainaldian eta Goioek sendatu ostean egiten duen Antartikarako bidaia bat, etorkizunean. Alegoria bat bihurtzen da nobela, kontatzen duena baino askoz gehiago kontatu nahi du Sarrionandiak: laguna izoztea iheslarien noraezarekin batera dator, gutunik ere apenas jasotzen duten jada, zalantza politikoak ere gero eta handiagoak dira. Nobelan agertzen den itsasoa ere oso bestelakoa da Sarrionandiak hasieran zerabilen itsas irudiaren aldean. Eider Rodriguezek bikain aztertu zuen hori: abenturari lotutako itsaso zabal bat errepresentatzen bazuten Sarriren hasierako poemek eta ipuinek, Lagun izoztuako itsasoetako bat geldia da eta bestea izoztua, Ipar Polorako bidaia horretan. Horrek militantzia politikoaren errepresentazio kontziente bat erakusten duela uste du Rodriguezek. Nobela, hain zuzen, lotura historiko sendo baten agorpenaren kronika da, eta hortik hiru ildotan kontatzearena: abenturaren eta konpromiso politikoaren garaia iragana da, orainaldia geldoa eta aspergarria da eta haustura politikoa kontzienteki jasan duenari etorkizunerako geratzen zaiona egunerokotasun horri ahalik eta lasaien heltzea da, bere arazo kotidianoak lehenestea.

Nobela paradigmaticoa eta aitzindaria da Lagun izoztua, gerora beste hainbatek eutsi baitiote eskema narratibo antzeko bati: iraganean arakatu, orainaldia problematizatu eta etorkizunerako egunerokotasun lasai bat aldarrikatu. Duela bi urte argitaratutako Jenisjoplin nobelan –hori ere zabal irakurria–, Uxue Alberdik kontatzen digu nolakoa zen protagonistaren gaztaro konprometitu eta aktiboa, zei-

na gaixotasun batek eteten baitu kalean ere mugimendua pixkanaka agortzen doan garai bertsuan. Pertsonaiarentzat problematikoa da oso egoera hori: eskema batzuen arabera bizi izan da beti eta orain ezinezkoa zaio, ez daki oso ondo zein ardatzen arabera pentsatu behar dituen gauzak. Deigarria da nobela horren amaieraren eta Lagun izoztuaren arteko antzekotasuna: orainaldia horrela dela onartu eta egunerokotasuneko bizitzari eutsita lasaitzen da Nagore protagonista.

Orainaldiko noraeza erakusteko eta iraganean arakatzeko joera hori azken urteetako hainbat lanetan igar daiteke. Hor dago aurreko ikuspuntuan aipatutako Otamendiren Disoluzio agiriak bera eta haren molde berrien premiaren aldarrikapena; hor daude Iñigo Astizen bi poema-liburuak, iraganean arakatu nahia eta paradigma berriak sortzeko ezintasuna –“Gizaldi guztiak sentitzen dira / aldaketa handiren baten atarian, / eta gu ere ez ote gabiltzan halatsu sasoi berrientzako hitzen bila, / katuetan bezala eguzkitara ehizan / eroritako zibilizazioen hondarretan”–; hor dago Jon Benitoren Bulkada poemarioa –“Esadazu mundua sentitzeko / modu baten azkenak garela”–; hor dago Eider Rodriguezen Politika albisteak ipuin gogoangarri hura, eta beste zenbat.

Musikan ere nabaria da noraez politiko garaian sortutako doinuen eta letren ugaritasuna. Izaki Gardanak taldeari buruz, esaterako, esan daiteke ia-ia proiektuaren beraren muinean dagoela iraganaren nostalgia, orainaldiaren iluntasuna, zerbait berriaren premia aldarrikatzea. Anariren kasuan ere nabarmena da azken diskoetan letrek hartu duten kutsu sozialagoa, gizarte erdi distopiko bat deskribatuz –“Autodefinituak”–, tristura indibidualistari kritika zorrotza eginez –“Epilogo”– edo, are, borroka armatuaren iruditegia txertatuz –“Armagabetzea”–; badute azken diskoek halako iluntasun bat, eta orain arte izan duten giro intimistarekin alderatuz beste dimentsio bat hartzeko asmoa igar dakieke. Gehiago ere aipa daitezke: Berri Txarrakén Payola eta Denbora da poligrafo bakarra diskoak, JP Lohianek

**“Bizimodu berri batek posizio politiko berriak, bizitzari begiratzeko modu berriak ekarriko ditu ezinbestean eta hortik sortuko dira artista berriak eta bestelako arte bat. Hor, denik eta galderarik zailenetakoa sortzen zaigu, nolakoa behar duen izan arte horrek, alegia. Baina horren erantzuna artistek berek izango dute, eta ez nik.”**

atera zuen disko zuri-beltza, eta beste. Konplexua eta askotarikoa da lan bakoitzak gure garaiarekin duen erlazioa eta, nire ustez, sakonago aztertu beharreko gaia da, baina aipatutako guztiak agorpen politikoak ekarritako noraez-garaian kokatu behar direla ez dago ukatzerik.

Norbaitek pentsa lezake, eta ez zaio arrazoirik falta, mugimendu sozialistaren loratze garai honetan, bestelako arte bat merezi dugula: kontzientziak pizten lagunduko diguna, orainaldiari kritikoki eta etorkizunari modu eraikitzailean begiratu diona. Zaila da, ordea, bestelako arte bat kontzienteki bultzatzea, hori ere baldintza historiko objektiboetatik urrun- tzea bailitzateke, nolabait. Gramscik zioen absurdoa dela artista indibidual berriak artifizialki sortzea eta, beraz, kultura berri baten aldeko borroka izan behar

duela gureak eta ez arte berri baten aldekoa. Bizimodu berri batek posizio politiko berriak, bizitzari begiratzeko modu berriak ekarriko ditu ezinbestean eta hortik sortuko dira artista berriak eta bestelako arte bat. Hor, denik eta galderarik zailenetakoa sortzen zaigu, nolakoa behar duen izan arte horrek, alegia. Baina horren erantzuna artistek berek izango dute, eta ez nik. /

KOLABORAZIOA

Kolitzza

# EZKER AB BIDEGUR EGOERA POLITIKO



# ERTZALEA RUTZEAN: AREN AZTERKETA

**NABARIA DENEZ, ETA PROPAGANDA POLITIKOAK EZKUTATU NAHI BADU ERE, AZKEN URTEAN ZEHAR GAZTE MUGIMENDUAREN ESPARRUAN BELAUNALDI HAUSTURA POLITIKO BAT NAGUSITU DA. IDAZKI HAU HAUSTURA HONEN JATORRIA ETA ZENBAIT TESI LABURBILTZEKO BALIATUKO DUT, AURTENGO KOIUNTURA POLITIKOAK MAHAIGAINERATURIKO ELEMENTU NAGUSIAK AZALDU ASMOZ.**

## 1. EZKER ABERTZALEAREN IZAERA ANTAGONIKOA

Hasteko, esan beharra dago ezker abertzalearen baitan hasieratik existitu izan dela bi proiektu politiko ezberdinen arteko talka. Sozialdemokrazia hegemoniko garaikideak onartu nahi ez badu ere, interklasismoak bi proiektu politiko horien arteko aliantza batean murgildu zituen euskal langileriaren bi estrato nagusiak: alde batetik, proletalgoa (euskal gazteriaren gehiengoa, emakume prekarizatuak eta etxeko andreak, behe mailako langileria industrial eta zerbitzuetako langileak, langabetu kronikoak...). Bestetik, langile aristokrazia (industria goi mailako langileak, profesio liberalek, komertzio txikia eta funtzionario independentisten gorputza nagusiki). Bigarren hauen artean burgesia txikiaren eta kapital nazionalistaren esparru zabal bat ere aurkitzen dugu hasieratik, proiektu independentista ‘aurrerakoiarekin’ bat egin izan duena eta ekonomikoki eta sozialki indartu duena.

Ezker abertzalearen baitan nabariak izan dira hasiera-hasieratik klase arteko tentsioak eztabaida politiko eta banaketan bidez. Iraultza sozialistaren eta demokrazia aurrerakoiaren artean, edo bestera esanda, komunismoaren eta sozialdemokraziaren artean, euskal nazioaren izaera politikoa klase borrokaren gudu-zelai moduan ageri zaigu, proiektu definitu izatetik oso urrun egon izan dena hamarkadaz hamarkada. Sortuk gaur egun euskal errepublika demokratiko burges baten aldarrikapena egiten badu ere, hori ez da inolaz ere ezker abertzalearen historia osoari erantsi dakiokegun euskal nazioarentzako estatu forma.

‘Espainolismoaren’ eta ‘abertzalearen’ arteko ardatza, hurrenez hurren, komunismoari eta sozialdemokraziari esleitu izan zaie gure herri txiki honetan. Nork esleitu du hori, ordea? Erantzuna sinplea da: gezur hori sektore sozialdemokratak eraiki izan du, eta bere barne garaipenaren ondorio ideo-

logikoa baino ez da. Izan ere, independentismo komunistak, klase ertainaren gidaritzak politikoko ezarritako realpolitikaren zurrumbiloi sarturik, arazo larriak izan ditu estrategiko zein organizatiboki bere proiektu politiko propioa definitzeko, eta gaur esan dezakegu ezker abertzalea alderdi komunista bihurtu ez izanak (ahaleginak egon badira ere) bere barneko sektore proletarioaren porrot historikoa adierazten duela, eta ezker abertzalea borroka mugimendu nazional hegemonikoa izanik, proletalgo nazionalaren porrota. Hortik errelatoaren galera eta komunismoa espainolismoari atxikitu izana. Historiaren ironiak, kontrara, agerian utzi du sozialdemokrazia ustez abertzalearen foralismo autonomista, garbi adierazten ari dira bere gainazal independentistaren azpian estatutismoa kompetentzial baten grina ezkutatzeko dutela. Sortu alderdia, Euskal langileriaren autodeterminazio eskubidea politikarien arteko negoziaketa estatutista burokratikoarekin kontrabandoz ordezkatzeko saiakeretan dabil, EAJrekin batera.

Zeharka bada ere, eta lehengo gaiari helduz, aipatu dezagun izaera komunista eta izaera sozialdemokrata ez direla, berez, bi klase estratoen arteko ezberdintasun zurrunen baitan atxikitu daitezkeen borondate politikoak. Hau da, esan beharra dago proletargoaren zati batek (euskal gatazkaren zein egoera ekonomikoaren bilakaeraren gorabeheren arabera, handiagoa edo txikiagoa izan den zati batek) proiektu sozialdemokratarekin bat egin izan duela. Langile aristokraziaren kasuan ere, gauza berdina gertatu da iraultza sozialistaren aldeko apustu politikoarekin. Hala ere, faktore sozioekonomikoak, klase izaerak, nagusiki determinatu du bi proiektuen arteko pisua: hots, zentro inperialista kokaturik, langile aristokraziaren tamainak eta indarrak ezker abertzalearen baitako klase aliantzan proiektu sozialdemokrata nagusitu du bere historia osoan zehar. Klase ertainaren lehentasun sozialak ezker abertzale osoaren lehentasun politiko bilakatu-

rik, ‘eta gero gerokoak’ izan da menpean zeukaten sektore proletarioari eginiko eskaintza bakarra. Aldi berean, eta arrazoari beragatik, etengabe oztopatu dute proletargoaren politika indartsu bat, borrokarako baldintza erraldoiak suntsituz, funtsean, politika sozialista eta langile boterearen gorputzea ekiditeraino. Euskal Herriko gatazka politikokoak hasieratik ofentsiba nazionalista sozialdemokrata baten ezaugarriak izan ditu, ofentsiba sozialista iraultzailea izateko osagarriak bazituen ere. Ofentsiba nazionalistak klase gatazkaren energiak xurgatu izan ditu horrela, klase gatazka grina abertzalearen potentzialaz elikatu beharrean. Euskal Estatu Sozialista baten eraikuntzatik eta iraultza sozialistatik urrun, ezker abertzalearen politikagintza frontea negoziaketa juridiko burgeserako indar metaketara bideratu da, eta horrela, negoziaketaren zirkloek borrokaren erritmoak markatu dituzte, historiaren kontzeptzio materialistak kontrakoa demostratzen duen arren. Ezker abertzalearen dinamika politikoa indar erakustaldi eta negoziaketa politikoen ezinezko historia ziklikoa izan da. Antolakunde armatuaren eta gobernuaren arteko negoziaketa tradizional hori orain EH Bildu eta oligarkia-aren alderdien arteko negoziaketa bihurtu bada ere, sekuentziaren eta erritmo politikoen baldintzapenen estruktura berbera errepikatzen da: blokeo politikoa nabaria da. Klase ertainaren gidaritzapeko ‘ez aurrera eta ez atzera’ batean sarturik gaude, etengabeko indar korrelazio berberak erreproduzituz, eta proletalgoak bere programa politikoarekin mahai gaineko kolpea emateko garaia iritsi zaigu.

Baina sakondu dezagun interklasismoaren erlazio honetan. Aliantza interklasistaren paradigma politikoa, non proiektu sozialdemokrata nagusi zen eta ‘herri’-klaseen arteko batasun bat antzetzten zen, ezker abertzalearen kontzeptua bera definitzeraino heldu izan da. Zentzu horretan, ezker abertzalea bati eta monolitiko baten ulerkerara heldu gara, azken bi hamarkadetan berezi-



## **“Iraultza sozialistaren eta demokrazia aurrerakoiaren artean, edo bestera esanda, komunismoaren eta sozialdemokraziaren artean, euskal nazioaren izaera politikoa klase borrokaren gudu-zelai moduan ageri zaigu, proiektu definitu izatetik oso urrun egon izan dena hamarkadaz hamarkada.”**

ki. Sortu alderdiaren atzean ezkutatzeko den gidaritza sozialdemokratik euskal langileriaren belaunaldi ezberdinen borrokaren ondasun historikoa ezker abertzalearen kontzeptuean bereganatu nahi du, proiektu sozialdemokratari atxikiz. Ezker abertzalearen nortasuna bere ondasun moduan kudeatzen duen bloke agintaria prest agertu da edozer egiteko sektore proletarioen independentzia politikoa eta sektore horien arteko batasuna oztotatzeko .

Testuinguru horretan, gidaritza sozialdemokratik azpijoko, gezur eta eraso kanpaina bat abiarazi zuen orain dela bi urte inguru, ohikoak zaizkion burokratatadaz josita. Gazte mugimenduko barne salazaritza helden zitzaien informazioen arabera, mugimendu ezberdinak sortzen ari ziren Sorturen ezkerrean eta bere kontroletik kanpo, oraindik publiko ez baziren ere, batez ere ikasle eta gazte mugimenduaren esparru zabal batek babestuta. Gazteria proletarioaren aurkako kanpaina antikomunista hau azken urtean in crescendo joan dela esan dezakegu. Horren adibide dira ikasle mugimenduari eginko erasoak, ikasle mugimendu abertzale eta komunistaren inguruan sorturiko gezur masiboak (espainolistak, misoginoak, etsaiak ordaindutako agentak), Ikasle Abertzalearen egoitzaren lapurreta juridikoa eta mehatxuak, Ernai eta zipaioak Ikasle Abertzalearen

aurka batera ekitera heltzeraino pasaden azaroan; horren adibide da, era berean, GKS gazte antolakunde sozialista iraultzaile berriaren gaineko jazarpen kanpaina lehenengo momentutik, sare sozialen erabilera anonimoa gezurrak eta desgaste soziala sortzeko, kartelen eta pankarten kontrako guda eta zentsura saiakerak, barne dokumentuak eta herri batzarrak, non agintari sozialdemokratik ezker abertzalearen antolakuntza nazionala probesten duten euren kanpaina antikomunista elikatzeko, gurasoak seme-alaben aurka jarritz, etab. Oraindik, ordean, kanpaina hau hasi besterik ez da egin, eta ziur asko bere adierazpen ahulenak dira orain aipaturikoak.

Edozelan ere, gidaritza sozialdemokratik (Sortu, LAB, Ernai, Bilgune Feminista eta beste zenbait eragileren gaineko kontrola duen gidaritza bloke burokratikoa) bere proiektu politikoaren hegemonia mantentzeko helburuz egiten ditu maniobra hauek. Horretarako ezinbestean lortu beharrekoa da gazte sektore proletarioa eta bere esparruko nagusitasun komunista gainontzeko sektore proletarioengandik urrun mantentzea (hots: langile prekarioen esparru zabaletik, langabetuengandik, pentsionistengandik, emakume proletarioengandik...). Aldi berean, gidaritza bloke sozialdemokratik sektore horiengan duen hegemonia erre-

formista gazte esparruan zein ikasle mugimenduan berrezartzen saiatzen da. Beraz: hegemonia komunista gazte mugimenduaren baitan borrokatu eta beste sektoreetatik urrun mantendu, horra sozialdemokraten bide-orria. Horretarako, bere kontrolpean dituen sektore proletario horietan propaganda antikomunista etengabea egiten du, eta gazte mugimendu sozialistarekiko inkomunikazio egoerak eratzen ditu, gezur eta manipulazioen bidez. Proletargoaren gaineko ofentsiba politiko eta ideologiko ezkutu honek blokeo politiko orokorraren interesak soilik elikatzen ditu, eta gidaritza sozialdemokratik jakin badaki blokeo politikoarekin behintzat kudeaketa instituzionala eta ezker abertzalearen kontrolaren aukera duela. Desblokeo politikoak ezker abertzalearen gidaritzaren galera ekarriko bailioke, inolaz ere ez baita gertatuko desblokeo politiko bide-orri sozialdemokrataen bidez, eta beraien politikaren faltsutasuna agerian geratuko bailitzateke. Baina euskal langileriak desblokeo politiko behar du, bereziki euskal proletargoak, bere egoera gordinetik irteteko. Baliabide propioak erakitzea bidean, botere eraikin proletario horren adreiluak ez ditugu inolaz ere instituzio burges espainol eta frantsesetan topatuko. Sortuk, ordezkatzen duen klase ertainaren bloke osoarekin batera, erabat onartu du tesi politiko hori, eta botere kuota instituzional burgesen gu-



dan murgildu da; horrekin, beraz, bidegurutzea emanda dago. Ez dago atzera bueltarik. Batasun interklasistaren euskarria hautsi da; proletalgoa ofentsibara pasatu beharrean dago.

## **2. ESTATUGINTZA EREDUAREN ARDATZA ETA ALDERDI KOMUNISTAREN BERRANTOLAKETARAKO HIRU TESI POLITIKO: HAZKUNTA PROPORTZIONALA, PROLETARIZAZIO TESIA ETA BOTERE BURGESAREN TEORIA INTEGRATUA**

Gaur gauzak dauden bezala, argi dago mugimendu sozialista independentea geratzeko etorri dela. Gero eta indartsuago eta diskurtso eta agenda politikoa markatzeko aukera handiagoz agertzen da eszenatoki politiko nazionalan. Fronte ugartan, gazte, ikasle, emakume eta langile borroketan, kontzeptualizazio marxista praktika eredu berri eta berritzaileekin uztartuz, eraginkortasun tasa handiak ezartzen ari dira gazte berritzaile hauek. Gidaritza sozialdemokrata jokoz kanpo ez geratzeko imitazio eta ekilibrismoak egiten ikusten dugu behin eta berriz, marxismoaren karikatūra batekin mozorrotuta han-hemenka.

Hala ere, Euskal Estatu Sozialista eta Iraultza Sozialista Internazionala helburu, jakin badakigu gaur kontzeptu estrategiko komunista hauek guztiz urruti geratzen zaizkiola egunerokotasuneko arazoetan murgilduta dagoen masa proletario despolutizatuari. Alabaina, horrek ez du amildegi bat irudikatzen guretzat, prozesu estrategiko erreale baten etorkizuneko faseen ikus-


pegia baizik. Sektore proletarioen batasun organizatibo eta estrategikorako baldintzak behar-beharrezkoak dira Euskal Herriko Alderdi Komunista indartsu baten aldarmioak jartzeko, eta alderdi komunista indartsu baten eraketa beharrezkoa Euskal Herriko blokeo politikoa apurtzeko. Alderdi komunistaren masa eraketa, sektore proletario ezberdinen masa integrazioa alderdi bateratuan, modu egokian egin behar da, eta horrexegatik hazkunde proportzionalaren bidez egin beharreko prozesua dugu. Ezin da sindikalismo hutsalean jauzi baldintza ideologikoak eta masen formakuntza politikoa aldi berean landu gabe, baina ezin dira baldintza ideologikoak landu eta erakargarri bihurtu egunerokotasuneko arazoak konpontzeko gaitasun praktikoa proportzionalki erakutsi ezean. Era berean, ezin dira helburuak lortu borrokarik gabe, baina ezin dira borrokaren ondorio negatiboak, errepresioa, eta etsipena eutsi emaitza eta garaipenik gabe; ezin indarra metatu eta aurrerapauso kualitatiboak gauzatu militantziaren hazkunde etengaberik gabe, baina ezin militantzia hazi politika kualitatiboki zuzen baten erreferentziarik gabe (askotan militantzia ez kualifikatu eta handiegi batek ezinezkotzen duena). Militante askok ez dute eraginkortasunik ez baldin bada borroka masa eraginkor eta kualitatibo baten moduan eta norabide zuzenean lanean. Benetako militantziaren metaketaren alde apustu egingo badugu, hazkunde proportzional eredu baten garapena beharrezkoa da, finean.

Politika artearen proportzioa da, eta lege unibertsal horrek alderdi komunistaren berrantolaketa historiko internazionalan ardatz nagusi izan beharko luke.

Beraz, hazkuntza proportzional gauzagarriaren tesi osatu bat beharrezkoa da alderdi komunista burokratiko txiki garrikideen inpotentziaren paradigman jauzi nahi ez badugu.

Bestetik, argi izan behar dugu gure oinarri objektiboa krisi kapitalistak sorturiko amildegi sozialetik datorrela, besteak beste belaunaldi politiko eta kultural moduan, gu, krisiaren seme alabak garelako. Plusbalio metaketaren eredu sozialaren agorpen historiko internazionala, Europaren gainbehera inperialista, eta iraultza tekniko robotikoak dakarren mundu berriaren intersektzioan, klase ertain nazionalaren tamaina posible egiten zuen oinarri ekonomikoa progresiboki desagertzen ari da. Proletarizazioa erortzen diren gizarte sektore ezberdinak alderdi komunista eta estrategia sozialista baterako erregaia dira, eta erregaia ikertzea, ulertzea eta politizatzea dagokigu. Gu geu erregai sozial horretatik gatozen baldintza historikoak baino ez gara. Klase ertain nazionalaren gainbeherak sorturiko baldintzak, Europa mailako klase ertainaren gainbehera berberak sorturiko baldintzekin uztartu, eta Europa mailako ofentsiba sozialista iraultzaile berrantolatzeko baldintzak sortzeko, gure ekarpenik onena proletarizazio prozesua alderdi komunistaren eraikuntza prozesu bilakatzean datza.

Proletarizazioa, orduan zer da? Gaitasun ekonomikoaren murrizketa eta pobrezia zuzena, noski(etxebizitza propioa izateko ezinezkotasuna, oinarritzko elikaduran murrizketak egin behar izatea, prekariedade emozional eta soziala, prostituzio zuzena, lan baldintza eskasak, behin-behinekotasuna bizitzaren



**“Hala ere, Euskal Estatu Sozialista eta Iraultza Sozialista Internazionala helburu, jakin badakigu gaur kontzeptu estrategiko komunista hauek guztiz urruti geratzen zaizkiola egunerokotasuneko arazoetan murgilduta dagoen masa proletario despolitizatuari. Alabaina, horrek ez du amildegi bat irudikatzen guretzat, prozesu estrategiko erreal baten etorkizuneko faseen ikuspegia baizik. Sektore proletarioen batasun organizatibo eta estrategikorako baldintzak behar-beharrezkoak dira Euskal Herriko Alderdi Komunista indartsu baten aldambioak jartzeko, eta alderdi komunista indartsu baten eraketa beharrezkoa Euskal Herriko blokeo politikoa apurtzeko.”**

alor guztietan, erasoen biktima ahul bihurtzea, osasungintza zerbitzu gero eta gutxiago eta kaltetuagoa jasotzea, gaixotasun mentalak eta depresioa, kultura dekadente baten ingurua, biztanleria piramidea, bakardadea eta espektatiba eza...); baina baita ere ongizate estatuaren suntsiketa, giza erlazioen degenerazioa eta zakarkeria sozialaren ezarpena erlazio eredu gisa, kontrol sozial orokorraren hazkunde progresibo eta itogarria, eskubide politikoen desagertzea, bizitzaren alor guztien burokratizazio prozesu basatia, giza eskubideen parafernaliaren suntsiketa, estatu burgesaren botere erregimen demokratikoaren desagertzea eta ere-

du faxistaren berrezarpena, eta abar. Hori guztia ere bada, zentzu zabal batean, proletarizazio prozesuaren parte.

Eta hori guztia gutxi balitz, krisi kapitalista garaikideak bere barnean giza espeziearen desagertzearen arriskua gordetzen du, bai gatazka internazional beliko asimilaezin baten eszenatokia mahai gainean jarritz, baita gizakiaren bizitzaren posible egiten duten baldintza ekologikoen suntsiketaren bidez epe motzean (merkurioa, plastikoa eta metal astunak ozeanoetan; ur gezaren galera; baso-masen homogeneizazio eta suntsiketa, errekurtsuen agortzea, negutegi efektua, atmosferaren

kontaminazio progresiboa, kutsadura atomikoa eta gizadiaren patrimonio genetikoaren kalte iraunkorra...). Ez dira ez taktizismo errazerako eta oportunitateak garaiak. Norabide estrategikoa eta osotasunaren perspektiba iraultzaile berrezartzeko garaia heldu zaigu, eta proletarizazio prozesu historikoaren gidaritzaren berreskuratzeko betebeharrak dauka. Hortik dator proletarizazio tesi osatu eta indartsu baten beharra.

Azkenik, nabari da estrategia sozialistak botere burgesaren aspektu guztiak kolpatu behar dituela. Izan ere, borroka frontean erreformaren alderdi burgesaren esku dauden bitartean, fron-

teen eraginkortasuna desaktibatu, proletalgoaren gainean zapalkuntzen pisu guztia ezarri eta betikotu, eta borroka fronteak langile batasuna ahultzeko identitate partzialak eratzeko baliatzen ditu kontrairaultzak. Ideologia akademiko garaikideak indar handia du ezker mugimenduaren oinarrian, klase ertainetan, eta, tamalez, baita proletalgoaren esparru zabal batean ere. Kontrairaultzak etengabe baliatzen du influentzia ideologiko hori borrokan partzializazioa eta langile batasuna kolpatzeko.. Horrexegatik, behar-beharrezkoa du gu programa komunistarekin loturiko botere burgesaren teoria integratu bat, botere burgesaren konplexutasun eta alderdi guztiak barnebilduko dituen, akumulazio dinamika orokorraren baitan genero, arraza, edota nazio zapalkuntzen betikotzearen eta funtzioen arrazioak ulertu eta kolpatzeko gaitasuna izango duena. Zapalkuntza guztien aurkako borroka botere proletario orokor eta unibertsal baten eraikuntzaren osagarri dialektiko gisa uztartuko dituen. Klase borrokaren osotasun integratu gisa, masa alderdi komunista borroka guztien subjektu ahaltu eta aldi bereko bihurtzea dagokigu. Alderdien eredu hobekuntza soilik etsaiaren teoria orokor eta integratu batetik etorriko da, beraz, etsaiaren botere formaren konplexutasunari eta osotasunari aurre egiteko gaitasuna izango du, betiere argi izanik gizarte burgesa mugiarazten duen lege orokorra akumulazio legea dela.

Kontuan izan dezagun klase ertainaren hegemonia politikoak, gizarte eredu kapitalistaren onarpenak, eta borrokan partzializazio sozialdemokrata oportunistak bete-betean kolpatzen dutela proletalgoaren independentzia politikoa. Eta egoera honen adierazlerik garbiena estrategia sozialdemokrataren muinean daukagu, izan ere, sozialdemokraten jardura politikoa estatugintza burgesera mugatzen da. Esate baterako, subiranismoa estatu burgesaren erreforma txikiekin lantzen dute estatutuen negoziaketarekin; feminismoa,

estatu legediaren eta instituzioen erreformarekin eta estatugintza (burges) feministarekin; ekologismoa lege dekretu eta kontzientziazio kanpaina publikoen bidez, eta ez erroan dagoen kapital metaketaren logika suntsitzaila kolpatuz; eta pobrezia kudeaketa estatu limosnen bidez, eta ez klase borroka elikatuz eta langile antolakuntza indartuz. Finean, klase ertainak ez dauka botere eredu propiorik, eta beraz, bere politika burgesiaren boterearen kuotengatik negar egitera norabidetzen da.

Proletalgoak, aldiz, ez du legedia eta estatu burgesarengan ezer irabazteko, ezta bere esplotazioaren betikotzea helburu duen kapitalaren partaidea izateko saiakera oportunistetan ere. Proletalgoari dagokionez, bere haragian sufritzen du eskubide formalen iruzurra pobrezia egoeran. Proletalgoak aurre egiteko duen modu bakarra arazo soziala bere osotasunean lantzea da; formula bakarra antolakuntza eta indar propioengan aurkituko du, eta horretarako ezinbestekoa da estatugintza sozialista, hau da, botere proletario politikoa eraikuntza prozesua martxan jartzea eta prozesu sozialista historikoa berrantolatzea.

Zentzu horretan, Euskal Herriari dagokionez, klase ertainak nazio eraikuntza gisa ulertzen duena zera da: euskal identitatearen zantzua klaseetan banaturiko euskal gizarte burgesari esleitzea, eta horren emaitza estatu konpetentzia burgesen transferentzia etengabea da. Proletalgoarentzat, ordea, nazio eraikuntza ez da forma kontu bat: nazio instituzio eta baliabide proletarioak sortzea baizik, iraultza sozialista internazionala berrantolatu eta bultzatzeko bitarteko moduan eskaini ahalko duen botere nazional propioa eratzea, klase etsaia etxean garaitzea, alegia.

Ez naiz gehiago luzatuko, laburki esateko: ezker abertzalearen batasun interklasista historikoa puskatu da, bere baitako bi sektoreak bidegurutzean banatu dira. Hemendik aurrera proletalgoaren

independentzia politikoa oinarri duen prozesu sozialistak, Iraultza Sozialista Internazionala, Alderdi Komunistaren Eraikuntza eta Estatugintza Sozialista ardatz estrategiko gisa hartuta egin beharko du aurrera. Horretarako, proletarizazio tesia, hazkuntza proportzional eredu eta burgesiaren botere tesi integratu baten lanketa progresiboa eratzten joan beharko gara, sektore proletario ezberdinen arteko batasuna eta politizazioa landuz, Euskal Herriko Alderdi Komunista ipar.

Gizaki garaikidearen indar guztien aurka altxatu diren gazte ausart hauek indar kolektiboz borrokaren sugarra bizirik mantentzeko borondatea berrekitzen ari dira duintasun osoz. Lagun diezaiegun, bakoitzak duenetik hasita, gutxi batzuk dena eman behar ez dezaten. /



**IKUSPUNTUA**

Nahia Santander

# Eklektizismo metodologikoa eta feminismo (sasi)marxista: obrerismoa eta politika erreformista

**G**ogoa dut duela urte batzuk nire tripetan sentitzen nuen korapiloa, nire baitan zeuden indarrak askatu ezinik zeuden garaiakoa. Garai hartan intuizio hutsak baino ez zirenak, pixkanaka mamitzen joan dira eta, zorionez, gaur egunean konturatu naiz estualdi une horiek igaro beharra nuela. Izan ere, niretzat zaila izan zen ordu-ra arte emakume gisa sozializatuaz izateak eragiten zizkidan zapalkuntza formak borrokatzen laguntzen zidan mugimenduan, arrakalak, hutsuneak eta indefinizioak topatzen nituela aitortzea. Zalantzarik gabe, hilabete bat baino gehiagok igaro behar izan zuten nire korapiloa askatzen lagunduko zuten hitzak jartzera ausartu nintzen arte.

Prozesu hartan, garrantzia berezia izan zuten nigan antzerako ezinegona islatzen zuten testuek, manifestuek edota liburuek. Aitortu beharrean nago, halere, egun hainbeste miresten ditudan emakume komunistengana jotzea ez zela izan nire lehenengo saiakera, nire inguruko inortxok ere ez baitzuen euren existentzia eta ibilbide politikoaren berri ematen. Eskerrak lehenago ala beranduago eurekin topo egiteko aukera izan dudala! Kontuak kontu, ordenagailuaren aurrean nengoela, “feminismo y marxismo” hitzekin hamarnaka bilaketa egin nituen nire intuizioei jarraituta. Nola edo hala, biak elkartzea baitzen nolabait nire asmoa. Bilaketa eta saiakera hauen emaitzak izango ziren, gaur kritikatu nahi ditudan posizio teoriko eta politikoetara eramanez nindutenak.

Nire harridurarako, feminismoa eta marxismoaren arteko sintesi saiakerak urte askotan zehar indar handia izan duela konturatu nintzen. Batik bat 70. eta 80. hamarkaden artean. Aintzat hartzekoa da paradigma hau sortu zeneko garai historikoa, gatazka ugari zeharkatua izan zena: Hego Amerikako iraultza sozialistarako aukerak ate joka zeuden hainbat herrialdetan, herrialde kolonizatuak nazio askapen mugimenduak.... Koiuntura horretan, halaber, feminismoaren gorakada ere gertatu zen: bere baitan, posizionamendu politikoaren aniztasuna egonagatik, sendotzen hasi ziren langile mugimenduetatik batasuna defendatzen zuten indarrak. Esango nuke Estatu Batuetako eta Italiako unibertsitateak izan zirela honetan abangoardia ideologikoaren papera bete zutenak. Era beran, hauek dira gaur egunean Euskal Herriko feminismoan gehien eragin dutenak ere. Batez ere, koiunturaren eskakizunen baitan bere burua “itxurazko izaera marxistaz” moztortzeko lotsarik agertzen ez duen horien ahotan.

Egoera honetan, gertatutakoa aztertzeko nire hipo-

tesia honakoa da: burgesiak bi bloke politikoren hegemonia ideologikoa irabazteko baliatu zuela indartzen ari zen mugimendu feminista hura. Alde batetik, klase ertainaren begikotasuna irabazi zuen, burgesia txikiarekin identifikatzen ziren langile aristokraziako emakumeek euren botere-kuotak sendotzeko erreminta ezin hobea aurkitzen baitzuten feminismoan. Zentzu honetan, klase ertainaren adierazpen ideologikoen artean kokatu behar ditugu indartzen ari zen mugimendu feministaren hainbat posizionamendu politiko, zalantza barik. Izan ere, klase ertainaren ekinbide politikoaren esentzia den langileria eta burgesiaren arteko sintesiaren defentsa, erraztasun handiagoz egikaritu ahal izan zuen bloke politiko honek garaiko feminismoak eskaintzen zituen formulazio abstraktuen bidez: emakumearen subjektu unibertsalaren abstrakzioan oinarritutakoak, sororitatearen aldarria egiten zutenak... Honela, burgesiaren langileria sektoreak politikoki gerturatzeko baliatu zuen feminismoa, mugimendu feministaren baitan sor zitezkeen sektore disidenteak (komunistak) ezabatzeko eta emakumeek izan zitezkeen intuizio proletarioak neutralizatzen bidea erraztuz.

Baina honez gain eta bereziki langileria sektoreen artean onespen maila altuagoa irabazteko aukera eman zuen formulazioa, balizko marxismoaren eta feminismoaren arteko sintesia defendatzen zuen hura izan zen. Zergatik? Itxura batean honek behe-estrategien interesak ordezkatzeko zituera. Hau elikatzeko, burgesiaren sekulako inbertsio ekonomikoa egin zuen akademia zentroetan, funtzio ideologiko nabarmena zuen mugimendua martxan jarri. Honela, langileria zuzendutako feminismo sasi-marxista honi babesa emateko, ikerketa talde, konferentzia eta aldizkari zientifiko berriak sortu ziren: esate baterako, Union For Radical Political Economics taldea, Marxist-feminist group, 1975-1977 arteko mintegi feminista-sozialistak, Signs izeneko aldizkaria, Socialist Feminist Speakers Series... Une honetan, egun sektore akademikoaren artean lekua egiten ari diren Mundu Mailako Kongresu marxista-feminista edota Critical Theory Group bezalako ikerketa taldeak datozkit burura. Baina momentuz, gai hori hurrengo baterako utziko dugu.

Hortaz, burgesiaren gidatutako erasoaldi ideologiko honen abiapuntua 70. hamarkada hasieran idatzi ziren hainbat liburutan topatu behar dugu, hauen garapen modura planteatuak izan baitziren ondorengo urteetako ikerketak. Liburuotan mahai-gaineratzen diren zenbait ideia egungo mugimendu feministak (paradigma feminista-marxistaren aitzindaritzat

hartuak izan diren heinean) baztertu baditu ere, laburki aipatuko ditut. Lehenik eta behin, Shulamith Firestoneren “The dialectic of sex” (1970) dugu; Heidi Hartmannen hitzetan “marxismoa auzi feministen mesedetan” kokatu zuen lehenengo saiakera, patriarkatuari analisi materialista aplikatzen saiatu baitzen. Juliet Mitchellen “Women’s state” (1971) izan zen ahalegin hauen hurrengo pausua. Esango nuke, modu ezberdinetan kontzeptualizatua izan den arren, gaur egun arte indarrean jarraitu duela testu hauetan mahai-gaineratutako tesi nagusiak: Juliet Mitchellen arabera, problematika hau ebazteko garatu beharreko prozedura “kapitalismoaren modu ekonomikoa eta patriarkatuaren modu ideologikoa” autonomoki aztertzean analitu behar zen.

Dena dela, zehaztu dudan moduan, patriarkatua sistema ideologiko soil gisa ezaugarritzea ondorengo feministek segituan ukatu izanagatik, patriarkatua eta kapitalismoa hartu-emanetan dauden bi sistema bezala definitzeak arrakasta handia eskuratu zuen. Akats analitiko horretatik abiatzearen ondorio logikoa da, ondorengo formulazioetan errakuntza metodologikoak bata bestearen atzetik indartzen joan izana. Horregatik, hurrengo lerroetan, akats metodologiko berberetik abiatzen diren autore feministak ekarriko ditut, zirkulu feministetan “marxistak” bailiran aurkeztuak diren horiek hain zuzen ere. Zertarako? Bada, eragin handiko autore hauek mahai-gaineratutako baieztapenak elkarren artean alderatzetik hasita, ikuspuntu hauek komunean duten prozedura metodologikoa agerian uztea da nire asmoa. Honela, autore hauek egindako hanka-sartzeek, bakoitzaren ezintasun teorikoei baino, burgesiaren esku-hartze ideologikoari erantzuten diotela frogatzeko asmoa dut: metodo marxistaren potentzialitate iraultzailea ezerezean uzteko helburuz egindako maniobrak diren heinean, zorroztasunez kritikatu beharrekoak direla uste dudalako. Ea ba.

1978. urtean argitaratutako Zillah R. Eisensteinen “Patriarcado capitalista y feminismo socialista” liburua dugu aipatu errakuntza metodologikoaren lehenengo adibidea. Autore honen hitzetan “bere lanak klasearen analisi marxista tesi gisa hartzen du, patriarkatuaren analisi erradikal feminista antitesi bezala, eta bietatik sortzen da feminismo sozialistaren sintesia”. Antzeko bidetik doa hurrengo baieztapena: “analisi marxistak klasearen harreman ekonomikoetan dauden botere harremanen azalpen historikoa bilatzen du, feminismo erradikala boterearen errealitate biologikoaz arduratzen den bitartean. Feminismo sozialistak, ordea, boterea bere

klase eta erro patriarkalen zentzuan aztertzen du”.

Edonola ere, Heidi Hartmann izan da zirkulu feministetan ospe handiena irabazi duena. Autore hau zuzen-zuzenean aipatzen ari naizen paradigmak kokatzen da. Nagusiki, 1979. urteko “Un matrimonio mal avenido: hacia una unión más progresiva entre marxismo y feminismo” deitutako liburua izan da, nire iritziz eta ez hainbeste aurkeztutako ideiak berritzaileak izan zirelako, baizik eta modu satiriko eta ironikoan formulatuak izateak berezitasuna eman zielako, bereziki erabili dena. Hartmannek, feminismoa eta marxismoaren arteko harremana ezkontzaren metaforaren bitartez irudikatu zuen. Baina ezkontza hau guztiz gorabeheratsutzat hartzen duenez autoreak, bi aldean arteko ezkontza osasuntsua lortzeko bi analisi-metodoak maila logiko parekoan kokatzea proposatzen du. Hortaz, Hartmannen ustez, marxismoa eta feminismoa elkartzen ez badira, bakar bat ere ez da nahikoa emakumearen zapalkuntza aztertzeko. Gauzak horrela, feminismo-marxista litzateke baliagarria den metodo bakarra. Honela formulatzen du berak uzartzea: “analisi marxistak garapen historikoaren eta, zehazki, kapitalaren legeen funtsezko ikuskera eskaintzen duen arren, marxismoaren kategoriak sexuari itsuak zaizkio (sex-blind). Zehazki feminista den analisiak baino ezin du agerian utzi emakume eta gizonen arteko harremanen izaera sistematikoa. Hala ere, analisi feminista ez da nahikoa, historiaren aurrean itsua delako eta ez delako aski materialista”. Hau da, bi paradigma teorikoen sintesia justifikatuta geratuko litzateke, marxismoaren zeregina sistema kapitalistaren kategoria ekonomikoak aztertzeko eta feminismoarena emakumeen zapalkuntzaren zergatia ikertzea omen delako. Bi fenomenoek (klase dominazioa eta genero zapalkuntza) sistema kapitalistan euren artean ezinbestean duten barne-harremana alboratuz, bi ikerketa-metodoen artean duen harremana kanpokotasun hutsal batera mugatzen du honela.

Hortaz, argi geratzen da zein den autore hauen asmoa eta zergatik hartu behar ditugun burgesiaren kolaboratzaile ideologiko modura. Feminismoa eta marxismoaren arteko sintesiaren aitzakiarean, feminismo ‘erradikala’ bloke politiko inter-klasarentzat erakargarriagoa bilakatzea bilatzen zuten posizioak dira aurkeztutakoak, itxurazko diskurtso marxista batekin mozorrotuak. Honek ez du Marxen pentsamenduaren kategoria zentralarekin (ekoizpen harremanak), berak zapalduen alde posizio etiko eta politikoarekin eta ‘historiaren ulerkera materialis-

**“Euskal Herrian aldaketa politikoaren garaia bizi dugula zinez uste dut, eta horren adibide dira gero eta eremu gehiagotan lekua egiten ari diren hausnarketak. Feminismo postmodernoarekin etsita gauden emakumeak gero eta gehiago garela adierazten du horrek.”**

ta'-tik eratorritzen den osotasun sozialaren baitako fenomenoaren barne konexioa aztertzearekin inongo zerikusirik. Beraz, marxismoaren izaera iraultzailea ezerezean geratzea zen akademiko hauek bilatzen zutena. Marxen ikuspuntutik erradikalki eta modu interesatuan aldeniduz, gertakari ekonomiko hutsetara mugatua den azterketa-metodo gisa baino ez baitzuten definitzen ekonomia politikoaren kritika, obra guztia zeharkatzen duen eta bere esentzian aurkitzen den iraultzaren teoria burgesiaren interes politikoen mesedetara baztertuz.

Urte batzuk beranduago, halaber, prozedura berdinarekin egiten dugu topo han-hemenka: azken boladan, euren burua ezkertiarizat izendatzeko, marxismoa eta bestelako metodologiaren arteko sintesi eklektikoak aldarrikatzen duten paradigma sasi-zientifikoak ugaritzen ari baitira. Nor eta sektore feministek horrenbeste maitatzen duten Federici agertzen zaigu orain, politikagintza burgesa garai-ateratzea ahalbidetzen duen jokaldi honen gidari modura. Akademia giroan hain entzutetsua den “Soldataren patriarkatua. Marxismoari kritika feministak” (2018) liburuaren sarreran bertan agertzen da metodologia burgesa ezaugarritzen duen ikuspuntuen arteko sintesi eklektiko saiakera: “lehenengo pausua marxismoaz eta feminismoaz zer ulertzen dugun aztertzea da, ondoren bi ikuskerak elkartzeko. Borrokatzen dugun aldaketa hori egikaritzeko posible ez ezik ezinbestekoa da hau. Elkar gurutzatzearen prozesu horrek elkarrekiko berdefinizioa dauka emaitza gisa”. Beste behin, zientzia burgesaren prozedura legez, marxismoaren ulerkera ekonomizista zabaldu eta gero, murrizketa hau egungo kapitalismoa aztertzeko nahikoa ez delakoan kri-

tikatua da, bere posizioa justifikatzeko bide bakar gisa: Marxen “gainbalioa, dirua eta merkantziaren formaren analisiak eta, batez ere, bere metodoak nahitaezkoak izaten jarraitzen dute, nahiz eta ez diren nahikoak gaur egungo kapitalismoa ulertzeko”. Eta aurrerago jarraitzen du: “printzipio feminista, anarkista, anti-arrazista, queerrekin nahasten bada, Marxen teoriak Europako, Ameriketako eta mundu osoko desobedienteengan eragina izaten jarraitzen du. Horregatik, feminismo antikapitalistak ezin du Marx albo batera utzi” (SIC).

Bide beretik doa Amaia Pérez Orozcoren “Subversión feminista de la economía” (2014) liburua. Kasu honetan, ustezko hizkera berritzaile (decesidad, buen vivir (?), BBHVAh, crisis, real, producción1...) batekin aurkezten bada ere, mozturrotutako proposizio ezin zaharragoek zeharkatzen dute bere lana. Euren aurpegia kutsu aurrerakoiak zuritu nahi duten bestelako saiakera teorikoen legez, “zibilizazioaren krisiaren aurrean ikuspegi kritikoen arteko konfluentziaren ziurtasunetik” (sic) jaiotzen da autorearen proposamen teorikoa. Horrela, metodologiaren arteko antagonismoa ezabatua da, marxismoa edukiz hustu ostean beste azterketa-metodoen parean kokatua da. Honela, Orozcok kritikatzeko duen “añada mujeres y revuelva” prozeduraren funtsean, kritikatzeko ari garen “añada perspectivas críticas y revuelva” formulazioa baino ez dago.

Aurreko sarreran azaltzen saiatu nintzen zergatik ematen diren feminismoaren eskutik datozkigun desitxuraketak marxismoaren ulerkera positibistari guztiz loturik. Oraingoan ordea, pausu bat haratago joanez, marxismoaren ulerkera positibistaren ondo-



rio politikoak laburki aipatu nahiko nituzke. Posizio teorikoen kritikak ez baitu bilatzen ideien munduari dagokion eztabaida abstraktu batean beste posizio bat txertatzea. Azken instantzian, kritika honen zentzua kritikatuak diren posizio teorikoek errealtatean politikoki duten eragina ulertzea eta konfrontatzea da. Zentzu honetan, nire ustez, kritikaturako posizioak, esfera politikoan obrerismoaren arazoan islatzen dira. Izan ere, alde batetik, aztertzen ari garen autoreek, errealtate sozialaren gaineko irudi kosifikatuan jausiz, marxismoaren ardura analitiko nagusia, askoz jota, “klaseen arteko harreman ekonomikoen” analisisa dela baieztatzen dute. Premisa logiko horretatik abiatuta, ez da harrizkoa orain arteko autore gehienek marxismoaren potentzialitate analitikoa edukiz hustutako “ikuspegi historiko eta materialista” ekonomizistara mugatzea. Gauzak horrela, marxismoaren irudi positibista zabaldu eta gero, proletalgoaren potentzialitate iraultzailea zailantzan jartzera ausartzen dira eta honekin, aurrez esan dugun moduan, iraultza sozialistaren aukera historikoen azterketa ezinezko bilakatzen da.

Beste aldetik, erabat zuzenak iruditzen zaizkit Iris Youngek ‘teoria duala’-ren baitan identifikaturako arrisku politikoak. Zehatzago, 1992. urtean argiratutako “Marxismo y feminismo, más allá del “matrimonio infeliz”. Una crítica al sistema dual” testuan zorrotzasunez dihardu Hartamannek babestutako marxismo eta feminismoaren loturaren porrotaz. Youngen analisisa politikoa da: sistema dualaren teoria, garai hartako langile mugimendutik autonomia izango litzatekeen emakumeen mugimendua sortzea justifikatzeko asmoz jaino zela ondorioztatzen du. Hau da, paradigma feminista-marxistaren ondorio praktikoa, itxura batea aldarrikatzen duenaren oso bestelakoa da: langileriaren askapen prozesutik jaiotako eta honen espresio zehatza zen emakume langilearen mugimendua ukatzea, ezeztatzea eta kasurik hoherenean, bere baitan barnebiltzea.


Ordutik lauzpabost hamarkada igaro diren arren, paradigma horrek utzitako zama gure bizkarren gainean daramagu oraindik. Nik neuk ere irentsi nuen amua, feminismoa emakumeoi soilik dagokigunaren usteari indarrez eutsi nahi izan nion garaian. Gaur egun hain hedatuta dago paradigma horrek sortutako gaitza, ezen emakumeok kasurik onenean ere lan-karga bikoitza jasan behar izaten dugun; hau da, genero problematika bere osotasunean zein modu aislatuan hartzen dugu gure gain, problematika orokorra lantzeko sortzen diren espazioetan ere arituz. Normalean, ordea, nagusitzen den irudia da,

erabat bananduta dauden adierazpen politikoak bilakatu direla, borondateak ere elkartu ezin dituen emakumeon eta gizonen ardura bereiztuak bailiran.

Ezin zitekeen bestera gertatu, beti ere, ustezko feminismo marxista honek bezala, langileria eta emakume langileen zapalkuntzaren azterketa eta borroka kanpo-harreman batek lotzen dituela ulertzen bada. Horrela espresatzen da obrerismoaren arazoa: ustez kontrakoa lortu nahi badu ere (emakume langilearen emantzipazioa), marxismoaren erdigunean langile klasea fenomeno ekonomiko unilateral izatera mugatzen dute.

Badugu zer hausnartu beraz. Zintzoki uste dut Euskal Herriko mugimendu feminista hegemonikoak traba berdinarekin egiten duela topo: ez bakarrik maila teorikoan euren azterketei “kutsu materialista” (ekonomizista) ematen saiatzen direnean, baizik eta euren praktika politikoan elikatzen duten subjektu politikoan. Honela, langileriaren gaineko irudi positibista emanez, bi ikuskeren arteko sintesia aurkitzeko sektore feminizatuen gatazketara murrizten dute borroka eremua: etxeko langileengan, zahar-etxeetako beharginengan, garbitzailengan... Horrela, ezinezkoa suertatzen zaie langileriari atxikitzen zaizkion aldarrikapenek lanaren marko burgesa gainditzea, langile klasea subjektu iraultzaile gisa artikulatu ezinik agertzen delarik. Osotasun sozial berria nekez ekoitzi daiteke subjektu iraultzaile modu horretan murriztua bada.

Ez ditzagun, bada, burgesiaren neurrira egindako paradigma-teorikoak jaso hala irentsi, askapenerako formula ‘definitibo’ gisa sinetsi. Ekin diezaiozun emakume desjabetuon mugimendua zapalkuntza-forma guztien aurkako borroken arteko batasun politikoan oinarritutako prozesu sozialistan integrituta garatzeari. Berreskura dezagun ekonomia politikoaren kritikaren esentzia. /



**IKUSPUNTUA**

Jon Kortazar

# Ortodoxia, koherentzia eta dogmak

**Modan dago dogmak, ortodoxia  
arbuiatzea. Hitz itsusia da, zikina,  
apaiz kutsua duena. Eta gure  
garaian, denak gara ateoak,  
ateoak baina ateoagoak, baina  
ez materialismo zientifikoaren  
ondorio gisa, “giza aukera”  
bezala baizik. Hil zela Jainkoa  
esan zuen Nietzschek, eta guk  
“jainko” guztiak hil ditugu, edo  
hori bihurtu dugu gure bizi-lege.  
Jainko-hiltzaile edo ikonoklasta  
bihurtu gara. Ideologiak, metodoa,  
narratiba historikoa, subjektua,  
iraultza, alderdia; denak jainko,  
denak hilda.**

**H**iru iritzik eman didate honi buruzko zer pentsatua. Lehena, Urolako Hitzan Iñaki Segurolak gazte sozialistez idatzitako artikulua. Bertan, ildo berriak egiten dituen gauza gehien alde dagoela, baina ildo horretakoek esaten dutenen gauza gehienek kontra dagoela dio; hizkera zurruna, ulergaitza, gogorra dela-eta (agian ez naiz ni honi buruz hitz egin beharko nukeena, izan ere, ni laztandu egiten bainau). Bigarrena “txerren” deitutako txiolari eta euskal aktualitatearen inguruko esatari ezagun bat dugu. Honen mezua “ultra-koherentzia” nekagarria zaiola da. Honen inguruan berekin eztabaidatu dut, eta argudioetako bat izan du “gurekin ala gure kontra” zatiketa ez zaiola gus-tatzen. Hirugarrena duela aste batzuk Unai Iturriaga Zugazart marrazkilaria ateratako bineta bat izan zen: semea kexaka amak “supermerkatu kapitalista inperialistan” erosi duelako eta to zaplaztekoa! “Zaplazteko iraultzailea ondo etorriko zaizu”.

Hirurek, ñabardurekin bada ere, nolabait ideia bera azaltzen zuten, koherentzia hitzak dakarren zurruntasuna erasotzea edo kritikatzeta, edo bertatik aldentzea. Baina ez dut hauek esandakoaz hitz egingo, ez baititut beren motibazioak ezagutzen eta fenomeno askoz ere hedatuagoa baitago. Koherentzia, edo hobe esanda, ortodoxia, beste “jainko” bat zaigu, hau da, nolabait, gure “indibidualtasun askea” mugatzen duena, nolabait “kanpoko” narratiba “transzendental” baten barne kokatzen gaituena, subjektu garrantzitsu baten parte. Borroka hemen eta orain nahi dugu, ez iraganak ez etorkizunak mugatuta. Toni Negri eta Michael Hardtek modan jarritako kontzeptua da “politika sormen” bezala, hau da, subjektu bezala “jendetza” konkretatu gabea duena,

borrokez alda dezakeena delarik, subjektu historiko gidaririk gabea, praktikoki “eraldatzeko desioa” inpultsu duena. Egun, mugarik gabeko subjektibitatean bizi garen garai likido honetan, “gizakiaren gaineko hertsapen” osoa zalantzan jartzen den honetan, militantzia bera ere, “ortodoxia” bezala ikusia dena, kuestionatu egiten da, gero eta gehiago.

Ortodoxoak garenok –zenbaiton kasuan, zentzu batean baino gehiagotan–, ez gara ondo ikusiak XXI. mendeko gizarte likidoan, zurruntasun horren azken gotorlekua gara; pluriaktibismo eredu zoriontsuaren mantelean orban beltza. Inork nahi ez duen subjektu historiko baten menpe, hau da, tradizio historiko batek ematen duen transzendentziaren menpe, borrokatu, politizatu, ekin nahi dugu. Egun, ordea, norberak egunean bertan definitu nahi ditu bere borrokak. Ez dugu iraunkortasuna gogoko, bat-batekotasuna eta aldakortasuna baino. Eta jainkoa (Alderdia, subjektu historikoa) hilenez, hainbat subjekturen borroka nahi dugu, zenbat eta gehiago hobe, hala gure erara aukeratu dezagun. “Interseksionalitatea” da salbatuko gaituen dotrina berria; marko bakar batean kapitalaren aurkako borrokaren barruan gainontzeko fenomenoak ulertzea “hertsapena”, “zurrunkeria”, “dogmatismoa” omen da, hau da, “hitz potoloak” erabiltzea “aniztasunaren” edo “berezitasunen” kontra (edo hauek bigarrengoratu-tuz!). Gainera, “interseksionalitateak” hainbat borroka aukeratzeko edo lehenesteko aukera ematen digu. Sozialismoaren alde baino “kapitalismoaren kontra” erabiltzen da behin eta berriz eta gero eta gehiago. Kontzeptu hori, oharkabea, polisemikoagoa da, eta beraz “malgutasan” handiagoa ahalbidertzen digu. Finean, ez gaitu iraultzak bizi, iraultza bizi

nahi dugu. Militante baino “aktibista” egin gaituzte.

Baina zurruntasuna soilik “ortodoxoek”, “dogmatikoek” eta abarrek erabiltzen al dute? Egungo militantzian ez al dago inolako zurruntasunik? Mark Fisher britainiar egileak esan zuen moduan, egun badago beste koherentzia bat, “banpiroaren gazteluaren” metaforarekin azaltzen duena. Egungo ezkerrean, sinboloen inguruko guda bat planteatu da. Ikurren guda horretan, Fisherren arabera, bai “apaizak” –eskumikatzen dutenak-, “akademikoak” –purutasun falta edo akatsak markatzen dituztenak– eta “hipsterrak” –onartuak izan nahi dutenak, eta horretarako posturarik muturrekoenak hartu ditzaketenenak– daude. Fisherren arabera, horrek hala funtzionatu izan du batez ere ezker identitarioaren barruan, hau da, “subjektu anitzen” ezkerren barruan, non sakralizatu egin den “norberetasuna” eta honen arabera iritzien baliozkotasuna (hau da, “pribilegioen errebisioen” arabera iritzia baliozkotasunaren inguruko kontu hori). Bestela esanda, nolabaiteko “ultrakoherentzia” eta dogma, baina kasu honetan “subjektibotasunen” (eta ez ideologia kolektiboaren inguruan) eta nortasunen inguruan, ez mugimendu kolektiboaren inguruan. Fisherren arabera, “banpiroaren gaztelua” –hau da, aniztasunaren eta nortasun indibidualen inguruko apaiz, akademiko eta hipsterren elkarte– “klase borroka desartikulatzeneko dispositibo bat izan da”. Ene lagun Jimmy Muelles abeslari eta idazleak, artikulu batean esan zuen “nortasunen Foucaultar mikropolitika” honek hiritarrak elkarren zelatan jartzen zituela, eta horrek oztopatu egiten digula zampaketa azken arrazoia –ekonomikoa– ulertzea eta nola erreproduzitzen den ulertaraztea. Izan ere, orain urte batzuk hona, ezkerren barruan intersektionalitatearen ultra-koherentzia bilatzen da, hau da, “bizi-ohituren koherentzia”. Gogoan dut nola “kontsumo-ohiturak” aldatu behar ziren (David Fernández, askorentzat erreferente denak hor kokatzen zuen borroka iraultzailea Alternatiben Herrian eman zuen hitzaldi batean), parte-hartzea sustatu, publizitate komertziala arbuiatu, “genero inklusiboa erabili”, “herriko dendetan kontsumitu”, “espazio komertzialak arbuiatu”, borroka guztiekin –maila berean!– “konpromisoa” erakutsi, “jabetzekeria kulturala” (!) arbuiatu... baina ez klase-borrokarako estrategia indartsurik erabili (klase-borroka bigarregoratzeko estrategia ez bada). Finean, heterodoxia bilakatu izan da ortodoxia berria.

Gurean ere hala ibili izan gara urte luzez, Euskal Herria ez baita ideologikoki gainontzeko tokiak baino

**“Ortodoxia XXI. mendeko gizarte likidoan ez da ondo ikusia, zurruntasunaren azken gotorlekua da; pluriaktibismo eredu zoriontsuaren mantellean orban beltza. Baina orain urte batzuk hona, ezkerren barruan intersektionalitatearen ultra-koherentzia bilatzen da: heterodoxia ortodoxia berria bilakatu da.”**

kontzientegoa. Fisherrek salatu dituen “apaizak” eta “hipsterrak” barra-barra izan ditugu, “Herri Mugimendua” deitzen den horren barruan (H eta M larriz, badirudielako abangoardia Alderdi-jainkoa hil dugun arren, ez garela uste bezain ateoak) asko ugaldtu baitzaizkigu aniztasunaren apaizak eta “hipsterrak”. Lagun batek behin esan zidan XXI. mendeko euskal Herri Mugimendua “ondo geratzearen zaleen” elkarte bat baino ez dela, erdi-mailako klase progresistak maneiaturia eta honen komunikabideek filtraturia edo kontrolaturia. Halako baieztapenetan sartu gabe, argi dagoena da oso gaizki ikusi izan dela urteetan “Koherentzia” eta “Konpromisoa” bezalako hitzak klase-borrokarekin edo langile subjektuaren unibertsalatasunarekin edo hemendik eratorritako ideologia batekin lotzea. Hemen ere, borroken aniztasunaren aintzatespenaren eta koherentziaren arteko berdintasun ikur bat jarritz jokatu dugu (zenbat aldiz izan ote garen marxistak “eko-” “femi-” edo “kritiko” ez izatearren izan gara “zurruntzat” jotakoak!). XXI. mendeko euskal iraultzaille batentzat sozialismoa, ardatz baino, kolore-anitzeko puzzle baten parte da. Praktikoki marxismoa ez zen onargarria entsalada mugimentista honen “beste adar baten” moduan ez bada, hau da, beste “Mugimendu” bat, paisaiaren parte dena “edan zein utzi” egin daitekeena; baina “mugimentismo anitzaren” logika barruan, hau da, berezkoa duen materialismo dialektikoaren azterketatik at, honetarako eskubiderik gabe (hau baino marxismoaren folklorizazio handiagorik!). Unai Iturriagaren umeak bere amari ez dio zarata atzo eguerdian soilik egin, egunero dabil horretan, baina duela urte batzuk euskal establishment progresistaren txaloak jasotzen zituen, ez amaren zaplastekoa. Hau da, ultra-koherentzia ondo ikusi izan da, baina beste zerbaitek eragozten omen du, hain zuzen, koherentzia hori estrategia politiko baten menpe izateak. Kasu honetan, koherentzia unean uneko interpretazio edo desira indibidual edo kolektiboak edo identifikazio subjektiboak atxiki beharrean, estrategia sozialista bati atxikitzeak ekarri du “koherentzia” hori “dogma” gisa ikustea. “Komunitarismo progresista” mota hau, ideologiaren edo dialektikaren tokian “komunitatearekiko identifikazioa” ezartzen duena –progresista, “herrikoia” eta abar; praktikan klase ertain “kulturalak” gero eta gehiago hegemonizatutakoa–, arrunta izan da oso Euskal Herrian. Zuzen dabil “txerren” txiolaria zerbaiten alde-zerbaiten kontra dikotomia sarritan erabili izan dela, baina hau ez da atzo goizekoa: euskal komunitarismoak (maiz “subalternitateen” eta “pluriaktibismoaren” izenean) ere erabili izan du.

Hemen dugun arazoa ez da morala, sarritan moralatasun ideologia (bai, ideologia da, giza arrazoiketa batek egia sortzen duenetik sinetsita baitator) bat bihurtzen bada ere. Izan ere, ez baitago (akademian ez bada, eta hemen ere gero eta zalantza handiagoekin) metodoari hertsitako zientziarik, metodoari hertsitako politikarik ez dagoen moduan. Ez dago antidogmatismo edo heterodoxiarik: besterik gabe, txarrantxa morala baizik ez da. Hutsala da, ideologia hutsa. “Ortodoxia” eta “heterodoxia” kontzeptuek ezer gutxi esan nahi dute zerbaiti lotzen ez badira, izan ideologia gidari bati (“historiko-transzendentala” edo “unean-uneko anitza”), edo egoera konkretu bati (non ikusi dugun “ortodoxoa” eta “heterodoxoa” izatea aldagarria dela). Zer helbururekin aldatzen dira ohiturak eta metodoak eta “gure egunerokotasuna”? Zein estrategia proposatzen du gorpil oso koherente eta oso demokratiko batean unero biraka ematea ez baldin bada? Ez badugu borrokarako kontzeptu jarraikor bat, historiko-lineal bat, hau da, borroka ez badago historiaren jokaerak definitua, baizik eta guk “aukeratzen” dugunean zer borrokatu eta zer ez, “askatasun” liberalaren ariketa bat egiten ari gara, hau da, berriz ere kontzientziak (kontzientzia indibidualak) errealitatea sortzen duen aforismo zaharra; helburu baten ordeztu, etengabeko mugimenduko ziklikoa goratzen arituko ginateteke.

Gazte sozialisten talde batek eta haien antolakundeek guzti honekin apurtzea erabaki dute, eta klase borroka eta kapitalaren –eta honen araberrako erlazioen– aurkako estrategia integral bat zutarritzea erabaki dute. Hori da berrikuntza, eta ez koherentzia arma bezala erabiltzearena. Paradigma aldaketa baten aurrean gaude, eta agian paradigmen arteko lehia hau izango da Euskal Herrian hurrengo urteetan –behintzat giro ideologikoetan– lehia politiko-ideologikoa markatu dezakeena. /

Argitaraturik  
**2019KO ABENDUAN**  
**EUSKAL HERRIAN**

Koordinazioa eta Erredakzioa  
**GEDAR LANGILE KAZETA**

Web  
**GEDAR.EUS**

Sare sozialak  
TWITTER @**GEDARLANGILEKZ**  
INSTAGRAM @**GEDAR.EUS**  
FACEBOOK @**GEDAR.EUS**

Harremanetan jartzeko  
**HARREMANAK@GEDAR.EUS**

Harpidetza egiteko  
**GEDAR.EUS/HARPIDETZA**

Lege gordailua  
**SS-01360-2019**

Lizentzia



APIRILAK 9-10-11-12-13

EUSKAL HERRIKO GAZTE  
SOZIALISTON  
TOPAGUNEA

antolakuntzaren potentzia



# arteka

haustura bat  
inertzian

